



Zure jaia, gure jaia da. Zure poza, gure poza da.
Tu fiesta, es nuestra fiesta. Tu alegría, nuestra alegría.

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



EYSKALERRIKO
IPVIÑAK

EUSKALERRIKO IPUIÑAK

Azkue, Barandiaran, Estonba
eta beste euskal-ipuin batzailleai
zor dautsegu ipuin-sorta au

Beobide'tar José Luis'ek
jarri ditu bizkaieraz

Margolariak: Nicolas

Lenengo atala

Edita:

EUSKERA ZALEAK

ASOCIACION PARA EL FOMENTO DEL VASCUENCE

Colón de Larreátegui, 14, 2.º - BILBAO

I. BOAN, S. A. - Depósito Legal: BI-2.683-1980

IRU ESTUDIANTE

Gure ipuiñetako estudiantek oker, alper, buru zorrozdunak izan oi dira guztiak. Onangoxeak ziran, bein, Bilbo'n alkar egin ebena be. Eukezan diru apurrak eralgi, ikasteari itzi, lanerako nagi, goian zerua ta beean lurra gelditu ziran.

—Zerbait egin bear joagu (dogu) estualdi onetatik urteteko—. Eta euretako urtenenak:

—Ik (zuk) —esan eutsan batari— nondik edo andik, ardaoa ekarri.

Besteari:

—Ik (zuk) aragia. Nik ogia ekarriko joat (dot).

Bakoitza bere aldetik, gauzon billa asi ziran. Lenengoak zaragi bat, norbaitegandik lortuta, urez beterik ebala, ardantegiko bidea artu eban. Ardantegiko gizonari, urli aberatsaren morroia zala, esan eutsan, eta eukan ardaoa ez zala ainbestekoa, eta aldatzea gura ebala ugazabak.

—Aberatsari edozein mesede egin bear jako eta ekarri ona zaragi ori, eta artu orren orde berorren estariako bat.

Estudiantek bere zaragia itzi ta bestea besapean ebala, etxebidea artu eban.

Azokara joan zan bigarrena, aragi-billa. Aari bat urruntxotik ikusi ta pozik urreratu zan beragana. Laster egin eban egiunea bere jabeagaz.

—Erdu neugaz, gizon, eliza orretara. Ortxe dago nire ugazaba, ta laster dozu eskuan dirua. Egon ementxe, nik abadea bertora ekarri arte.

Eta urrenengo autortegira joan da:

—Jauna, an ate-ondoan agiri dan gizona autortzera dator. Dirua ta dirua nozean bein aitatu dautsu. Gizajoa ergela da-ta!

—Etorteko, ba!

—Joateko diño —gizonari estudiantek—. Antxe, bazter atako autortegian dago.

Saltzaillea urreratu, ta zutun-zutunik eta ixil-ixillik egoan.

—Belauniko —esan eutsan abadeak.

—Diru-billa nator, jauna.

—Zer diru ta diru-ondo?

—Aariaren dirua.

—Esan gizajo orrek "Nik pekatari".

Iges eginda egoan, orduko, eroslea, aari ta guzti. Batek ba-daki nondik nora joan zan.

Irugarrena azoka-inguruko ogitegi baten sartu zan. Ogi eder bi erosita:

—Erdu dirua artzen nire ugazabaren etxera.

Andik ur bizi zan osagille batenera joan ziran biak. Eta:

—Zagoz ementxe, goitik nazan artean.

Ogi-jabea atetan itzi, ta estudiantea gora. Atean jo, ta:

—Nor da? —esan eutsoen barrutik.

—Neu. Atetan gizon bat dago labatibea nai leukela-ta.

—Egoteko apur baten. Gertu dagonean dei egingo jakola.

Jatsi zan estudiantea, ta:

—Eurak dei egingo dautsuela, ta egoteko.

Egon eta egon, luze eritxon ogidunari, eta alako baten, kisketari ots aundi batzuk eraginda:

—Prest gagoz? —esan eutsen goikoai.

—Olako estualdia al daukagu? Etorri!

Eta eldu zaneke:

—Kendu prakak!

—Zer praka ta praka-ondo? —Dirua, dirua bear dot nik.

Aita-semeen artean oratuta, prakak beeratuaz, emon eutsoen zer ori, eta saritzat ogerleko bat katanarrutik aterazota, bere bidean bialdu eben ogiduna.

Iru estudianteak, alkar bat eginda, kokoteraiño bete arteko janedana egin eben illunabar atan.

ARRIETA'KO MANDAZAIÑA

Arrieta'ko mandazain bat autortzera joan zan.

—Zer lanetan abil i (zabiltz)? —itandu eutson abadeak.

—Ardaotan, jauna.

—Bizimodu txarra!

—Zergaitik, jauna?

—Ez al dautsok, (dautsozu) ardoari urik botaten?

—Bai, jauna!

—Ardaoari ura botatzea pekatu dok (da). Ez egik (egizu) olakorik geiagotan egin.

Egun berean bere mandoak ardaoz kargatzera joan zan gure mandazaiña.

An norbaitek ardaoari, betiko antzera, ura gaiñeratu gura eutson.

—Ken, ken —esan eban pekatariak. Ezin daikegu ori egin, pekatu da-ta. Ipiñi lenik zagietan ura.

Etxekoak arriturik nagusiaren naia bete eben. Eta berak:

—Orain bota egik (egizu) ardaoa erruki barik, ori ez dok (da) pekatu-eta.

ALKATE BAT ZERUKO ATEAN

Jesus asarre egoan, bein, San Pedro'gaz, biotz-bera izanda, zerura bear ez ziranai sartzten izten eutselako.

Gora ta beera ebillan Pedro minberaturik:

—Ez, ba! —Urrengo datorrena estu artu bear joat (dot) ba...

Andaluz alkate bat agertu zan, zeruan sartzeko baimena eskatuz; barrutik, nai arimaz, nai urdaillez naiko garbirik egoala-ta.

—Urdailletik garbi ete agoan, (zagozan) ikusi bear joat (dot). Munduko purga bat artu bear dok (dozu), orretarako.

Bi milla pezeta eskeiñi eutsozan alkateak, olako barik sartzten izteko.

—Ez jok (dau) emen diruak ezer balio.

—Nire probintziko gobernadoreak eun pezeta be pozik artzen ditu, ba, nai dodana egiteko.

San Pedro'k aingeru jagoleari mundura purga billa joateko esan eutsan. Laster ekarri eban aigeruak, baita San Pedro'k alkateari arrerazo be. Bertatik asi zan au agotik barrukoak botatzen: bedar batzuk, lenik; bideetako arriak, gero; zugatzak, azkenik.

Ori ikusita esan eutson San Pedro'k:

—Ire (zure) barru ori ez jagok (dago) garbi zerura joateko. Zer egin dok (dozu)

Eta aingeruak esan:

—Alkate zala, bedarrak errentan artzen zituan, bide-barriak eta basoak be bai. Gero saldu, eta ez eutson iñori ordaintzen.

San Pedro'k, orduan:

—Danak ordaindu arte, ez az (zara) zerura joango.

Eta eskerreko alderdian ate bat erakutsi eutson, esanez:

—Alde emendik. Or dituk (dira), inpernuan, i (zu) lako beste alkate batzuk.

LENENGO AEROPLANOA

Arratiar batek asmo andi bat erabillan, aspalditik, bere burua: Aramotz'etik Gorbea'ra, eta Gorbea'tik Lekanda'ra, eta inguruetako mendirik-mendi, txorien antzera, egaz ibiltekoa.

Kaiñabera me-meak alkarri, lotu ta ego aundi bi egin zituan orretarako.

Eta auzo eta adiskide batzuei dei egin eutsen.

Egoak aundiak izan arren, astunak ez ziralako-edo, lau adiskideen artean errez eroan ebezan Aramotz tontorreraíño. Eta an, asmalariari ego biak ondo lotuaz batera, esan eutsoen:

—Ortxe az (zagoz), ba!

Egazi barriak, arranoak ikusten zituan antzera, berak be *pla, pla, pla*, eginda, Aramotz-gaiñetik aizetara bota eban bere burua.

Amen Jesus esan orduko, lurrera jausi, eta Iturriotz ondoraíño bilin-dalaka eldu zan. Luzaro egon zan ez mu ez tu egin eziñik. Batzuk irribarre egin arren, larri egozan bere adiskide geienak. Eta ez ziran gitxi poztu, begiak eta ezpanak zabaltzen ikusi ebenean.

—Bizi az (zara) Martolo?

—Mutillak, gauza bat... gauza bat aztu jatak (jat), eta nik... nik ezin egaz ondo egin.

—Zer aztu jak (jatzu), ba?

—Buztana!

—Zeren buztana?

—Txori guztiak... buztandunak dozak (dira) eta...

Ez dakigu urrengo egadarako azurrak osorik gelditu jakozan ala ez Martolo'ri. Baiña, askok uste dabe, beintzat, arratiar batek asmau ebala lenengo aeroplanoa.

AIETZ GOR BAT (1)

Aietz gor bat Garralda'ko erreka ondoan egoan, beorra eta beorkumea zaintzen, osin bat aldamenean eukala.

Bidezko bat ikusi eban urrundik, eta bere artean esan eban:

—Orrek zeozer esango jaustak (daust), igarotean, eta nik ez jautsat (dautsot) entzungo.

Zein izango ete dok (da) lenengo itauna? —Auxe, ainbaten: norena da beor ori?

Eta nik: beorra neurea, erantzungo jautsat (dautsot).

Bigarrena: eta umea? —Baita umea be...
Gero: ia osiña aundia dan. (Aietzak osiña neurtu eta akullu bururaino zan).

“Mendi tontorrera nondik joaten da”, —esango jok (dau) gero.

Eta nik: bide gorri orretan gora.

Esango jok (dau) gero bidezkoak: mendi ori urrun ala ur dago?

Eta nik orduan: baso ori igarota, laster...

Eldu jakon bidezkoa, esanaz:

—Egun on, aietza.

—Neurea beorra!

—Otsoak jango al dau!

—Baita bere umea be.

—Akullu ori sartuko dauat (dautsut) eperditik.

—Goiko ganeraíño.

—Deabruak eroango al (zaitu) au!

—Bide orretan gora.

—Lepazurra ausiko al (dozu)dok!

—Baso ori igaro ta bertan.

(1) Aietza. Aezkoa'ko semea.

MIEL PREMIN

Aita batek, bere buruari zaar eritxiaz, seme nagusiari esan eutson:

—Miel Premin, ni ta etxeakoandrea zaartu gaituk (gara), eta etxeakoandre gazte bat ikusi nai joagu (dogu), oraindik bizi gareala. Ik (zuk), semerik zarrena azan (zaran) orrek, ezkondu egin bear dok (dozu).

—Bai, eta nogaz? Neskatxarik ez dot ezagutzen nik.

—Bedaio'ko baserri baten, neska bizkor bat jagok (dago), joan adi (zoaz) beragana eta esaio (esan egiozu): Praizka: nire gurasoak etxeakoandre barri bat bear dogula diño. Gurako zenduke zeuk gure etxeakoandra izan?

Semea bertatik gertau eta aitaren esana betetzera joan zan. Baiña neskea ez egoan etxean, etxeakoak zorroagaz errotara bialdu eben-eta.

Laster etorriko zala ta, itxaroteko esan eutsoen. Eta berak ezetz, artajorrara joan bear ebala-ta, beste baten etorriko zala. Aitak asarre egin eutson itxaron ez ebalako.

Andik laster, barriro bialdu eban etxekoandragai billa. Bidez joiala solo baten artajorran ikusi eban Bedaio'ko neska bizkorra. Oju bat egin eutson neskatxak:

—Aiko (zu), mutil, i al az (zu al zara) lengo baten nire billa etorri intzana (zintzana)?

—Bai, neu non (naz). Zer esango jautsenat (dautset) aitari ta amari?

—Baitez!

—Ondo jagon (dago). Eta bere etxera biurtu zan beste barik.

Urrengo jaiegunean, aita-sumeak Bedaio'ko baserrira joan ziran ezkontza egitera. Guztiak baitzean egozala ikusirik, senargaia-
ren aitak:

—Ezer emongo dautsozue?

—Bai —neskaren amak— alaba bakarra dogu eta oso maite be bai. Ontzako bat emongo dautsogu dirutan, oge baten erdia be bai, ta bei gorriaren zekorra gaiñera.

Aitak semeari, orduan:

—Pozik ago (zagoz), Miel Premin?

—Ni... bai, aita. Emen ez andrea bakarrik, gauzak be ba-dira.

San Miel irugarrenerako erabagi eben eztegua. Egun ori eldu, ta zenideak etorriko zirala jakiñarren, Miel Premin orbela batzen joan zan barrutira. Aitak igarri, ta bigarren semea bialdu eban etor-
teko esaten, andragaiaren eske joan bear ebala-ta.

—Ai anai, anai —erantzun eutson Miel Premin'ek—, ik (zuk) eka-
rri, nai nik ekarri, ekarria ekarri izango dok (da). Nik orbela batu
bear joat (dot).

Osabak joan izan bear eben senargaia etxeratzera. Aitak asa-
rrez, ondo jantzi ta idunean tatarra edo gorbata jartzeko agindu
eutson.

Ez eban, baiña, gauza onik egiten jantzikeran. Barruko praka
zuriak, txamarra antezera, besoetan gora sartu eziñik ebillala, dea-
darka asi zan:

—Aita, aita, zelango txamarra jarri daustazu emen?

Aitak jantzi bear izan eban mutilla eta amak jarri bear izan
eutson samako tatarra.

Olan joan ziran etxekoandra barriaren eske. Onen etxera eldu
ziranean, irrintzi bat egin eban Miel Premin'ek, ate-ondoan:

—Ni bai gaur errege nazala! Ain ederto jantzi nabe aitak eta
amak!

Eta neskatxa ate-aurrean agertu zanean, Miel Premin'ek bera-
ri:

—Gaur ondo apainduta, biar abarkak eta mantarrak... Gaur
asuria jan, eta biar baba baltzak eta taloa. Orretara bizi bear!

—Zu ibilliko ete ziñake beti orretara apainduta?

—Ni...? Bai eta pozik ibilli be. Ai gaur illunduko ez ba'leu!

Bazkaiten jarrita, ez eban mutillak ezertxo jan nai. Apainduri
areikaz jan barik be ondo egoala, iñoan. Eta bere emazte barriak:

—Zorua zarala esango dabe. Jan egizu, Miel Premin! Zuk eta nik
ixil-ixillik egon bear dogu gaur!

Osaba batek, olako neska ixil, burutsu ta zuurra zala ikusirik,
Miel Premin'i esan eutson:

Onek bear leukezak (leukez) ire (zure) prakak, eta ik (zuk) orren
gonak!

Gaur ez beintzat —erantzun eutson illobak—; neuk bear ditut
gaur soiñean daukadazan jantziok, biar goizean emongo dautsodaz
oni, alan bear bada.

Pozik joan ziran guztiak, Miel Premin'ek etxekoandra ona etxe-
ratu ebalako.

EMAKUME ALPERRA

Bakar-bakarrik bizi zan, gurasoak itzi eutsoena jaten. Ez eban
iñoz lanik egin; ez lurrik atxurtu, ez aririk josi ta aldagarririk garbi-
tu, ez autsik kendu ta sastarrrik batu, ez egurrik ekarri ez surik biztu.
Uretan iturrira, egarriak itoko ez ba'eban; eta gosez ilgo ez ba'zan,
auzora jateko zerbaiten billa. Orrexek ziran Iñazi'k bere gorputzari
emoten eutsozan neke bakarrak.

Gurasoakandiko dirua eralgi ebanean, zati edo aldi baten,
utsean emoten eutsoen jaten auzokoak.

Aspertu ziran, alako baten, eta emakume alpertzarrak, solora-
ta barriro ez astearren, lurpera bizirik eroan egiela, agindu eban.
Zerraldoan egoala, inguruetakoko emakume bat aurkituta:

—Nor il da? —itandu eutsen eroatalleai.

—Guk dakigula iñor ez.

—Il-oe utsaz al zoaze?

—Iñazi-alper daroagu.

—Bizirik?

—Beronek gura dau ta...


—Neuk emongo dautsodaz arto-anega batzuk, bizi izan al dedin,
eta atzera etxera!

—Iñazi: arto-anega batzuk emoteko prest dozu emen zure eza-
gun bat.

—Eiota ala eic barik?

—Ene andrea, eio barik emotea, gitxi al deritxozu?

—Arto orreik nik eiotekotan, gorde egizuz ondo zeure kutxan.
Aurrera gizonok, obira eldu arte.



ASTOA IXILTZEKO

Errotari geienak gizon lodikote eta patxadazkoak dira.
Bestelakoa dozu gure gaurko au: argal eta arduratsua.
Eta ezin ei eban gabaz, ezelan be, lorik egin.

—Zerk artegatzen zaitu, ba, gauero lorik ez egiteko —esan
eutson alboko lagun batek.

—Zorioneko asto orrek!

—Astoak, zer?

—Arrantzaka ekiten dautsola, gau guztian.

—Eta orrek loa galerazo, ezta?

—Bai, orixe!

—Zoaz legegizon bategana; eta arek esango dautsu zer egin!

—Orren erremedioa gura dok (dozu)? —esan eutson legegizonak.

—Orretarako etorria nozu, ba!

—Ara! Illunduten asten danean, ipiñiok (ipiñi egiozu) atzeko
buztanetik arri bat dingilizka. Eta ez jok (dau) ezelango arrantzarik
egingo.

Alan egin eban errotariak. Eta bai... ixil-ixillik egon zan astoa,
gau guztian, eta urrengo gau guztietan.

Eta ordurarte...

ZERUKO BARRIAK

Emakume bat bigarrenez ezkontuta bizi zan. Bere lenengo
senarra Joanes eban, bigarrena Peru. Bein, au etxean ez egoala,
gizon bat agertu jakon emakumeari.

—Ba-zatoz?

—Zu be etorri zatoz?

—Bai.

—Nondik zatoz, ba?

—Beste mundutik.

—Eta beste munduan zer barri? Ezagun dozu nire Joanes?

—Ezagutzen dot bai. —Argal dago, erdi billosik eta diru barik.

—Gizajoa! Nai dautsazu nire Joanes'i zerbait eroan?

—Oba ez!

—Ona galtzerdiak, galtzak, garrikoa, txamarrea ta txapela.

—Eta jatekorik, ez?

—Ona, urdai-azpikoa, txistorra, taloa... Zatorik ba-daukazu?

—Ez etxeokandre. Baiña botelietan be eroan neinke guraiña ardao. Ez daukazu dirurik?

—Berrogei ogerleko emongo dautsudaz beretzat. Eta esan egiozu maite nebala, Peru baiño geiago.

Pozik joan zan mandatari ori. Gerotxoago, Peru etxera etorri, eta emakumeak jazo zana, esan eutson.

—Dengañine-dengañinea esanez, Peru barrutik beorra ateraaz— arrapauko joat (dot) bai-eta joan zan.

Bildur zan zeruko mandataria, eta nozik beinka atzera begiratzan eban. Beor gaiñean lau-ankan norbait etorrela ikusirik, eskue-tako zerak sasi-artean gorderik, bide ertzean jarri zan bera. Eldu zan beorduna, eta itandu:

—Ba-zagoz?

—Ba-zatoz?

—Bai. Ikusi dozu, eskuetan zer batzuk eukazan bat?

—Baiii. Txara orren barrutik joan da.

—Zelan joan ninteke ni, beorra sartu ezin ba'da!

—Beorra...? Neuk zainduko dautsut, aren billa zabiltzen bitartean.

Peru, an zan bitartean, lengo zerak batu eta iges egin eban zeruko mandatariak, beor ta guzti...

Illun eldu zan Peru bere etxera. Baiña, oso argi agertu zan, emazteak igarri eta asarrerik egin ez egion.

—Ba-ator, (zatoz), Peru?

—Bai.

Ta... aurkitu dok (dozu)?

—Bai... eta zerura ariñago eldu daiten beorra emon jautsanat (dautsot).

AETZEN ETA SARAITZU ARREN ARTEAN

Bein, Aetzen kontu ta urteerakaz barrez egozan saraitzuar batzuk, ostatu bateko maian. Eta au azaldu eban euretako batek: "Aetz sakristau bat bialdu eban, bein, bere abadeak Iruña'ra, itzentsario barri bat eroatera.

Eta mutillari Iruña'ra baiño len, itzentsario izen ori aitzu. Aren lotsaria! Ezin, iñondik be, dendariari nai ebanik adierazo.

Kentzen dau Aetzek bere oiñetik jantzita eukan abarkea, eta ugaletik dilin-dalan, esker-eskumara erabilliaz, adierazo eutson, azkenik, bear ebana dendariari".

Kar-kar, naiko barre egin eben saraitzuarrak. Oneik, nozbaiten, ixildu ziranean, aetz bat asi zan:

"Saraitzun be izan ei dira, ba, gizon aazkorrak, eta ez edozelakoak!

—Aaztu? Zer eta nori?

—Parkatu, jaunak; baiña, Saraitzu'ko erri baten, ango auzune bateko batzarrean, eleizan gauza aundi ta eder bat jarri bear ebela erabagi eben. Erriko alkatea bialdu eben, eurak nai eben lakoxe gauz ori egiten zan olara, esanez:

—Zu zara gure artean gizonik biziena, itxartuena ta berbaldunik onena.

Alkateari, baiña, gauza aundi ta eder aren izena, bidean, aitzu. Eta dendarik-denda ibiltan nekatu zanean, dendari bati itandu eutson:

—Non saltzen da, eleizarako gauz aundi ta eder, tutu batzuek ez, gizon batek eskuak ara ta ona erabilliaz, *ooooj-ooooj* zaratea ateratzen dauana?

Astoaren arrantza lakoxe bat egiñaz, adierazo ei eutson erosi bear ebana: "organu bat".

Ez ei eben saraitzuarrak barre aundirik egin, ipuin au entzun ebenean.

ZULO BAKOITZARI LARAKOA

Baserritar maltzur bat konfesetara agertu zan, bein.

—Ezer ostu dozu? —itandu eutson abadeak.

—Artegi baten, aari bat ostu gura izan neban bein. Zuloa txikie-gia, eta bertan itzi bear izan neban.

—Asmoa, egindakoa beste da, eta aren ordea emon bearrean zagoz. Ogerleko bat arimai, eskeloai, zeri edo ari emon bearko dautsozu.

—Ez al da bardin berorri emotea?

—Beartsuai emongo dautset nik, eta ekarri gura ba'dozu.

Baserritarra emakumeak autortzen diran aldera joan, eta sareko utsune artetik dirua erakutsita:

—Artu bei, jauna, artu ogerleko au.

—Nik ezin dautsut ortik artu baiña!

—Bardin jazo jatan neure be.

BEGIRA

Ba-zan aldi batez gizon zaar berebiziko bat.

Ba-joian, egun baten, abadearen etxe ondotik. Bazkari aundi bat eukan onek, egun atan ain zuzen, eta gure gizon au ikusirik, barrura sartzeko esan eutson, barre-aldi bat egiteko asmotan.

—Ipuin-jario zarean orrek, esan ipuintxo bat.

—Bein, txarri batek amabi txarrikuma eukazan, eta amaika erro bakarrik.

—Eta zer egiten eban amabigarren txarritxoak?

—Orain ni letxe besteai begira egon.

Sekulako algarak egin zituan abadeak, au entzutean. Eta ondo emon eutsan jaten eta edaten.

SAN PEDRO'REN GOSEA

Bein baten, Jesus'ek urreko erri batera bialdu eban San Pedro, jaietara. Joan zan Pedro eta barru aundikoa zanez, jente guztiak bakoitzak bere etxera eroan gura eban.

Guztien etxera ezin eta batenera joan zan. An, jan-edanean emon eban eguna. Eta illunabarrean, Jaunagana biurtu, eta Onek:

—Zelan ibilli az (zara) ba, Pedro?

—Jendeen guraria bete eziñik. Guztiak bakoitzak bere etxera eroan gura ninduen. Olakoetan gizonak urdail bi bear leukez.

—Oa (zoaz), biar be.

Joan zan ba, goiz-goizetik. Eta egun guztian batera ta bestera ibilli arren, ez eutson inork berera deitu.

Eta illunabarrean, eldu zan Jaunagana, txakur zar bat bera bere narru ta guzti jateko gosez. Eta Jesus'ek:

—Ta, Pedro, ondo ibilli az (zara) edo?

—Ai, Jauna...

—Ba-eunkan (zeunkan) urdail biren bearrik?

—Bat be sopra, Jauna!

SENARGAIAREN BILLA

Neska zaar bat Urkiola'ra joaten zan, igandero-ingandero, eta San Antonio'reen altara aurrean belaunikaturik, itz eta bitz, luze egoten zan.

Otoitza be zaratatsua, eta santutegiko meza-mutillak oartu eta begiz jota eukan.

Eta urrengo igandean, eleizarantza beti lez ikusi ebanean, elei-zan ariñeketan sartu, eta altara-ostean gorde zan.

Sartu da neskazar ori. Belauniko jarri. Eta bakarrik egoala-koan, besoak zabaldu, begiak okertu eta otoitz beroan asi:

—Arren, Aita San Antonio, arren; senargai bat emoidazu, senargai on bat... Bost bidar, esan eban otoitz bera. Eta jarraitu eban gero:

—Nai ta ez izan eder. Nai eta ez izan gazte. Naiz epox izan... Nai ipurterre izan...

Eta altara ostetik, mutikoak:

—Aurten ez... Aurten ez!

Eta San Antonio'k bere eskuetan daukan Umetxoa zalakoan, neskazarrek erantzun:

—Ago (zagoz) ixillik i (zu). Ire (zure) aitagaz nok (nago) ta.

PRAKAMAN

Prakaman eritxon mutiltzar bat bizi zan, bein, Markiña'ko urian. Alper utsa zan, eta an ebillan bera, non eztegua ta antxe, non batzarra ta barruan, non bazkaria ta aurrenengo. Emakume artean be lotsa aundi barik sartu oi zan, arein "Andra-ikustean" batez be.

Zer da andra-ikustea?

Ona: emakume bat, sein egin-barria, osatu ta urrengo jai-egunean, bere senide ta auzoko andrak bera ikustera datorkioz. Eta ogi ta ardaoa, beste zer edo zertxogaz, alkarregaz artu oi dabez.

Olako batzar baten, bein, onan inotsan andra zaar batek ama barriari:

—Praizka, gaur ez daunagu (dautsogu) parkatuko alper, zuri, baldar, gogaikarri orri!

—Barru txarrekotzat naukazue ni, orraitio! Zelan kanpora jaurti, neu ikustera datorren gizon baketsua?

—Praizka, i (zu) geldi-geldi egon. Neuk egingo jonazat (dodaz) emengo lanak. Ekarri buztarri bat. Eta kendu umea seaskatik, eta buztarria jarriko jaunagu (dogu), Praizka, aren orde, ondo batuta. Arin, baiña, ba-jatorkigun-eta!

—Ixillago, Mari Andres, entzungo jaustan (daust) bestela-ta.

—Ez dagiala, gero, iñork barrerik egin!

Andik lastertxo sartu zan Prakaman ori. An egozan orduko mai aundi bi alkarren aurrean, zapi zuriz ederto jantziak, eta pitxarrez eta ogiz eta jatekoz oparo orniduta. Eta Prakaman'ek, eskuaz txapelari ukututxo bat eginda, ba-diño:

—Jaungoiko santuak gaur lango arratsalde on asko emon deigula guztioi; batez be, etxekoandra neure eskola-lagun Praizka'ri, beronen usokume umetxo barri erreka-ondoko lora ederrari, ta ama-semeak goratzera etorri garean guztioi. Orra or, Mari Andres be, beti lango andra eder...

—Bai, emen naiagok (nago) ni beti langoxea. I, (zu) Prakaman, ez az (zara), ba, betikoa!

—Mari Andres ta ni auzo onak, alkar ondo artzekoak, izan gara beti.

—Txikia intzanean (ziñanean), gaur baiño zintzoagoa intzan (ziñan) i (zu), bai zerbait. Ai, gaur baiño bigunagoa iegoan (egoan) garri ori, orduan.

—Beti izan dot nik Mari Andres Balentzia'ko laranjak lakoxea: azal latz eta barru gozokoa. Berba latzak eta biotz bigun-biguna euki dau Mari Andres'ek niretzat beti. Praizka, zure ta jaiio-barri onen osasunerako ta guztion onerako ardao-tanta bat edan daigun.

—Orretarako bai, esan eutsan Mari Andres'ek, —edateko ohea az i (zara zu), lanean izerdia aterateko baiño! Umea non dagoan, begiratu be egin barik.

—Mari Andres, ikusi ez ba'neu be zer? Seme ederra, altara nagusiko aingeruak langoxe berna lodi, mosu gorri... ederra izango dala jakiteko, amari begiratzea baino ez dago.

—Eta zer esango eunke (zeunke) umea ikusi ezkeru —Mari Andres'ek.

—Orra or dago, eder ori, seaskan batu-batu eginda. Surrean aita berbera da, bekokian eta ezpanetan ama dirudi, ta aitita langoxe gizon galanta, lepo-zabala izango da ori, nire ustez.

Au entzun ebenean, algaraka asi ziran ango andra guztiak. Mari Andres'ek, orduan, seaskatik buztarria atera, ta Prakaman'en begi aurrean ipiñiaz, esan eutsan:

Prakaman bat, Prakaman bi

Prakaman nor dan ezetz igarri?

—Emen dok (dozu) ire (zure) ume eder, altarako aingeru berna lodien antzeko ume ederra. Begira ondo. Ire (zure) aita be olakoxe

barritsua zoan (zan), eta ez dok (da) arritzekoa. Areitzak ezpala bere arikoa.

MATAZARI TA KURUTZEA

Durango inguruko Orozketa baserrian, gaisorik egoan bertako gizonik zarrena.

Ilgo ete zan bildurrez, gaisoaren seme, etxeko jauna Durango'ra jatsi zan, abade billa.

Motxoko eritzan sakristau baragarri bat eroan eban laguntzat, abadeak. Gora ta gora, Orozketa'ra nozbait eldu, eta etxean sartu baiño lenago kurutzeta eskatu eutson abadeak Motxoko'ri.

—Oleaziño ta estola ta bear ditugun guztiak emen ditugu, jauna. Kurutze ori ez; aitzu egin jat. Baiña, bertan izango dabe kurutze ori, ziur. Etxekoai eskatu, eta ez eukela erantzun ebenean, Motxoko'k:

—Matazaririk ez al daukazue?

Laster eskuratu eutsoen matazari bat, eta Motxoko'k beko besotxoak kendu, ta kurutzetzat abadeari emon eutson.

Abadeak, orduan, gaisoari kurutze barria erakutsita:

—Nor egon zan emen?

—Or, or...

—Bai, ementxe, nor egon zan?

—Or matazea, jauna!

Abadeak au entzunda, lagunari:

—Motxoko, Motxoko, au ez dok (da) ilgo. Goiazak (goazen) geure bidean.


Andik egun batzuetara, Orozketa'ko gizon zarra Durango'n ebillan.

ARAOZ'KO KANTARIA

Oñati'ko auzotegi onetan, Araotz'en, gizon bat bizi zan, beti kanta ta kanta, orduak emoten zituana.

Bein, leza baten egoala, zerbait kantatzen asi zan beti lez, eta baten batek erantzuten eutsola konturatu zanean:

—Au dok (da) nire poza! —iñoan—. Erregegana naioak (noa).



Bidez joiala, oial-saltzaille bat aurkitu eban. Eta onek erregegana-ko joate ori entzun eutsonean:

—Txarto jantzita zoaz —esan eutson—. An izango dozun irabaziaren erdia neuretzat izateagaitik, nik soiñeko bari, garbi, ederrez jantziko zaitut.

—Tira, ba!

Eta jantzi garbi, barri ta ederrez jantzi eban gizon arek.

Joan, eta joan... erregeren aurrera eldu zan Araoz'ko kantaria. Eta an ekian guztia abestu eban, errege eta onen aundiki guztien aurrean.

Errege eta onen lagun zitalak txarto eritxi, baiña, eta saritzat berreun makillada emon egioezala, agindu eban.

Eta gure kantariak patxada-patxadan:

—Berreun...? Eun oialdunarentzat, orduan.

IDORTEA ETA IDORRERIA (1)

Bein, idorte aundi batez, Ibar eskumako erritxo baten, jente guztia bildurtu, eta errogatibak egitea, eskatu eutsoen euren parroko jaunari.

Eta eleizatik urten aurretik, itzalditxo bat egin eban abadeak: pekatuak dakazan ondoren txar eta illunak azalduz, eta otoitzak, ostera, lotzen dauskuzan mesede ta laguntzak adierazoz.

Itzaldian inarduan bitartean, ez dakigu zelan, baiña miiñak laprast eginda-edo, "idortea" esan bearrean, beste antzeko itz au "idorreria" esan eban. Eta Jainkoari olako zorigaitzaren aurkako laguntza eskatu.

Sakristaua aurretik, ba-joian jente-moltso bat, bidez gora, errogatibetako kurutz-mendirantza.

Kantuz eta otoitzez joiazan danak, eta zerurantza begiratzen eban, nozik-beinka, ia laiñoren baten printzik agertzen zan orren batetik.

Beste keskarik eukan, baiña, sakristauak. Eta aldatzean gora joiala, mitillari kurutztea emon, eta bazter bateko sasi artean sartu zan. Ez dago ba premiña ta bearraldia langorik.

—I (zu)! —gizon zaar batek, orduan, ixilka, alboko lagunari— i (zu)! Jainkoak entzun jok (dau) gure abadearen otoitz eta eskea.

(1) Idorte. sequia
Idorreria. estreñimiento

PITXER GARBIA TA ZIKIÑA

Jesukristo'k eta San Pedro'k neska bat aurkitu eben iturri baten. Ura eskatu eutsoen, eta neskeak pitxer zikin baten emon eutsen ura. Eta Jesukristo'k, orduan:

—Eskerrik asko, ta Jainkoak emon daizula senar on.

Joan eta joan, beste neskatxa bat beste iturri baten ondoan. Eta ura eskatu eutsoen ari be. Eta ak pitxer garbian emon eutsen. Jesukristo'k, orduan:

—Eskerrik asko, eta Jainkoak emon daizula senar txar.

San Pedro'k au entzunda:

—Zelan da ori, Jauna? Pitxer garbidunari senar txar, eta zikiñean ura emon dautsunari, senar on?

—Ai, Pedro, Pedro! Zikiñak onagaz ez jok (dau) bizimodurik aterako; garbiak, ostera, txarragaz be bai.

LAKUNTZA'KO MANDAZAIÑA

Bein baten, Lakuntzar bat Iruña'ra joian zazpi mando ta arraiñakaz. Bidean iru estudiante aurkitu zituan.

Urriñetik ikusi ebenean, deabrukeriren bat egin bear eutsoelata, bide ondoko sasian gorde ziran euretariko bi, eta mandazaiñagaz berbaz asi irugarrena.

—Prezio aundia dau gaur Iruña'n arraiñak. Ez zare txarto bizi mandazaiñok...: nai beste irabazi; iñork baiño arrain ohea, jateko; ardaorik onena, edateko...

Eta onantxe, joian estudiante maltzurra, mandazaiñaren belarriak gozatzen. Beste biak, bitartean, asi ta burutu eben euren lana: atzetik joianak mando bat zama ta guzti lapurtu eutsen. Bigarrena, kaprestua bere buruan jarri, ta lapurtutako mandoaren orde, besteentzen lerroan lotu zan.

Alako baten, mandazaiñak atzera begiratuta, gizon bat mandoantzean loturik ikusi ebanean, arriturik beraganatu zan:

—Seme, zer egin dok (dozu) nire mandoagaz?

—Neu nozu (naz) zure mandoa.

—Eeee?

—Orain lau urte, pekatu baltz aundi bat egin neban, eta mando biurtze au agindu eustan abadeak penitentzi. Oraintxe bete ditut lau urteak, eta ona ni gizon biurturik, orain.

—Arraio-arraioa! Amaika aldiz, emon dauat (dautzut) zama geiegi, eta zaldale gitxi. Parkatu, seme!

—Guztia parkatuta dago, jauna.

Kaprestoak itzita, joan zan mutilla. Mandazaiña etxeratzean, mando bat gitxiagogaz agertu zanean, emazteak:

—Arraio-arraioa! Jokoa edo olan galduko endun (zendun) mandoa, e?

—Ago (zagoz) apur baten bakean, esango dauanat (dautsut)-eta.

—Esan, ba!

—Iruña'ko seme gazte eder bat mandoturik, lau urtez ibilli don (da) neugaz.

—Zer diñok (diñozu)? Eta ez al dautsok (dautsozu) parkapena eskatu?

—Bai-ta berak emon be.

—Bai, amaika aldiz esanten neuan (neutsun) nik a mandotarako politegia zala!

Andik laster, Tafalla'ko feri batera joan zan mandazaiña, eta an aurkitu eban estudiante maltzur areik lapurtutako mandoa. Bai laster ezagutu be. Eta beragana urreraturik, esan eutsen belarrira:

—Orain be pekatu baltzen bat egin dok (dozu) ala?

BABAK ETA ARRAUTZAK

Azpeiti'ko mutil gazte bat Habana'rako ustean, bere erritik urtenda, Donosti'ra eldu zan.

An egoan itxas-ontziak, ekaitzagaitik, amabost egun atzeratu eban Habana'ratzea, eta azpeitiarra atzera bere errira.

Ardantegi baten, arrautza bi eskatu zituan, eta jandakoan, ogerleko bat emon eban kontua egiteko. Atzerakorik ez eukala ta, urrengoan ordainduko ebala, eta amalau urte igaro ziran Habana'n aberastuta Azpeiti'ratu artean.

Lenagoko ardantegira jo eban indianuak, arratsalde baten, bere zorra gogoraturik.

—Zenbat da orduko kontua, arako arrautza-erre biena?

Eta millaz errealeko emon bear zituala...

Eta eukan aldean ainbeste diru, eta etxerantza billa joiala, bere adiskide baserritar batek:

—Zer dok (dozu), mutil, orren illun egoteko?

—Auxe ta auxe... Eta gaiñera, auzia jarriko daustala, eta epai-ileagana eroango nauala.

—Ez estutu, mutil! Neu eroan orretarako lagun. Eta gero, gero-koak.

Epai-eguna eldu zanean, guztiak ordurako etorri ziran; baserri-tarra, ez. Eta auzi lekuan sartu zaneko...:

—Non egon az (zara), orain arte? —itandu eutson epai-buruak.

—Jauna, biar baba gorriak erein bear ditut, eta egosten ipiñi bear izan dodaz, biar ereiteko.

—Zelan dok (da) ori? Baba gorri egosiak erein? Olangoak ez dozak (dira) ernetan.

—Baba gorri egosiak ernetzen ez ba'dira, arrautza erreak be ez dabe txitarik egiten.

—Agur, jaunak.

ARDI ZAAR BAT

Aldi batez, nagusi-mutillak satsa batzen ekion.

Sukaldeko lanak be eurak egin bear izaten ebezan, ez egoalako emazterik etxe atan.

Eguerdian jateko, ardi-buru bat izaten eben, topiñean egosita. Suari eragiteko aitzakian, nagusiak sats-lanak izten situan, eta topiñeko ardi zarraren buruari sarri miiña jaten eutson.

Mutillak zerbait susmau, eta etxe-zoko baten gorde zan, bein, nagusia zetan ebillan ikusteko. Eta nagusiaren lana zer zan ikusi ebanean, arek etxetik urtenda gero, bera be sukalderatu, eta topiñeko ar diburiari begi biak atera eta gogoz jan zituan.

Eguerdian, biak bazkaien jarri ziran. Nagusiak topiñetik ardi-burua artu, mai gaiñean jarri, eta itsu egoala ikusirik, esan eban:

—Ardi zar mukizu, begi biak non dituzu?

Eta mutillak nagusiari erantzun:

—Nagusia, miiña emoiozu, eta berak erantzungo dautsu.

SERMOI LEKUAN

Abade batek bere gotzaiñaren eskutitz bat artu eban bein, erriari irakurteko.

Joan zan, igandean, sermoi-lekura, eta irakurtzen iñarduala,

eskutitza ango zulo batetik jausi jakon, eta erriko arotzaren emas-tearen buru gaiñera etorri.

Ikaratu zan emakumea, eta uzker batek urten eutson ikarearen ikaraz, eta barreka jarri zan erri guztia.

Ez eban abadeak uzkeraren soiñurik entzun, bai osterari erri guztia barrez ikusi, eta erriari esan eutson:

—Esaten dautsat nik, esaten bai gure arotz orri, itxi dagiala itxi, lenbailen, zulo ori.

Eta beti alperrik.

SAN MARTIN'EN TXISTUA

Erremerteria zan San Martin txiki.

Egunero joakon sutegira neska zar bat.

Onen, San Martin'en anaiak, alango baten aspertuta, surtara bota eban asarrez.

San Martin'ek ori ikusi, eta txistua jota, biztu egin zan neska zar ori, eta len baiño ederrago ta gazteago gelditu.

Auzoko batek, au jakiñik:

—Nire emazte zatar au surtara bota bear joat, —esan, eta bota, eta erre egin zan. Eta senarrak txistua joarren, ez zan biztu.

San Martin'egana jo eban orduan gizon alargunak.

San Martin'ek au be biztu eban; baiña len besteko zar eta zatar urten eban sutegitik. Eta San martin'ek gizonari, orduan:

—Urrengoan, ez egik egin euk (zeuk) ez dakian (dakizun) gauzarik, besteak dakiala ta beste barik.

AZERI BATEN ZORIA

Azeri batek goizean, bere abitik urten baiño len, uzker bero bat bota eban, eta bere buruari esan:

—Nire putz bero onek, ezpai barik, zoriona ekarriko jaustak (daust). Urten eban abitik, eta puxiga bete koipe arrapau eban, laster.

—Au jaten ba-joat (dot), egun guztiko illundurik itziko naiok (nau). Ba-naioak (noa) aurrera, eta gauza obeagorik aurkituko joat (dot).

Esan eta egin: aurrera joan, eta txarri makera bat aurkitu eban zortzi ume ederregaz, eta:

—Neureak zaree; geldi danok.

—Zer egin bear dauskuk (dausku)?

—Bertan jan!

—Olan, ain zikin gagozala? Oba dok (dozu) aurreko osin orretan ondo garbitu, eta garbi-garbi jan!

—Ez jagon (dago) txarto esanda.

Osin-ertzera joan, eta asi zan txarrikumak banan-banan garbitzen. Bere atzean egoan txarri-amak, orduan, azeria muturraz jo ta osiñera bota eban. Eta azeria ito-agiñik egoan bitartean, amak bere umeak artu, eta anka andik. Azeriak urten orduko, oso urrin egozan.

Eta azeriak ba-diñotso bere buruari, naigabeturik:

—Ondo egiña jaukat (daukat)! Nork egin naiok (nau) ni garbitzaille txarriak garbitzen asteko?

Andik urrin barik, beor bat bere umeagaz aurkitu, eta esan eutson:

—Neureak zaree.

—Ni... beor zar-iger au jan?

—Bai, errazoia don (dozu). Ez aunat (zaitut) i (zu) jango, baiña umea bai.

—Ori, or ainbaten! Baiña, arren, umea jan baiño len, niri ainbatera joaten itzi bear daustak (daustazu). Arantza bat sartu jatak (jat) ankan, eta arren! euk (zeuk) atera bearko daustak (daustazu).

—Orrenbeste egingo dunat (dautsut).

Eta azeria lan orretan asi zanean, beorak ostiko aundi bat emon eutson muturrean, eta konorte barik eta agin barik itzita, bere umeagaz iges egin eban.

Azeria bere seneratu zanean, samintasun andiz, iñor barik ikusi eban bere burua.

—Nork egin nindun ni albaitera, arantzak ateraten asteko?

Bidean aurrera, gauzok erabiltzazan bere buruan:

—Zoro au! Ai goizeko puxigia iruntzi ba'neu! Ai nire txarrikume gizen areik jan ba'nitu! Ai nire beorkumeari, osagintza itzita, agiñak ezarri ba'neutsoz! Ez jat, aurrerantzean, orrelakorik jazoko ez, arraioak ez ba'ditu!

Bidean aurrera, auntz zar bat topau eban, eta:

—Jan bear aunat (zaitut)!

—Ni? Ez nok (nozu) azurra ta azala besterik. Oba dok (dozu) nire aume biak jatea. Ortze errotan jaukazat (daukadaz).

—Tiron (tira), ba, joan eta ekarri egizan (egizuz).

Auntza errotara joan, eta bere umeak ekarri bearrean, errota-riari esan eutson jazoten zana.

Errotariak, orduan, bere eskopetea artu, ta *pun!* ankaz gora bota eban azeri uzkertia.

ONTZA ETA KURUTZEA

Ezkurra'n, eleizako argiontzitik orioa nork lapurtzen eutseen igarri eziñik, bizi ziran, aspaldi luzean.

Lapurren barria jakiteko, bat eleiz-barruan kukuka gelditu zan gau baten. Gaberdi-gaberdian agertu zan orio-lapurra: ontz zar eta itsusi bat.

Pozik eroan eban eskopetea sorbaldara gure eiztariak.

Ontza kurutze nagusian gelditu zan. Bein eta barriz kiñu egiten eutson eskuaz kurutzeari eskopetadunak, andik kentzeko. Baita apal-apal esan be:

—Alde, alde ortik!

Kurutzeak zirkiñik be ez. Eta *punp* egin eskopetadunak. Ontza gorengo leiora joan zan. Eta kurutze ederra, zati-zati egiñik lurrera. Eskopetaduna, bildurtu, orduan, eta altara aurrean belaunikaturik auxe esan eban:

Kurutze santua: parkatu,

zeuk be errua ba-dozu.

Gizona koleran ikusita,

zergaitik alde egin ez dozu?

NEURRI LUZEKO ZERBAIT

Aurizperri'n, atso bat joan zan bein autortzera, barrua estu-estu ebala. Pekatutxoren bat agertuaz gero, ba-eukala beste zerbaite esan eutson abadeari. Ez eukala, baiña, a esateko adorerik. Lotsari aundikoa zalako.

—Emakumea...! Gure Jauna besoak zabal dago beti pekatari aundientzat be. Esan, ba, zer dan pekatu ori!

—Orra, ba, jauna. Korpus-Kristi egunean, prozeziñoan niñoiala, amabi barako uzker bat bota neban.

—Eta zelan neurtu zendun ba zure lan aundi orren luzea?
—Ba... jauna...! Ba-dakizu zelan jartzen dan amabi barako oial luzea alkatearen ate-aurrean?
—Bai...!
—Ba... oial orren ertz batean asi, eta beste ertzean amaitu neban.

MAIRUAK ETA PRAILLEAK

Mairuen (moroen) agintari batek komentu bateko prailleak atera nai zituan andik.

Ez eutson bere buruak orretarako hiderik asmatzen, eta sorgin bategana joan zan. Eta atso orrek, zortzi egun barru, erakutsiko eutsola bide ori, esan eutson.

Egunak etorri, ta sorgiñak agintariari:

—Zoaz komentu orretako nagusiagana eta iru itaun egiozuz: lenengoa, zenbat denporan emon neikio nik munduari ostera osoa?
—Nik zenbat balio dot?, —bigarrena. Ta irugarrena, zein da nik orain buruan daukadan ustea?

Pozik joan zan mairua prailleen nagusiagana. Iru itaun orreik egin, eta illabetea emon eutsan erantzuteko. Eta gaiñera esan eutson:

—Igartzen ez ba' dozu, samea ebagiko dautzut, neuk ebagi be, eta zure lagun guztiak komentutik bota.

Asmatzen asi zan gaiñeko egunetan praille nagusia. Geroago ta larriago, ez eban ba ezer asmatzen. Ez jan, ez lorik ez eban egiten. Txarto jarri zan, ogeratu bearrerañio.

Praille legoa oartu (konturatu) eta zer eukan itaunka ta itaunka ekion. Ez eutson, baiña, nagusiak bere barrua zabaldu gura, alperrekoa izango zelakoan. Eta legoak, ekin ta ekin:

—Zer dozu, aita? Baiña, zer dozu, aita?

Egun batez, arriari esanda be arnasa eta atsedena artzen zalata, mairuak egiñiko iru itaunen barria emon eutson.

—Neuk asmauko dautsut, esan eutson legoak.

Illabete igarota, mairua agertu zanean, legoa nagusiaren jantzia soiñean, jatsi zan beragana. Bereala asi ziran itaunerantzunetan:

—Zenbat denporan emon neikio nik munduari ostera osoa?
—mairuak.

—Jarri zaite eguzkiaren gaiñean, eta ogeita lau orduan, emongo dozu —legoak.

—Zenbat balio dot nik?, —mairuak.

—Ogei ta amar dirutan saldu eban Judas'ek errege guztien Errege, zeru-lurren Jabea. Zuk ogei ta bederatzi baino geiago ez dozu balio —legoak.

—Zein da nik orain buruan dodan ustea?, —mairuak.

—Zuk uste dozuna? Prailleen nagusiagaz izketan zagozala uste dozu zuk, eta lego ezjakin eta apal bategaz diarduzu, —legoak.

Mairuak, orduan, bere barruan:

—Tontoena olangoa danean, zer ete dira besteak! Ez dot ezertxo be nai emen.

Eta komentutik buru-makur urten eban.

OTSOA TA EIZTARIAK

Bein baten, iru gizon joan ei ziran otso-eizera. Eta bidean joiazala, alkarregaz berbaz-berbaz asi ei ziran: ia norentzat izango zan otsoa, ilten ebenean.

—Lenengo ikusten dauanarentzat —iñoan batak.

—Ez, lenengo tiroa jaurtitzen dautsonarentzat —gaiñeratu eban beste batek.

—Ez, ez...! —Esan eban, askenez, irugarrenak: iltzen dauanarentzat izan bear dau otsoak.

Olantxe berbaz, tapa-tapa joiazela, ona bat-batean otso izugarri bat euren aurrean.

Aiai ikaragarri bat atera, eta ariñeketan eiztariok.

Bat gelditu zan, orraitio, zirkiñik barik, bildurrez, arri biurtuta lez, ez batera, ez bestera.


Otsoa etorri, usainka asi, bira bat emon bere inguruan, eta beste barik, anka egin eban andik, astiro-astiro.

Otsoa gorde zanean, beste eiztari biak be etorri, eta irugarrenari itandu:

—I (zu)... eta zer esan daua (dautsu) otsoak?

—Konturik ez aterateko, otsorik arrapau baiño len.

MOZKOR BAT



Senar-emaste batzuk, beti asarre bizi ziran. Mozkorra zan senarra. Emazteak, bere esanak alperrekoak zirala ikusirik, bere eritxia auzoko emakume bati eskatu eutsen.

—Ba-dakizu, Mari, zer egin geinken? —Bera mozkorrik datorrenean, zuen etxe-ondoko adaburuan egon, eta purgatorioko arima errukarri bat ba'nintz lez, berba egingo neuskio. Zer deritxazu?

—Zerbait egin bearko da, beintzat.

Ba-etorren, ba, gau baten, besteetan lez, mozkor ori *trinkulun-trankulun*, eta:

—Ai, ai! —asi zan adaburukoa.

—Nor az (zara)? —itandu eban mozkorrak.

—Ez dakik (dakizu) ire (zure) auzoko Pedranton, arako lengo urtean ildako Pedranton? Aren arimea nok (naz). Purgatorioan naia-gok (nago), oiñaze artean, surtan.

—Eta zer gura dok (dozu), ba?

—Ik (zuk) tabernan alperrik eralgiten dokan (dozun) diru ori!

—Dirua? —Zertarako bear dok (dozu) ik (zuk) dirua?

—Arantzazu'n ogerlekoko meza bat jaukat (daukat) eskiñita.

—Eta ik (zuk) ez daukak (daukazu) dirurik?

—Dirurik ez jagok (dago) emen. Diruok or dituk (dira), or, munduan.

—Dirurik ez ba'daukak (daukazu), joan adi (zaite) atzera lengo lekura; iñok ez jok (dau) mezarik utsean emoten.

TRENEAN

Egun baten, neska bi ta gizon bat joiazan kotxe baten. Txakur bat eroien neskak, eta pipa bat gizonak.

Neska areik nazkatu egiten ziran gizon a erretzen ikustean, kotxe guztia kez betetzen ebalako.

—Alako baten, pipea itxi eban leioan gizonak, eta erdi lotan lez gelditu.

Neska biak, gizona alan ikusi ebenean, artu pipea, ta leiotik beera bota eben. Andik lastertxora, itxartu zan gizona, eta esan eban:

—Non da nire pipea?

—Aizeak eroan dau —neskak erantzun.

Andik laster, loak artu zituan neska biak. Eta, orduan, gizonak arein txakurra artu, eta leiotik beera bota eban. Eta neska biak itxartu ziranean:

—Non da gure txakurra?
—Nire pipearen billa joan da —gizonak erantzun.
Zeuretzat nai ez dozuna, ez besteri egin!

OLATAK

Len, olatak egiten ziran gure eleizetan... Erriko etxeoandra guztiak ogi bat eroaten eben altzoan.

Eta Mezako eskintza-aldia eldutakoan, euren jarlekuetatik jagi eta altararantza zuzentzen ziran. Abadea be altaratik jatsi, eta bere "estolea" mun-egiteko aurreratu ondoren, olata areik, arimen aldeko eskiñitzat artzen zituan.

Etxekoandra txiki bat zan bein eta ogi txiki bat ekarren olata-tzat.

Eta abadeari eskintzerakoan, uzker batek urten eutson andra-xoari.

Eleiztar guztiak barrez iztanda egin bearrean asi ziran.

Abadea bera gorra zan, eta ez eban uzkeraren soiñurik entzun.

Eta andra txikiak ekarritako olata txikiagaitik barrez iñardua-la uste izan eban. Eta esan eutsen eleiztarrai:

—Ez barrerik egin. Oraingoan txikia egin dau, orea edo masa gitxi euki daualako. Urrengoan aundiago egingo dau.

DEABRUAREN ZIRIA

Bein baten, nekazari batzuk lurra landuten eragoien. Lanean iñarduela, deabrua agertu, ta esan eutsen:

—Lur erdia neurea da. Zuok artuko dozuenaren erdia neurea izango da. Lurraren azpikoa zeuena izan dedilla, eta lurraren gaine-koa, neurea.

Nekazari areik, orduan, arbia erein eben. Eta arbi-aroa etorri zanean, arbi-buruak nekazariantzat izan ziran, eta gaineko ostoak deabruarentzat.

Asarratu egin zan deabrua au ikustean, eta barrero agertuaz, esan eutsen nekazariari:

—Aurtengoa jazo ez daiten, zuek ereiten dozuenetik, lurraren azpikoa neuretzat izango da, eta lurraren gainetikoa zuretzat.

Arto ta gari-aziak erein ebezan, orduan, nekazariak. Eta uzta-roa etortzean, nekazariantzat izan ziran ango ale guztiak, eta deabruarentzat lur azpiko suster baltzak.

KATUA TA SAGUA

Bein baten, katua gosez egoan, eta gaztai erdi bat ikusi eban, azpil baten gainean.

Jan-aldi eder bat egiteko asmotan egoan; ona, baina, onetan, amama sukaldera. Eta geldi-geldi geratu zan, amamak txibitea emongo ete eutson bildurrez.

Onetan egoala, ona sagu bat zizelu zirritutik begira. Au be gaztaiaren zain, katuak noz alde egingo.

—Neurea dok (da) orintxe —katuak berekautan. Eta amamaren aurki-azpian gorde eban bere burua.

—Gaztaia jaten ba-joat (dot), txibitea —esan eban bere barrurako. Eta jaten ez ba-joat (dot), gero sagua arrapau, eta biak neuretzako eta amamaren laztan gozoak, gainera.

Esan eta egin!

Aurreratu zan sagu ori, eta gaztai ederra jaten asi zan. Eta jan bitartean, aunditu-aundituz joian. Eta naikoa egin ebanean, lengo zulo-zirritutik sartzen asi zan.

Asi ba zan, asi zan... Ezin, ezelan be, aurrera egin. Ba-doakio, onetan, aurki-azpiko katua, ta, *zazt*, bere erpak bota, eta an ito eta jan eban sagu gaixoa.

Orrelan bete zituan katuak bere amesak, eta amamaren laztan eta igurtzi gozoak artu be bai.

ERBIAREN LANA

Udako oporretan, bein baten, neska-mutiko bi bialdu zituan amak ida ebaten. Berde-berde egoan, araindiño, idea, oritzen asi barik. Etxean azpigarririk ez, baiña, eta ida orren premiñan egozan.

Asi ziran umetxo biak, *ris-ras*, ida ebaten, eta mutikotxoak onetan:

—Ixi, itxi —bere arrebari.

—Zer dok (da), ba?

—Erbia, erbia...

—Non?

—Ortxe bertan!

—Eta zer egin bear joagu (dogu) orain?

—Arrapau!

Eta asi da mutiko ori, ixil-ixilka, eta astiro-astiro, erbiaganan-tza. Erbiak belarri biak jaso, eta, an doa lau ankaka aidean, idatzan beera. Mutikoak, onetan, eskuko igitaia bota, eta ipur-zulotik barrura kirtena sartu.

Gelditu zan erbia, apurtxo baten, eta gure mutikoa ariñeketan bere atzetik, laster eskuratuko ebalakoan. Baiña, bai zera! Tximistan asi da erbia, ara ta ona, ida-zelai guztian zear.

—Eta orain, zer?, —neskatxak, mutikoari.

—Bertan bera itzi, orain. Berak ebagiko jon idea, gure orde.

Egia, inguruko ida guztiak ebagiez joian erbia, bere igesean. Eta naiko azmel egin zituanean, neskeak mutikoari:

—Goiazak (goazen) etxera, eta bidean jango joagu (dogu) amarretakoa.

Etxera eldu, eta amak:

—Baiña, ebagi al dozue, nik esandako arlo guztia?

—Baita, sobra be!

—Baiña, zelan?

Ona, ama: erbia ikusi dogu, idea ebateko lekuan, eta ipurditik barrura sartu dautsot neure igitai-kirtena, eta erbiak ebagi dausku zuk esandako arlo guztia eta geiago.

IRU ALPER

Umezurtz geratu ziran iru anai.


Eta senideak esan eben:

—Langilleenari emon bear jako etxea. Langilleena zein zan jakiteko, ba-dozaz umezurtzen etxera, eta bata etxeondoko iturri ertzean aurkitu eben.

—Zetan abil (zabiltz) or? —itandu eutsoen.

—Egarri naz.

—Edaik (edan egizu) ba ura.



—Bai, baiña, jagitea be lana da!
—Orentzat ez da beintzat etxea —esan eben gizonak.
Gora igon, eta bigarrena sutondoan aurkitu eben, bizkarra
sualdera eukala.

—Zer darabilk (darabiltzu) or?
—Belaunetatik otz naz, ezin berotu.
Itzuli adi (zaite), sua or dok (dozu)-ta.
—Bai, baina, itzultzea be lana.
Orentzat be ez da etxea izango.
Iruugarren anaia oean egoan.
—Zer egiten dok (dozu) emen?
—Ai, au gosea. Ai, au gosea!
—Zer dok (dozu), mutil?
—Gose naz!
—Arazan ez al daukak (daukazu) ogirik?
—Bai, baiña, jagi ta barrero ogeratzeko lan egin bear.
Luzaro egon ziran senideak etxea norentzat izango ete zan era-
bagiten. Azkenean, lenengoarentzat izan zan etxea.

TXARTELETAN MUTIL BAT

Mutiko urtentxo bat txarteletan joan zan bein. Eta bere aldia
etorri zanean, abadeak:

—Txotxo, zenbat dozak (dira) amar aginduak?
—Bost, jauna!
—Bost geiago.
—Ordago!
Barre, inguruan ziran guztiak. Eta abadeak, barrero:
—Txotxo, Jaungoikoa toki guztietan jagok (dago)?
—Bai, jauna.
—Zuen laban be bai?
—Gure laban, ez.
—Zelan dok (da) ori? Ez al dok (dozu) esan, leku guztietan
dagoala Jainkoa?
—Bai, jauna.
—Eta, zuen laban, ez?
—Ez, jauna.
—Ezetz?
—Gurean ez dago labarik-eta.

TXOMIN'EN ARKONDARA

Arkondara bakar bat eukan Txomiñ'ek.

Egun euritsu baten, busti jakon, eta ogeratzean laratzean jarri
eban. Eta urrengo goizean erreta aurkitu eban.

Andra Maria'ren eguna zan, eta eleizara joateko, emaztea bere
adiskide bategana arkondara-billa bialdu eban.

—Bat bakarra daukat eta bera soiñean —erantzun eban adiskide
onek.

—Txomin... arkondara barik joan bear ko dok (dozu), ba, meze-
tara.

—Ez al dauna (dautsu) emon astokaiku orrek?

—Bat bakarra daukala, eta bera soiñean, esan jaustak (daust).

—A, ze ganorazko gizona, arkondara bakarras dagoana —esan
eban orduan Txomin arkondara bakoak.

TO TA NO

Amar urteko mutiko bat dotriñara asi zan. Ez ekian "i" eta
"bai ta ez" besterik esaten. Abadeak amari deitu ta:

—Zelan azten dozu semea?

—Zer ba?

—"Bai ta ez" besterik ez daki esaten. Neuri be "i" esaten daust.

Ama ori baserrira joan eta:

—Txotxo, zelan ez dakik (dakizu)... "bai, jauna, ta ez jauna"
esaten? Astinalditxo bat be emon eutson, gaiñera!

Urrengo egunean, dotriñara joan zanean, abadeak, betiko
erantzun a kendu ete jakon ikusteko, zeozer itandu. Eta mutikoak:

—Bai, jauna, ta ez jauna!

—Nork erakutsi dautzu: "bai jauna ta ez jauna", esaten?

—Amak.

—Eta olan nori berba egiteko esan dautsu, ba?

—Iri.

ZEGAMA'KO AUNTZ-BABAK

Zegama'ko eleizan, illun nabarrean, auntz bat sartu zan. Beti goietan ibiltzekoak dira-ta, ak be altarara igon eban, eta babak —beste izenez korotzak— altara gaiñean itzi zituan.

Goizaldean sakristaua, atea zabalik itzita, torrera joan zan argi-kanpaia joten. Eta auntza, bitartean, tipi-tapa tipi-tapa eleizatik basora.

Sakristaua kanpaia dilin-dalan eragin eta gero, altarara joan zan. Eta arri-arriturik gelditu zan ainbeste kozkor baltz ikusita. Gora begira, San Bartolome'ri adi-adi luzerotxo egon eta gero, karrazika asi zan:

—Miraria,... miraria... Jaungoikoaren miraria dok (da) auxe!

Eta abadeagana jo eban zuzen eta arinka. Abadeak alkateagana bialdu eban. Alkateak, konsejal guztiak eleizara bialdu zituan. Guztiak ao-zabalik eta arriturik entzun ebezan sakristauaren itzak.

—Eta zer egin bear dogu orain? —itandu eban alkateak. Eta batzuk au egin bear zala, ta besteak ori egin bear zala. Alako baten, euren arteko burutsuenak erabagi eban:

—Jainkoak emonikoak diran ezkerro, komuniñoa egin bear dogu.

Sakristauak barri au zabalduta, Zegama'ko goiztar geienak an batu ziran. Eta norbaitek, orduan:

—Gizonok, zer emon gitxi, ta nork artu asko izango dogulako, azkenean be, batzuei osorik emonarren, besteak be erdia bearko dabe.

Orduan, konsejal burutsuenaren eritxia guztiak aintzat artuta, aberatsai osoa, eta maisterrai erdi bana emoteko erabagia artu eban.

Abadeak katillu baten korotz oso ta erdi areik eskuan artu zituanean, berak artu eban bat aurrenen, eta besteai emotean, Zegamar jatorra zanez, itz oneik esan zituan:

—Ezi dira gozoook, baiña bai prootxozkoook!

Zegama'ko auntz-baba arein entzutea ez da beingoan galduko Euskalerrian.

MAÑASI'REN NEGARRAK

Xibero'ko abade batek sermoia egiten ekion egun batez, Mañasi eritxon atso bat negar ta negar egon zan sermoi bitarte guztian.

Sutsu ziarduan abadeak (lau kintaleko gizona ba-zan bera) gogor artuaz bere entzuleak.

Etxera etorri zanean, abadeak bere neskameari Mañasi'ren etxera joan eta beragaz bazkaitera deitzeko agindu eutsan. Lotsaz etorri zan Mañasi, eta lotsaz jarri zan maian be. Eta abadeak, atsoari:

—Zergaitik egin dozu ainbeste negar, Mañasi?

Ez eutsan Mañasi'k esan gura. Abadeak naiko ardao emon eta bazkal-azkenean, barrero itandu eutsan. Eta Mañasi'k ardaoak bizkorragotuta:

—Jauna, nire astoa oraintsu jausi jatan. Ba-dakizu?

—Bai.

—Lepo-azurra apurtu jakon.

—Baita, zoritxarrez!

—Eta il egin zan!

—Tamalgarria dozu, Mañasi, tamalgarria benetan.

—Eta gaur, zure sermoi gogorra entzuten nengoala, jauna, neure astoaren arrantzak zirala iruditu jatan, eta nik negar ta negar.

AGINDU IRUKOTXA

—Neskatxa —esan eutsan nagusiak bere neskameari: Orra or iru ogerleko. Ekatzan (ekarri egizuz) ogerleko baten "igari", beste ogerleko baten "ez igari", eta beste ainbesteren "ai".

Ba-doa neskatxa nagusi orren agindua egitera.

Eta ogerleko bategaz, kortxoa erosi eban; bigarren ogerlekoagaz, berun-zati bat; eta irugarrenagaz, orratz luzea. Etxera etorritakoan, askea urez bete, eta nagusiari deiturik, an eukazala bere erosiñak, esan eutsan.

—Ia ikusi. Non dozan (dozuz).

—Ara! Or dabil uretan ogerlekoren "igari", —esan eutsan kortxoa askara botata. Eta bereun-zatia botaz: —Ara! Or beste ogerlekoren "ez igari".

—Eta non don (dozu) irugarrena, ba?

—Egon bei (zaite). Paparreko zapitik atera eta orratz luze buru
aundia erekutsiaz, istarretik, *zast*, sartu eutson nagusiari.
—Ai, ai, ai, —iñoan karrazika nagusiak.
Eta neskameak irribarreka:
—Eta ez al da naiko "airik" ogerlekoan erosteko?

KUKUAK NORI JO

Gizon bi Mañari'ko arrobotik gora, Urkiola aldera joiazala,
kukuak jo eutsen. Poz-pozik egozan biak. Bata bestea baiño pozago.
Batak iñoan:

—Neuri jo jaustak (daust).

Besteak:

—Ez, neuri baiño.

Eztabaida orretatik urtetearren, urren egoan abogaduagana
joatea erabagi eben.

Txeraz artu zituan legegizonak. Eta jazo zanaren barri emon
eutsonean:

—Nik aurretik artu bear dot abogadu-saria, eta gero eritxia
emon. Ogerleko biña da nire nekeak balio dauana.

Eta batak eta besteak diru ori emon eutsonean:

—Nori jo dautso ba kukuak?, itandu eben gizonok.

—Iri (zuri), ez; iri (zuri), be ez; neuri baiño.

Ori izan zan legegizonaren eritxia.

KITO

Norbait, ausartua eta lotsa andi bakoa, autortzera joan zan,
bein.

—Jauna, esan eutson abadeari, belaunikatu ta bertatik —lenen-
go aginduan pekatu bat edo bestetxo ba-ditut. Bigarrean ez, eta
kito.

Irugarrean baten batzuk bai, laugarrean bat be ez, eta
kito.

Bostgarrean bai, seigarrean ez, eta kito.

Zazpigarrean bai, zortzigarrean ez, eta kito.

Bederatzigarrean bai, amargarrean ez, eta kito
—Entzuik (entzun egizu) —esan eutson abadeak— azkeneko
autortzan iri (zuri) abadeak "asolbiziñorik" emon euan (eutzun)?
—Bai, jauna.
—Ba, nik orain ez, eta kito.

SAN PEDRO TA ESKRIBAUA



Eskribau batek, zeruko ateetara elduta, *dran-dran* jo eban atea:

—Nor da?, —San Pedro'k barrutik.

—Eskribaua nozu (naz).

—Ez dogu bear eskribaurik emen.

—Arren, San Pedro! Txoko bat, arren! Zeure amari zeuntsan maitasunagaitik, zabaldu atea.

—Sartu ba, sartu barrura.

Eta erdi adiskide egin zanean, eskribauak atezaiñari:

—Noztik ona, zara zu giltz orren jabe?

—Milla ta seireun bat urte, or-or daroadaz atezaintzan.

—Eskritura barik egin zinduezen atezain?

—Eskrituraren bat egitea nai al dok (dozu)? Ut! kanpora emetik.

AMEN

Illuntzea zala, aker bat eleizan sartu zan. Sakristau-mutillak, atean itxi orduko, beti lez dei egin eban:

—Iñor ba-dago?

Akerrak ez eutson ezer erantzun, eta *kris-kras* atean itxita, etxera joan zan.

Gaututa gero, bigira edo tertuliren batetik etozan emakume batzuk zarata aundiak, eleizatik etozan zarata aundiak entzun ebezan. Urreratu ziran eleiz-atera, eta adi-adi egozan barrukoa nor ete zan jakin nairik: ala lapurren bat, ala purgatoriokoen bat, ala zana zalakoa...

Barruko akerrak atean adarka zabaltzeko, ba ebilla *dranbala-darik!*

Emakumeak arnas-estuka, abadetxera joan, eta abadeari:

—On jose, on Jose, inpernuko etsaia dabil eleizan. Betor konju-roak egiten, betor lenbailen. Abadeak emakume bi lagun zituala, sakristauarenean dei egin... eta beetik gora, eta goitik behera, atetik abadeak, eta leiotik sakristauak, izka-mizka luzea izan eban.

Sakristauak bein ta bi ta irutan esan eutson, berak ez ebalan bein be konjurtzen ikasi, eta berak egiteko ori areik emakume biak be egin leikeela.

—Baiña, entzuit (entzun egizu), mutil! Ik (zuk) ez dok (dozu) beste eginbearrik izango, urrintxo agoala (zagozala), nik esango dodanari AMEN erantzun, besterik ez. Ator (zatoz), Luziano.

—Jauna, niri etsaiak ez daust ezetariko bildurrik. Emakume bi orrei barriz, bai, beti otoitzean diardue-ta. Orrei, bai, orrei!

—Atoz (zatoz), Luziano —esan eutson emakume batek.

—Artu giltzea, Josepa, ta or konpon!

Abadeak, ez dakigu zelan, zuritu eban beintzat sakristaua, eta an joan, beste iruren atzetik. Bitartean akerra ixil-ixillik egoan, andik urten naian.

Laurak eleizara elduta, emakume biak otoitzean, eta sakristaua atze-atzeraka, abadeak: AITEAREN... eginda, nekez ba-zan be, giltza-zuloan giltzea sartuta, *kris-kras* egin ebaneko, akerrak bere adarretan arturik aidean eroian abade gizajoa.

Sakristaua ariñketan, emakumeak karriz joiazan, abadeak itz oneik entzuten emon zituan artean:

—Luziano, ator (zatoz) laguntzen; inpernuko etsaiak naraioak (naroa).

AMEN, erantzunez, bere etxera igesika joan zan sakristaua.

AMABI GIZON

Bein, amabi gizon, gari-zorro bana lepoan artuta, Arratia'tik Bilbo'ra joiazan. Lemoa'ko zubira eldukeran, atsedean labur bat artu bear ebela-ta, zorrook lurreratu ebezan.

Ainbeste zorro ikusita, bati auxe esatea otu jakon:

—Gizonok baiño zorroak geiago ete dagozan esango ñeunke (neuke).

Ezetz batzuk; baietz besteak.

—Ikusiko dozue: bat, bi, iru... amaika, amabi zorro. Bat, bi, iru... amar, amaika gizon.

Ez eban gizonen artean bere burua sartu. Besteren batzuk be: bat, bi, iru, lauka asi ziran, ta bardin; euren buruak sartu ez, ta zorroak baiño gizon bat gitxiago.

Eta amabigarren zorroa errekarra jaurti eban, guztien erabagiz.

Naiko atsedean artu ebenean, bakoitzak bere zorroa leporatu eban, aurrera egiteko asmoz. Bat zorro barik gelditu zan.

—Guk egin joagu (dogu) egitekoa!, esan eban berak. Neure zorroa bota joagu (dogu)!

—Jatsi adi (zaitu), ba, bere billa!

—Goregi jagok (dago) zubi au, araiño jasteko!

—Neuk eukiko aut (zaitut) eskutik oratuta, ni beste batek, eta onantxe guztion artean, laster artuko joagu (dogu).

Amabiak alkarri eskuak emonda, dingilizka jarri ziranean, gorengoak nekatuta:

—Mutillak! —esan eban— itxaron apurtxo baten, eskuan txu egin arteño.

Eskuak askatu zituanean, *blaust, blaust, blaust*, amabiak erre-kara jausi ziran, ta amabiak ito.

IRU ALABA

Iru alaba zizi-pozo zituan ama batek. (1)

Nondik edo andik ama onek lortu eban areitariko batentzat senargaia. Lenengo bigira edo tertulira etorriko zan egunean, agindu au emon eutsen amak irurai:

—Ixillik egongo zare gero... Neuk zuen orde z egingo dot berba-eta!

Supazterrean, goruetan asita egozala, eldu zan mutil ori, eta zizi-pozoen orde z, amak txirri-txirri ekion barriketan.

Alako baten, alaba bateri aria eten jakon eta:

—I (zu), nezkato —esan eutson urren eukan aizteari—, aliak pot egin dauna (daust).

Bigarrenak:

—Izilik... amak izilik egoteko ezan jon eta (dau-ta).

Irugarrenak:

—Amak orize ezan jon, baia, zuek iz eta piz.

Ez jakien senargaia geiago agertu.

(1) Zizi-pozo. Ceceoso.

JOSEPA TA SENARRA

Gizon bat, aste guztirako joaten zan lanera. Larunbatean etxeratzen zanean, bere emazte Josepa beti miñez eta aieneka aurkitzen eban.

—Zer don (dozu) beti orrela? —itanduten eutson senarrak.

—Urdailleko miña, ez janak eta ez edanak egiña. Bestelako alanbearra!

Eta neskeak bein aitari:

—Aita, amak ez dau miñik; txurrit egiten dau egunero, eta egunero kantari egoten da.

Aita itzok entzutean, illun gelditu zan. Astelen goizean, goiz jagita, oi zituan lanetara joan bearrean, kortan ostendu zan. Zortzi-retan amak, neskea ardao-eske ardantegira bialdu, ta kantari asi zan:

Arreutze pare batekin
urdaiki gozo batekin
lau txikerdiko batekin
neure neskatoarekin
gu bai ederto gizonaren diruarekin!
raitarai, raitarai, raitarairairai.

Senarrak kanta au entzun ebanean, sukaldera igon eta emazteari:

—Josepa —esan eutson— kanta daigun.

Senarra ikusi, ta arrituta:

—Ai au urdailleko miña! Ez janak eta ez edanak egiña. Bestelako alanbearra!

—Petral ori! Kanta daigun, nai ta ez:

Eta senarrak:

Arrautze pare batekin
urdaiki gozo batekin
lau txikerdiko batekin
neure neskatoarekin
eta senar gizajoaren azken diruarekin
...eta Agur, ba-noa ni betiko.

Josepa'k negarrari emon eutson... Negarrari ta zizpuruari neskeak.

Aitak, errukituta, esan eutson emazteari:

—Geiago ardaorik edaten ez ba'don (dozu), aberastuko gaitun (gara).

Alan egin ei ziran.

REQUIEM'GO MEZA BAT

Larunbat egun batez, Ezkurra'ko abadeak esan eutson bere sakristauari:

—Mutil, artu egik (egizu) Misala, ta oa (zoaz) Erasun'era, biar ze meza dogun itandutera. Erasun'go abadeak eliz-liburu aundia zabalduaz, papel bat sartu eutson barruan, ezaugarritzat, eta berau mutillari emonaz, esan eutson:

—Auxe dok (da) biariko mezea!

R aundi bat ikusi eban sakristauak liburu barruan; eta eskerak emon, misala besapean sartu ta urdaillean zurrutada on bat artuaz, Ezkurra'ko bidea artu eban, tiki-taka.

Eliz-aurrera eldu zanean, lagun bat aurkitu eban, eta beregaz izketan egoala... ez jakon, ba, liburua besapetik jausi, eta ezaugarria lurreratu!

—Arraio-arraioa! Au be jazo bear niri!

Ain zuzen be, orduantxe, abadea eliz-atera.

—Etorri al az (zara) mutil?

—Oraintxe bertan, jauna.

—Zein meza jaukaguk (daukagu), ba, biar?

—Jauna, papel bat nekarren ezaugarritzat barruan, eta ez jat ba, jausi!

—Ori egingo endun (zendun), ba?

—Atzera joango naz?

—Ez al az, (zara) beintzat, gogoratzen meza orren aurrean santurik edo beste orrelako ezaugarrik eukanik?

—Ori bai. R aundi bat eukan. Ba-daki, jauna, askotan San Lorentzo'k bere eskuetan oraturik eukiten dauan aramarrilla edo erre-burdin zabala? Arexen antzeko R aundia dauko mezak asieran.

—Ba-jakiat (dakit) orduan zein dan: Requiem'go Mezea.

Eta urte atan, Ezkurra'ko elizan, Pazko egunez, Requiem'go mezea abestu ei eben.

AMERIKANOA

Aldi baten, Basaburuko erri baten, amerikano bat bizi zan, gizen bestean aberats eta aberats bestean gizen.

Egun baten, mandoa eraztera —perratzera— joan zan. Eraztokian, mandazain bategaz buru egin eban; a be mandoa eraztera eto-

rrren. Eta aupadaka asten da mandazaina, ez dala bere indarreko gizonik. Eta amerikanoak:

—I (zu) ain indartsua azela (zarala)! Astiro! Zeiñek lenago lau kintal mando gaiñean jarri, posture egingo dauat (dautsut).

—Ederto! Jokatu daiguzan geure mandoak.

Ba-doaz inguruko errotara, ea launa kintaleko zama —karga— bi aukeratzen dabez, bakoitzak gari-zaku bi.

Zamatzera doaz, erazlea —perratzaillea— ta errotaria lekuko. Arin zamatzan dau lenengo zakua mandazaiñak. Eta bestea geldigeldi.

—Itza itz, gero! Ez dago orain atzera egiterik!

—Bai, gizona, bai. Itza itz. Jo aurrera!

Ainbestegaz, esku bataz mandoaren bizkarrari eldu, eta *plau!*, gaiñean jarten da anka biak zabalik:

—Ona emen, nire mandoak lau kintal gaiñean.

Eta amerikanoak irabazi eban jokoa, lau kintaletik gora eukazanez bere tripatzarragaz.

Ez eban beste mando baten bearrik eta kito itzi eban mandazaiña, pitxar bat ardaoaren truke.

Eta lauren artean, eta umore onean edan eben.

SAKRISTAU BURUTSUA

Erri txiki baten, neskatilla aberats bat bizi zan, alaba bakarra, askok andragaitzat begz jota eukena.

Aita ta ama bizi zituan artean, ez zan iñor ausartzen etxe aretako atean deirik egiten. Umezurtz zanean, barriz, batean atso bat, bestean emakume atsotu-bakoren bat, bere semea nai illobea etxe aretan nondik nora sartu-guran ebilzan.

Neskatillea bera be, ezkondu gurarik ebillan. Ez ekian, baiña, senartzat nor artu. Eta goizean-goiz, eleizara joan eta Andra Maria'ren altara-aurrean, luzaro goten zan.

Sakristaua, atzo goizekoa izan ez arren, ezkongai zan, eta ordura arte ez eutson aberats orri bere gogoa erakutsi, ez bere kautan, ez besteren bitartez.

Eta neskatillea eleizara ain sarri joaten ikusita, burutasun ausarta bat artu eban iñozkorik pozen. Goiz askotan egon zan, Andra Maria'ren ostean bere burua gordeta. Olakoren baten, neskatillearen itzok entzun zituan:

—Ama, ama maitea: senargai on bat nai neunke, zure gogoko bat.

—Sakristaua dozu, alabatxo, beste edozein baiño egokiagoa.

Andra Maria'ren gogoa zein zan ba-ekiala-ta pozik joan zan neskatillea etxera. Urrengo egun bateko illuntzean, emakume eldu batek sakristauaren etxean dei egin eban, aberatsaren izenean:

—Krispin, ezkonduko zintzake umezurtz aberatsagaz?

—Ni... bai, baiña ba-dakizu gero: nik goian zerua, eta beean sakristinia, besterik ez daukat.

—Ez estutu, Krispin, zeruko argitasuna izan dau. Zugaz izan ezik, ez dala beste iñogaz ezkonduko.

—Olan ba'da... zeruak nai dauana, lurrean gertu bedi, esanda, senar-emazte ziran, andik ille bi barru.

JOSTUN BATEN KEMENA

Jostun edo sastre bat bere erritik beste batera joaten ei zan. An aste bete egin, eta larunbatean etxera.

Bein etxeruntz etorrela, kaka egiteko gogoa etorri jakon, eta orretan asi zan, bide bazterrean.

Orduko aldietan, gizonaekoak be andrazkoak lez, atzetik ugallak edo tiranteak erabilten ei ebazan. Eta jostun orri, bere gauza ori egiten egoan bitartean, tirante areitatik larrak edo arantzak oratu eutsoen eta gau osoa igaro eban jostunak:

—Itzi naizue! itzi naizue! —esaten.

Goizean argitu zanean, zearretara begiratu, eta larra zala ikusi ebanean, artaziak garritik atera, eta rrrast, ebagi ei eban.

—Gizona izan ba'litz, bardin egingo neutson —esan eban sastreak orduan. Gero, goizean etxera elduta, andreak:

—Au gizona! Bart gau guztian emen egon nok (naz) i (zu) noz etorriko...

—Bai, etorriko nintzonan (nintzan), bai. Baiña, zazpi lapurrek urten jausten (eusten).

—Dirua kendu daue (dautsue), beraz?

—Niri diruak kendu? Artaziak eskuan daukadazan artean, ez!

—Ik (zuk) orrenbeste kemen? Ago (zagoz) ixillik, ago (zagoz) ixillik!

—Bai, niri, tresna oneik eskuan dodazan arte, ezer kentzekorik ez don (da) iñor.

Urrengo astean, osteria be, joan zan aste guztirako. Larunbat arratsaldean, bere emazteak urten eutson bidera, eta beste batena zirudian obots lodiaz, esan ei eutson:

—Geldi or! Ona diru orreik!

Sastre gizajoak, bestea lapurra zalakoan, oso-osorik emon eutson katanarrua.

—Eta ortxe egon geldi, arik eta neuk esan arte.

Eta lapurtzako emaztea bere etxe-ondora eldu zanean:

—Jarraitu orain!

Eta gizona etxeratu zanean, emazteak barrero, baiña orain, betiko abotsaz:

Baiña, gizona! Ori dok (da) gizon baten itxurea!

—Bai, motiboa be ba-jaukanat (daukat). Lapurrak urten jausten (dauste).

—Lapurrak? Eta dirurik kendu daue (dautsue)?

—Bai, andrea! Eta arin, alan be!

—Eta ez al jak (jatzu) besterik ezer jazo?

—Baita, geiago be!

—Zer egin daue (dautsue), ba, zer?

—Eperdian mun-emonazo.

—A demoñino asto ziria! Ni nintzoan (nintzan) lapurtzako ori, ni, ni.

—Bai, eta eperdian mun-emotean, ire (zure) putz-atsa iruditu jatanan (jatan).

PERU TA MARI

Senar-emaste oneik ume bakar bat izan eben, eta aunditu bategaz makalik egoan bera. Eta aunditu ori zolduten asi zanean, Mari'k narrari:

—Peru, joan adi (zaite) errira, orratz aundi baten billa. Aunditu ori irazi egin bear jautsaguk (dautsogu), eta orratz aundia bear nik orretarako. Tira, joan adi (zaite).

—Niri bidean aitzu egingo jatan (jat), Mari, eta alperrik izango don (da).

—Bidean abillala (zabiltzala): "Mari, Orratz; Mari, Orratz" esaten joan adi (zaite), eta ez jata (jatzu) aitzuko, Peru.

Ba-doa Peru ori kale aldera: "Mari, Orratz; Mari, Orratz", ezpanetan. Eta ona, biderdian, txori bat txioka Peru'ri agertu. Areri begira jarri, ta emaztearen agindua aitzu jakon Peru'ri. Eta etxera biurturik:

—Aitzu egin jatan (jat) ire (zure) agindua, Mari. Zelan zonan (zan) bera?

—Ai, Peru, Peru... "Mari, Orratz; Mari, Orratz".

Ba-doa Peru, itz labur biok esan eta esan. Erbi bat sasi-artetik urtenda, emaztearen agindua aitzutzen jako barrero be. Bigarrenez etxera, eta Mari'k ori jakin ebanean:

—Neu joango nok (naz) —esan eutson. Ago (zagoz) emen umeari eragiñez, "dringilindrangolo" kantetan. Eta askotan entzundako kanta ori ezpanetan, Peru'k:

Dringilin dragon eragiozu
laster aziko naiatzu
alan bere lastertxoago
lepoan ba narabiltzu.
Dringilin drangoa bai,
ez naz ni zoroa;
len bere makur-makur
daukat nik lepoa.

Ez eban umeak, alan da be lorik artu, eta erreago lo eragiteko, abarka-ezten bategaz aunditua irazi eutson Peru'k, eta barru-barruraino sartuta, ilda itzi eban ume errukarria.

Ba-dator Mari, ta:

—Ene, Peru! Zer egin dautsak (dautsozu) umeari?

—Lo jagon ori, lo!

—Ez, Peru, ilda jagok-eta (dago-ta)!

Negar aundiak eginda gero ba-dozaz gabaz umeari lurra emote-
ra, ta Mari'k Peru'ri:

—Itxik (itxi egizu) ate ori.

Eta Peru'k atea lepoan.

—Zer dok (da), Peru?

—Ez daustan (daustazu), lepoan eroateko, esan?

—Ez... itxiteko baiño!

—Ba, bardin don (da) —esanda, Peru aurrera.

Lapur zaratea, onetan, eta zugatz batera igon eben senar-emazteak. Eta lapurrak, zugatz orren kerizpean, euren diruak banantzen asi. Bildur ziran goikoak. Eta bildurrraren-bildurrez, zerbait egiteko larria etorri jakon Peru'ri.

Estu naiagon (nago), Mari, eta kaka egin bear jonat (dot).

Mari'k ez egiteko esan arren, asi zan Peru eginbear ori egiten.

Eta lapurrak, zer ori jausten ikusita:

—Jainkoaren doia —esan eben.

Eta Peru'k urrengo eginbearra, arradan lenengo ta tantaka gero, bota ebanean:

—Jainkoaren orioa —esan eben.

Eta Peru'k, atea lepoan eukiten nekatuta, a be beera jaurti eutsenean:

—Jainkoaren zigorra —esanda, anka egin eben, diru guztiak zugazpean itzita.

Goikoak, orduan, jatsi, eta lapurren diruak artu, eta eroan egin ebezan.

Gerotxoago lapur bat ixil-ixillik agertu zan diru batzaille orreik zenbat ziran jakin nairik. Eta Peru'gaz berbetan asi zaneko, oratu onek eta abarka-eztena miiñean sartuaz, tirli-torlo ta alarauka bialdu eban iges.

Lagunak, zenbat dituk (dira)? —itandu, ta:

—Birmilla, birmilla-edo, bai. Besteak ori entzutean, ikara gorritan, iges egin eben lasterka.

EMAKUMEA TA JOSTUNA

Emakume bat oso zikoitz eta zekena zan. Jostun baten bearean aurkitu zan bein. Jostunak, zein egunetan joango zan, itza emonda, bezperatik eratu zituan emakumeak janari guztiak, astirik galdu ez egian.

Bere orduan etorri zan biaramonean gure jostuna. Gosaltzen emon, eta esan eutson emakumeak:

—Bazkaldu gura ba'dozu be, prest dago.

—Ekarri, ba —esan eutson jostunak.

Baskaldu eta jarraitu eban emakumeak:

Aparia be prest dago, gura ba'dozu jan.

—Ekarri, ba —esan eban jostunak.

Apaldu eta jagi zan jostuna, esanez:

—Ez dot nik apal-ostean, iñorentzat josten.

Artu artaziak besapean, eta etxera joan zan, tripea ondo beteta, ta naiko pozik.

Eta emakume zikoitza ezelangor lanik ikusi barik gelditu zan, eralgi guztiak eginda gero.

IRATI'KO IBAIAN


Orbaran'go errian, bein, gizon-talde bat ibaira joan zan, illargia arrapatzeko asmotan.

An egoan illargi ori beko uretan borobil eta ori, gaztai baten itxuran. Orretarako, zubitik dilin-dan jarri ziran gure gizonok, eskuak alkarri emonaz. Eta berengo egoanak, illargiraino eskua luzatu eziñez:

—Ep —uju egin eutson gorengoari —askatu egik eskua apur bat, nik gaztaia arrapau al izateko. Apurtxo bat naiko izango dok.

Askatu eban bere eskua gorengo egoan orrek; eta talde osoa *plaut* uretara.

Eta illargia irriz eta irriz, aurrera.



EZKONBARRIAK

Iru aizta bizi ziran auzo baten. Zarrenari agertu jakon, nozbaiten, ezkongai. Ezkondu be egin ziran, eta ezteguak ospe aundikoak izan ez ba'ziran be, sakela erdi ustu, ta sabela ondo betetakoak izan ziran, beintzat.

Urrengo goizean, solora joan ziran laurak: aizta ezkondua ta senarra ta beste aizta biak.

Goiz-erdian emaztea etxeratuta, bazkaria gertatzen asi zan. Eta eguerdi-aurrean, bere urrengo aiztea bazkari billa etxeratu zanean, negar ta negar aurkitu eban aizta zarrena.

—Zer don (dozu)? Zer don (dozu), neska, olan negarrez egoteko?

—Zer ez jonat (dot) izango? Umerik ba'jonagu (dogu), eta txarrantxea bere gaiñera jaustea ba'litzon (litz), ilgo jakun (jaku) umea!

—Egia don (da) —esanez— negarrez asi zan bestea be.

Senar barriak irugarren aiztea bialdu eban solotik, besteak zetan ziran jakiten.

—Zer dozue? —esan eutsen aizta gazteenak. Eta txarrantxearen zer ori entzunik, negarrez asi zan bera be.

Senarra bera etorri zan gero, ta ari be umea ilgo zala ta atseka-be aundia agertu eutson emazteak.

—Ona emen iru zoro. Mundu guztian beste iru zoroagorik ezetz egon? esanaz, bazterrik bazter beste onako iru zororen billa joan zan.

Ibilli ta ibilli, emakume bat aurkitu eban solo baten, artajorran, eperdian aulkitxo bat loturik eukala.

—Emakume, zertarako dozu aulki ori?

—Ara, lau lagun gara etxean. Solotik etxera noanean, aurki guztiak arrapatzen daustez besteak; eta orregaitik, beti neugaz daroat aulkitxo au.

—Ona eman zoro bat —esanez, beste bien billa abiatu zan.

Ibilli ta ibilli, beste bat, ezpanetatik krisaillu bat ebalu aurkitu eban.

—Emakume, zertarako dozu krisaillu ori?

—Etxera eltzen nazanean, argia ezin aurkiturik ibiltzen naz, eta orregaitik daroat neugaz krisaillu au.

—Ona bigarren zoroa —esan— eta ba-doa aurrera.

Gaua etorri, ta ostatua eskatu eban etxe baten.

—Guk ez dogu ostaturik gogoan, ba...

—Zer dabizue mando orregaz?

—Mandoak agotik ezin jan... eta eperditik sartzen gabiltz.

Besteak baiño zoroagoa da au —esan eban beretzako gure senar

barriak. Gaba alan edo olan igarota, etxerako bidea artu eban, au esanaz:

—Emen iru zoro... Etxean iru zoro... Etxekoakaz gelditu nadin.

LEKUKOAK

Senar-emazte bi ez ziran alkar ondo konpontzen. Eta senarrak sarri joten eban bere emaztea. Eta auzoak be entzuten ebezan onen erostak.

Auzipean jarri eban emazteak bere gizona; eta auzoko andrea artu lekuko edo testigu. Epai-maira eldutakoan, esan eutson epailleak lekukoari:

—Zuk ikusi dozu senarra bere emaztea joka?

—Ez!

—Beraz?

—Baiña, aren irrintziak entzuten dodaz.

—Ez da naikoa entzutea. Zoaz; ez zara lekuko on.

Andik urtetea, uzker aundi bat bota eban andra orrek. Eta epailleak:

—Aitu, emakume: emen ez da olakorik egiten.

—Zer... jauna?

—Uzker bat bota dozu!

—Zuk ikusi al dozu?

—Ez, baina bai entzun!

—Ez zara zu be lekuko on.

EZKURRARRA TA BAREA

Iruña'ra joiala, Ezkurra'ko gizon batek bare bat aurkitu eban bidean.

—Iruña'ra —itandu eutsan— Iruña'ra? Nai dok (dozu) nor lenago eldu? Ogerleko bi jokatu dauazat (dautzudaz).

Ba-joiazan... ba-joiazan. Iruña'ko ate-aurrean, beste bare bat aurkituta, lengoa zalakoan, esan eutson:

—I (zu)! Auxe dok (da) ona! Ni orduko etorri az (zara).

Orduan, ezkurarrak salto bat egin eban Iruña'ko atean barrurantz, bera lenago sartu naian. Baiña, barearen gaiñean, labandu, ta lurra jo eban.

Orduan, esan eutson bareari:

—Irabazi dok (dozu), barea. Autsoz (autsiz) ogerleko biak.

ERROKETXO TA AMA

Beste askoren antzera, arrautz-koskolez bizi ei ziran amasemeak. Semea zorokia zan. Eta amak esan ei eutson:

—I (zu), seme. Azokara joan adi (zaitte) esnea saltzera. Ixillenari emongo dautsak (dautsozu) ik (zuk) esnea.

Ba-joian, ba-joian, ba-joian, eta txakur aundi bat agertu jakon. Erroketxo'k ixillik egoala ikusi, eta esne guztia emon eutson.

—Ori egingo endun (zendun), gizajo orrek —esan eutson amak. Utsean eta txakur bati esnea emon?

Beste bein, arrautzak emon eutsozan amak azokarako. Tikitaka-tikitaka saltzera joiala, zugatz bat ikusi eban bide ertzean, azala asto batek kenduta eukala. Zugatza narru-gorrian ikusita, arrautza guztiak *klask-klask*, banan-banan ausi, eta euren gorringozuringoz zugatz guztia igurtzi eban.

—Ori egingo endun (zendun) ba, seme!, —amak etxean. Zama bat buruan eroaten nekatu ezkerro, urren aurkitzen dan burdian ezarri ta aurrera egiten dok (da).

Jostorrazak erosten bialdu eban beste bein. Burdi gaiñean ekazan Erroketxo'k jostorrazak. Eta etxera-orduko, burdiaren dardareaz, jausi eta guztiak galdu.

—A seme —esan eutson amak etorkeran— olakoetan soka batez lotuta ekarri bear dok (da).

Galdara bat eroatera, bialdu eban, beste bein. Erosi, soka batez lotu eta dandarrez etxera ekarri eban, dana zulutu ta mallatuta.

—A, seme, ez dok (da) ori orrelan egiten. Bizkarrean, makilla baten sartuta, ekarri bear endun (zendun).

Bae bat eroatera, urrengo baten, bialduta, makilla lodi bat erditik sartuta, zulo aundi bat erdian dauala, eroan eutson anari.

—Seme —esan eutson amak— oa (zoaz) goiko etxe orretara, eta ia emazte izateko neskaren bat ekarten dokan (dozun). Orretarako onena jo egik (egizu) begiz.

Erroketxo'k ardi bati begia kendu eta eskuan eroian. *Dran-*

dran atea jota sartuaz, neskatxen arteko ederrena, *zapla!*, ardi-begiz arpegian jo eban.

—Ori egingo endun (zendun), seme —amak etxerakoan. Ondo esanez eta dantzan eginda irabazten dok (da) neskatxen biotza.

Lengo etxera Erroketxo, urrengoz, agertu zanean, ama ilda eukeen. Erroketxo dantzan asi zan. Bultzaka atera eben.

—Ori be egin dok (dozu), seme —amak barriro. Norbait illik ikusi ezkerro, belauniko jarri ta otoitz egin bear izaten dok (da), kaiku!

Urrengo joan zanean, txarri illa eukeen erretan. Erroketxo'k a ikusi ebanean, belaunikatu, txapela erantzi ta eskuak batuta, otoitz egin eban.

—Urtean baiño urtean aundiagoa esaten dok (da) olakoetan — amak.

Joan zan barriro be. Etxeko gizonari puxikea osatu nairik ebi-llazan bere alabak. Eta esan eutsen Erroketxo'k:

—Orrelangoak urtean baiño urtean aundiagoak.

Bizkor ibilli bear izan eban, bere etxean osorik sartzeko. Bere amak orduan:

—Len baiño len igartu daitezala, esaten dok (da), kirten.

Barriro neschengana joan zanean, zugatzak mentatzen ebizen angotxeoak.

—Lenbailen igartu daitezala —esan eban mutil gizajoak.

Geiago ez agertzeko aginduaz urten eban andik mutil txotxo-loak.

Goroztik amak, bera nora, semea ara, erabilten eban.

EUTSI TA TATI

Abade batek bere mutilla Bilbo'ra bialdu eban intzentsotan. Bide guztian joian mutilla:

—Intzentsoa, intzentsoa, intzentsoa —esaten.

Bilbo'n sarreran, gizon bat aurkitu eban, lepo bete abarka sal-tzen ebillela. Mutillak, —bururatu jakon orrek jaroak (daroa) lepoka-da abarkea!

Gero, lengo itz ori aitzu egin jakon, eta:

—Abarka, abarka, abarka —esaten eragoion. Alako baten sartu zan dendan, eta:

—Zer nai dozu? —itandu eutsoen.

—Abarkak!

Bat ekarri, eta:

—Au, ez!

Beste aundiago bat ekarri, eta:

—Au be, ez!

Aundi ta txiki, dendako guztiak ekarri eutsoezan. —Eta ezetz ta ezetz ta ezetz, berak!

—Zer gura dok (dozu), ba? Zelakoa dok (da) gura dokan (dozun) tresna ori?

—Abadeak erabiltzen dabe mezatan.

—Zer, baiña?

—“Eutsi ta tati... eutsi ta tati” erabiltzen dabena.

Saltzailleak, igarri ezinda, azkenean asarrez, esan eutsan:

—Ken (kendu) adi (zait) ortik, intzentsu ori!

—Orixe nai dot, oraintxe esan dozun orixe berberori.

BERBA BARIK

Senar-emazteak, asarre zirala, iru egunez, emazteak ez eban berbarik egin. Irugarren egunean, senarrak mutilla abadeagana bialdu eban:

—Etorteko bereala, emaztea berba barik eukala ta...

Ameneko baten eldu zan abadea etxera. Eta ain zuzen be, emaztea ataurrea garbitzen.

—Emakume, —esan eutson abadeak— berba barik zagozala ta etorteko deia artu dot.

Senarra agertu, onetan, sukaldetik, eta abadeak gizonari:

—Berba barik egoala, eta...

—Berorregaz bai, berbetan diardu. Nigaz, baiña, iru egunez, berba barik egon da.

PERU TA MARI'REN BIXIGUA

Bein, Peru ta Mari'k bixigu bat euken aparittan jateko. Arrat-saldean, gizona menditik zan artean, andreak arrain ori erre eta iruntsi egin eban. Gizona, menditik jatsita, etxeratu zanean:

—Peru, —esan eutson emazte jatunak—, guri jazoko ez jakunik, ez dago.

—Zer jazo jatsu, ba!

—Bixigua untzetik eskegita euki dot, eta erre kara iges egin daust, lotsa-bako alakoak!

Gizona, au entzunda, makillea eskuetan, erreka bazterra arakatzera joan zan. Baiña, alperrekoak izan ziran bere alegiñak. Eta etxerantza etorrela, arrain-saltzaille baten otzaran, bixigu eder bat ikusi eban, eta:

—Or ago (zagoz) begi-gorri?, —esanda, etxera eroan eban.

Peru'ri deadarrez jarraika ta irainka asi zan arrainduna, eta kaleko guztiak barrez algaraka.

Bakeagaitik, zaldun batek emon eutson saltzailleari bixigu-dirua.

Peru'k, etxera eldu zanean, bere ardurapean artu eban aparria gertatzea.

Lapiko aundi baten uretan sartu eban bixigua, ta sutondoan, makilla bat eskuetan, jesarri zan, arraiñak, bigarrenez, iges egin ez egin.

Laster asi zan lapikoa irakiten. Eta Peru'k, arraiñak iges egin nai ebalakoan, makilleaz kaskateko galantak emonda, zati-zati egin eban lapikoa.

ZERUAREN BILLA

Naparroan dagoan Ezkurra erriko mutillak Oli, euren mendira joan ziran bein, andik zerura igoteko asmotan.

Orretarako, erriko saski edo zaran guztiak batu, eta Oli-tontorrera eroan ebezan.

Erriko mutillik bizkorrena aukeratu eben lenengo saioa egiteko.

Saski guztiak alkarren gainean jarri, eta saskiz-saski goraiño igon eban gure mutiko bizkorrak, eta arein gainetik beko mutillai esan:

—Saski bat barrik bear joat (dot) zeruraino eltzeko.

—Ez jagok (dago) emen beste geiagorik, —betik erantzun.

—Kendu, or azpikoren bat.

—Kendu bai... eta gero, zer?

—Onaiño bota, gero!

Kendu eben, kendu bai; baiña, ez eben goraiño botaterik izan. Ez eta gainekoak zerura, bizirik beintzat, joateko erarik.

INTXAURRA NORENTZAT

Nire baserri aurrean intxaur aundi bat dago. Etxe gainetik gora doa bere adaburua, eta intxaur-alez beteak ditu adar guztiak.

Mutil kozkor bi asi ziran jolasean aren kerizpean, eguzkiaren igesi, eta intxaur-ale bat aurkitu eben.

—Neurea dok (da) —iñoan Patxi'k— neuk ikusi joat (dot) lenengo-ta.

—Ez —erantzun Txomin'ek. Neuk arrapau joat (dot), eta neurea izan bear jok (dau).

Eta eztabaida gogor bat sortu zan euren artean... Berbaz, lenengo; zarataka, geroago; eta ukabilka, azkenez.

Onetan, ba-dator beste mutil aundiago bat, eta tartean sarturik, esan eutsen:

—Geldi, mutillak! Neuk erabagiko dautzuet gauz ori. Artu intxaur ori, erdibitu, ta esan eutsen:

—Azal erdi au, lenengo intxaurra ikusi dauanarentzat; eta beste erdia, lenengo arrapau dauanarentzat. Eta mami guztia neuretzat, gauzea erabagi dautzuedalako.

Auxe jazotzen jaku askotan, bakeak bien artean egin bearrean, irugarren baten billa joaten garalako gure auzietan.

EGIA TA FEDEA

Aetzak, auzoan batzen ziranean, ez ziran, bein be, bat etortzen.

Egun batez, euren arteko bat Iruña'ra joan eta an jakitun bati burubidea eskatzea erabagi eben. Iriarte'ko Joanes autatu eben orretarako. Joan zan, ba, eta Iruña'ko sarreran, estudiante bat aurkitu eban.

—Zer darabizu emetik? —itandu eutson.

—Aezkoa ibartarrak zerbait gura genduke ondo gobernatzeko.

—Zatoz neugaz, eta neuk emongo dautsudaz Egia ta Fedea. Oneikaz errez alkar bat egingo dozue.

Ostatura eroan eban Joanes, eta an lapiko bitan, zeozer ekarri eutson, narruz estalita.

—Ona, Joanes, onegaz egin bear dana: ez zabaldu bidean lapikook, gauza bizia daroe-ta. Zuen batzarretan buru diran iruk, bakoitzak atzamar biña sartu dagiela lapiko bien barruan, baiña lapikoak guztiz agertu barik, eta barrukoa agoratzuz.

Erriko etxean batzarreratu ziranean, an egozan orduko lapiko biak, Egia ta Fedea, mai baten gainean.

Mandatariak esana egiñaz, iru mai-buruko zutundu, eta banan-banan aurreratu ziran maira. Atzamarrak sartu, ta barrukoa agoratu ebenean, batek esan eban:

—Kaka dok (da).

Besteak:

—Olan dok (da), kaka dok (da).

Irugarrenak (Iriarte'ko Joanes'ek):

—Egia ta Fedea. Alan dok (da).

SANCTIFICETUR OTSOAK JAN

Ukularte'ko Joanes'ek erriko abelburu guztiak, txiki eta aundi, ezagutzen zituan euren izenez. "Pater Noster"-ko itzak, baiña, ez zituan sekula buruan sartu al izan.

Aldi aretan ez ekian inork irakurtzen, eta gogoz eta buruz ezin inork erakutsiaz, ez abadeak, ez amak, gure Joanes'i "Pater Noster"-ik.

Egun batez, Joanes'ek larrara eroian artaldean, "Pater Noster"-eko berbak aiña ardi zirala konturatzean, ba-diñotso abadeak artzaiñari:

—Ire (zure) ardiak bateatu egin bear joaguzak (doguz) bion artean, bidez gora, bata bestaren atzetik, banan-banan, gure aurretik igaroala.

—Bai eta bai!

Eta asten dira izenak ezartzen. Artaldeko aari negusiari *Pater* deitzen dautsoe aren atzoko ardiari *Noster*, irugarrenari *Qui*, laugarrenari *Es*, bostgarrenari *In*, seigarrenari *Coelis* ... eta azkenari *Amen*.

Amaitu ondoren, ba-diñotso abadeak artzaiñari:

—*I (zu) Joanes! Igaroazo egiok (egiozu) artaldeari, barriro, gure aurretik, eta buru bakoitzari bere izenaz deitu egiok (egizu).*

—Zertarako, jauna?

—*Ia, baten bat palta dan-edo, ikusteko.*

Eta bein, birritan, irutan, igaroazoten dautse ardiai, bakoitzak bere lekua artzen dauala, bein be naastu barik, oitura euken lez, eta oneik izentauaz ona gure Joanes'ek, Pater Noster ori dana esan, itz bat bera galdu barik.

Andik egun batzuen buruan, abadeak artzaiñari deitu, eta ardien izenak esateko eskatu.

Eta asten da Joanes:

—*Pater, Noster, Qui, Es, In, Coelis, Nomen, Tuum...*

—*Ixi, xixi, Joanes!*

—*Zer da, jauna?*

—*Sanctificetur* aitzu jak (jatzu)!

—*Ez abade jauna, ez jat aitzu!*

—*Ezetz?*

—*Ez, jauna, ez! Ez dago geiago sanctificetur'ik*

—*Nork esan daua (dautzu) astakeri ori?*

—*Inork be ez.*

—*Orduan, ba?*

—*Sanctificetur* ori galdu da, bart otsoak jan dau-ta.

PERU ARRAIZPE

Peru alper utsa zan, eta etxean ez eukanaren billa auzora joan eta zorritsuak zorritz baiño zorrez beteago bizi zan.

Artzekodunak aspertu, eta eskribau batzuei emon eutsen Peru'ri baiturea egiteko eskua.

Eta ona, eskribau oneik, astelen goiz baten, Peru'ren etxean. Tan-tan, atea jo ta, Mari, etxeoandrea agertu zan.

—*Ta, jaunak?*

—*Peru, etxean da?*

Maria'k, orduan, sukaldeko mai-azpitik er bikumea artu, anka-ko lokarriak askatu, eta esan eutson:

—*Muztur-zuri*, oa (zoaz) Araiz'ko sagastira, ta gure Peru'ri datorrela, eskribauak deitzen dautsoela-ta.

Eta ona, andik laster, gure Peru atalondoan, bere *Muztur-zuri*, besapean:

—*Egun on, eskribau jaunak!*

—*Zelan jakin dok (dozu), ba, eldu garala?*

—*Arraiz'ko sagastian nengoan, eta ona bat-batean nire Muztur-zuri: Mari'k bialdu dauala, ta zain zagozela, esatera.*

—*Orixe pizti bitxia, saldu egin bear dauskuk (dauskuzu), Peru!*

—*Salgu, ez eta...!*

—*Urte baterako atzeratuko jak (jatzu) ire (zure) zor guztia.*

—*Zeuk zareelako, or dozue ba. Bestela erregeri berari ez neban emoteko asmorik.*

Ba-doaz iru eskribauok errira, eta plazara eldutakoan:

—*Muztur-zuri*, oa (zoaz) or beko ostantura, eta iru lagunentzako

bazkaria gertatzeko... Ordu-erdi, ordu bete igaro... ta *Muztur-zuri* agiri ez. Ba-doaz ostatura, eta *Muztur-zuri*'ren barririk ez.

—Ziri ederra sartu jauskuk (dausku) Peru arraio orrek —esa anaz, ba-datoz barriro, eskribauok, eta lepotik oratuaz:

—Peru, Peru, etorri adi (zaite) geugaz baitegira!

—Zer, ba?

—Zer, ba? *Muztur-zuri* ederra sartu dauskuk (dauskuzu), arraio orrek.

Ez zeuntsoen, bear dan lez berba egingo-ta, —eta atxurraz zotalak jo ta jo asi zan Peru. Auzoko ogi ta talo-zati guztiak etxe-inguruko zotalpean sartuta eukazan; eta oneik agertzen asi ziran Peru'ren atxurkada bakoitzeko. Eta eskribauak:

—Zer atxur dok (da) ori, Peru?

—Zergaitik uste dozue ez dodala nik arto ta garirik ereiten?

Atxur onek emoten daust nai beste ogi.

—Saldu eiguk (egiguzu) atxur ori!

—Saldu? Au erosteko dirurik ez dago munduan.

—Amabost egunerako, beintzat, eukiten itzi, eta beste urtebeterako itziko jak (jatzu) ire (zure) zorra.

—Orrenbeste mesede gizonari egin leikio.

Urrengo goizean, iru eskribauen etxe-inguruak ondo atxurtuta ikusi eikezan. Peru'ren atxurak arria ta arra naikoa atera zituan; baiña, ogirik, txori batentzako lain be ez.

Ba-datoz, barriro, eskribauak Araizpe'ra, eta Peru'ren atxakiai jaramonik egin barik, upel baten barruan sartuta, bilin-balaka itxasora botatzeko usteaz eroan eben.

Urrengo ardantegira elduta, eskribauaok zerbait artu bear ebelat, ta bertan gelditu ziran.

Eta Peru, bitartean, upel-barruan, bide-ertzean. Artalde bat igaro zan, onetan, bertatik, eta Peru upelari joka asi zan, barrutik. Zer ete zan jakin naian artzaiña urreratu, ta:

—Nor da?

—Ai, ai... au nire zoritxarra!

—Zer dok (dozu), ba?

—Zer dodan? Erregeren alabeagaz, neuk gura ez dodala, ezkondu nai nabela!

—Euk (zeuk) gura ez eta? Ik (zuk) ezkondu gura ez ba'dok (dozu), ementxe naiagok (nago) ni, orretarako prest.

—Upel oni agoa zabaldu, ba, eta truke egingo joagu (dogu) bizi-modua: ni artzaintzan sartuko nok (naz), eta i (zu), erregeren jauregian.

Ordu-erdi garrenean, Peru artalde ta guzti bidetik alde ebillen; artzain gizajoa, barriz, bilin-balaka eroan eben eskribauak.

Eta bidean, upel barrutik, artzaiñak:

—Ezkonduko nazala, gizonak, ezkonduko nazala, bai...

Eta besteak, euren artean:

—Zorutzen asi dok (da) gure Peru.

—Zer Peru ta Peruondo! Ezkonduko nazala, ezkondu!

Besteak, baiña, aren esanai ezeren jaramonik egin barik, bultzaka uretara bota eben upela.

Asi dira etxe alderantza gure eskribauok, eta ona non ikusten daben gure Peru, alboko zelaian, artalde eder baten buru. Eta Peru'k arpegia emonez, bigun-bigun, ezer ez ba-litz lez:

—Oraindiño be emen zagoze, gizonak?

—Peru az i (zara zu) Peru Arraizpe? Non batu dozak (dozuz) ardi orreik?

—Ez nozue ikusi olatu artean, *graust* batari ta *graust* besteari, ardi zuriak batzen?

—Zetan edo atan abillala bai, baiña ezin izan joagu (dogu) besterik ikusi.

—Nai izan ba'nauan, onako sei batuko nituan.

—Ete jagozak (dagoz) orain be?

—Bai, gizonak! Zuok irurok artuala ta geiago!

—Botako nok (nozu) ni bertara, lekurik onenera?

—Beti nago ni prest, zuoi mesede egiteko.

—Bota naik (nagizu), orduan!

Peru'k gogoz bultz egin, eta bota eban itxasora bat.

Eta an asi zan, besoak batera ta bestera, naiko larri, itoagiñean.

—Zetan jabik (dabil) ori? —itandu eutson besteak Peru'ri:

—Onenak begiz jo eta artzen dabil.

—Jaurti gaizak (gagizuz), orduan, gu be. Arin, baiña!

—Ea, ba!

Eta biak uretara bota zituan, bata bestearen ondoren.

Eta bere ardiekana biurtu zan, tipi-tapa.

ARTZA, OTSOA TA AZERIA

Erriomendi'ko landa mardo eta lauan, artza, otsoa eta azeria alkartu ziran bein, nor nagusika, olgetan egiteko.

Burrukan asi ziran lenengo, nor zan indartsuena jakiteko. Artzak irabazi eban, eta errez.

Gero, nor santzoa urriñago bota. Otsoa izan zan onetan nagusi.

Askenez, jauzika edo saltoka asita, artzak salto laburrena egin eban. Otsoak luzeagoa. Eta azeriak lau oiñez ondu eban otsoaren marka. Ainbeste beartu zan azeria, baiña, bere indarraren-indarraz, uzker batek urten eutson...

—Txarto ikasi-zikiña alangoa, belarri bat moztu bear dauat (dautzut), esan eutson otsoak.

Ariñeketan asi zan, orduan, azeria, eta zugatz-zulo txiki eta sakon batera zuzendu zan. Eta otsoa atzetik.

Ozta-ozta, baiña, sartu zan azeria zulo aretan. Ozta-ozta sartu, ba, eta buztana kanpotik geratu jakon. Eta otsoak oratu eutsan. Bata barrurantz ta bestea kanporantz, tira ta tira, asi ziran biak.

Ez ebal azeriak ezer aurreratzen, eta esan eutson otsoari:

—Ai asto aundia, alperrik abil (zabiltz). Nire buztanaren orde, zugatzaren sustraia daukak (daukazu) agoan.

Otsoak siñestu, eta buztana itzi ta sustraiari eutsi eutson.

Azeriak, orduan, bere buztana batu, beste uzker bat otsoari bota, eta lo-zurrungaka asi zan.

BIZIRIK ZERRALDOAN

Ezkurra'ko seme bat, egurgin ebillen, pagadi aundi baten. Ezkurra'n zeregin orretan ziarduala, mandazain bat igaro zan andik, eta egurgina jausteko zorian ikusita:

—Eup, adiskide —esan eutson, lurra jo bear dok (dozu).

Eta ezkurarra aurrera, *zanpa-zanpa*, ezer erantzun barik. Pagoari bera jarrita egoan adarra ebagi eutsonean, adarra baiño lenago mutilla eldu zan lurrera.

Artu eban miña baiño barrurago sartu jakon mandazainaren zurtasuna ta jakituria, eta lurretik jagi zaneko, bizkor joan zan mandazainaren atzean.

—Eup, adiskide —esan eutson, beraganatuz batera.

—Zer nai dok (dozu)?

—Igarri egin daustak (daustazu). Nik uste ez nebala, ik (zuk) esan lez, lurra jo ioat (dot). Olako buru-argia azan (zaran) orrek, ni noz ilgo nazan be ba al dakik (dakizu)?

—Ez dok (da) ori gatxa, mutil! —Noz ilgo azan (zaran)? Aiko (ara): egurrez zamatuta doan asto orrek, iru uzker egitean, orduan ilgo az i (zara zu).

Andik laster, uzker bat bota eban astoak.

—Beste bi jaukazat (daukadaz), oraindiño, ezkurarrak, beretzako.

Andik ordu lauren baiño lenago, ona, bigarren uzkerra, lenen-
goa baino gogor eta luzeagoa.

—Bat baiño ez jaukat (daukat), orain —mutillak motz eta illun. Laster urten eban irugarren uzkerak be, beste bien bide bere-
tik.

Au entzutean ezkurarra, gorputzari bertan bera itziaz, il zala-
ta, *paun!*, lurrera jausi zan.

Astoa etxera bakarrik eldu zanean, larritzen asi ziran etxe-
koak. Onein karrazi ta uluak entzun, eta erriko gizonak mutillaren
billa urten eben. Eta aurkitu ebenean:

—Mutillak, ilda jagok (dago) au —esan eban batek.

—Ez, oraindiño —iñoan beste batek.

Bai eta ez... Baietz uste eben geienak bai, eta zerraldoan sartu-
ta errira ekarren. Bidekurutzera eldu, eta:

—Goiko bidetik ala beetik —itandu eban batek.

Onetan be batera ezin etorri: batzuk goitik joan bear zala, eta
besteak, beetik...

Orduan, gitxien uste ebenean, ona, berbatxo ixil bat:

—Ni bizi nintzoanean (nintzanean), goitik joaten nintzoan (nin-
tzan).

Ildakoa izketan? —Zer dok (da) au!

Eroailleak, ikara gorritan, zerraldoa bertan bera itzi, eta ariñe-
keta bizian Ezkurra'raiño.

ASTOAREN MAIÑAK

Bein baten, ba ei joian asto bat gatz-zaku bat ezin eroanez. Orrela joiala, zubi bat igaro bear izan eban eta zubia ogarotzean...
plast!, uretara jausi zan gure astoa.

Dana busti, gatza be busti, busti ta urtu, eta poz-pozik urten
eban astoak errekatik, bere lengo zama astuna naiko arindurik.

Urrengo goizean, zapi-zarrez zamatuta bialdu eban bere nagu-
siak.

Ba-doa lengo zubi zarraren gaiñetik, eta aurreko eguneko ga-
tzaren arazoaz gogoraturik, barriro be... *plast!*, erre kara jausi zan
astoa. Emon zituan bira batzuk, erre kaka ur aundituetan, preskatu
bearrez baiño arindu naiez geiago.

Zutundu zan, azkenez, eta errekatik urten; baiña aren lanak!
Ezin ezelan be zubirako aldapatxoa igon! Jarri zan, nozbaiten,
bidean, eta bidetik aurrera joiala, iñoan, beretzako:

—Ona maltzurkeriaren azkenak! Oba da bakoitza bere bidean zintzo-zintzo ibilli, beste bide erosoagoak billa ta billa ibilli baiño.

BERASTEGI'KO AMELUA

Ez egoan pozik Berastegi'ko abadea bere eleiztarrakaz. Eta oneik bide onera ekarteko, bere arreba Kontzesi lagun, zerbait egitea asmau eban. Pulpitora igon eta esan eutsen, bein:

—Datorren igandean, danok etorri gero, txiki ta aundi, erri guztia, meza nausira, gauza aundi bat esan bear dautzuet-eta.

Abadeak esan eban lez, erri guztia batu zan meza nausian.

Abadea pulpitora, ta asi da:

—Berastegi'tarrak!, lengo egunean, emengo seme-alaben barria jakin bear nebala-ta, mundutik urten ta kanporalditxo bat egin neban.

Zerura joan nintzan, lenengo. Atea kas-kas jo, ta San Pedro'k urten eustan, ia zer gura neban. Eta nik: ba-dago emen Berastegi'tarririk?

—Ez dago battxo be.

Purgatoriora joan nintzan, urrengo. An be kast-kast jota, —“ba-da emen Berastegi'tarririk?” —Itandu nik. Ba-dakizue Pello Jose giza-joa nor zan? Ba, axe, besterik ez —erantzun eusten.

Joan naz, azkenez, inpernura, ta atea kast-kast jo. Deabruak urten eta, nik areri: “Ba-da emen Berastegi'tarririk?”.. Gizona, gizona...! Dana dago Berastegitarrez beterik —arek erantzun.

Eta abadeak beste munduko bere ibilleraren barri guztiak emon ondoren, asarre gorritan, jarraitu eban:

—Berastegi'tarrok!, gaiztoak zaree, eta Jainkoaren pasentzia agortu dozue. Orregaitik, sekulako zigorra emongo dautsue.

—Jauna! —esan eban gero, deadar aundiz, goietara begira—Jauna! bota egizu su ori. Kizkaldu daitezala Berastegi'tar gaizto guztiak. Abadeak esanaz batera, eleiza-goitik, *dir-dir-dir* sutan amelu bat jausi zan, eta eleiztar guztiak arriturik gelditu ziran.

—Bota geiago, Jauna —barriri be abadeak.

Eta bigarrenez be *dir-dir-dir* amelu aundiago bat sutan jausi zan. Jendea alkarren gaiñeka, eleiz-atean kanporatu eziñik ebillan...

—Bota geiago —abadeak barriri be.

—Ameluak amaitu dira, jauna —erantzun eutson teillatutik bera arreba Kontzesi'k.

ITZ TXARRAK

Mutiko bat artzain zan. Eta ardiak mendira eroaterakoan, bat edo beste atzeratzen zanean, bizi asarratu eta itz txarrak esaten zituan.

—Arraio milla demonioa!

Amak agirika egiten eutson. Ezin baiña, ala eta guztiz be, oitura txar ori itzi.

Eta autortzera joian egun batez, amak esan eutson abadeari:

—Gure mutikoak sekulako maldezioñoak esaten ditu, eta gogortxo artu eta zerbait esan beio berorrek, ez esateko olako berba itxusirik.

Eta abadeak, mutikoa agertu zanean, esan eutson berari:

—Ez sekula esan maldeziño ori. “Arraio milla demonioa” esaten danean, inpernuko demonioak gora igoten jok (dau). Eta “Jesus, Maria ta Jose” esaten danean, beera ondatzen dok (da).

Eta mutikoa autortu ondoren, kanpora urten, eta:

—Arraio milla demonioa! Jesus, Maria ta Jose! Araio milla demonioa! Jesus, Maria ta Jose!

—Zer darabilk mutiko?

—Inpernuko demonioari gora ta beera iztanda eragiten.

ESKRIBAU TA ERROTARIA

Eskribau batek bere ezagun zan errotari bati, adarra jotearren:

—Zerura errotaririk ez dok (da) joaten. Zergaitik ete dok (da)?

—Ez diñotzut nik asko joaten diranik, baiña, bat beintzat sartu zan bein.

—Esan, esan, zelan izan zoan (zan) ori?

—Nik ez dakit zelan sartu zan an, baiña, bai zelan ebillan.

—Zelan jebillan (ebillan), ba?

—Jai aundiak egitea erabagi eben zeruan, errotaria bertan ikusi ebenean. Eta eskribau bat bear orretarako.

—Zertarako eskribaua?

—Jai aren gora-beerak artu eta papeletan gordetzeko!

—Ta...?

—Asi ziran, ba, aren billa, jo batera ta jo bestera.

—Ta, zer?

—Bakar bat be ez ebela zeru guztian aurkitu.

ASTOA TA ASTRONOMOAK

Baserri baten, lau astronomo batu ziran. Eta astronomiaz ziar-duela, bi illabetez euririk ez zala izango iragarri eben.

Lauretariko bat gelatik urten eta etxeakoandreagaz aurkitu zan. Onek ituxura artzeko ontzia jarri eban lurrean.

—Zetan diarduzu, etxeakoandra? —esan eutson astronomoak.

—Gaur euria egingo dau, eta ituxura artu nai dot gure iturria urrin dago-ta.

—Zelan dakizu euria egingo dauala?

—Amasei urteko asto bat daukagu kortan. Asto onek orain egin dauan lez, belarriakaz alde bietara *plik-plak* jotzen ba'dau, egun orretan ziur euria dakar.

—Ken zaite ortik! Emen gara lau astronomo, eta bi illabetez euririk ez dala izango uste dogu.

—Zuek orrelan uste... nire astoak bestera uste... nik astoari siñestu. Jokatu be egin eben: etxeakoandreak kortako astronomoaren alde.

Ordu ta erdigarreanean, trumoi ekaitza sortu, eta euriak kaleko arriak be aurrean eroan zituan.

Jokatu ebanak, au ikusita, bere lagunekana joan eta esan eutsen:

—Gizonak, goiazak (goazen) bakoitza geure errira. Kortako astoak guk baiño gaiago jakik-eta (daki-ta).

ERRELARI BAT

Arratia'n, beste ibar askotan lez, erri txiki baten, parroko lez praille zar bat egoan, bere komentutik matxinada baten ondoren ateratakoa.

Oso zurra zan, irabazten ebana gorde eta gorde eralgiten ez ekiana. Errelaria zan bera, zigarro-zalea. Ez eban, baiña, bat be erosten.

Arratsaldera ezkerro, egur-egiten ebillan bategana joan oi zan egunean-egunean. Baserritarrak urriñetik ikusi arratsalde baten eta:

—Gaur ez dauat (dautzut) emongo, ba, —iñoan bere barrurako.

—Kaixo! Ba-diarduk (ba-diarduzu)

—Bai, ba-diardut.

—Giro ederra, e?

—Ederra, bai!

—Tabako-orri apur bat ez ete daukak (daukazu)

—Itzi dautsat.

—Erreteari itzi dautsala? (dautsozula)

—Erreteari ez, emoteari.

OTSOA TA AZERIA

Gari-jotzailleak aparitan iñarduela, otsoa ta azeria tipi-tapa Murelaga'ko Legarre deritxon etxe-ondora joiazan. Illargi eder bete-betea egoan zeruan, eta bere irudia Legarre'ko osiñean agiri zan opil biribilla irudiala.

—Azerito, zelan jan leikek (leike) opil eder ori?, itandu eban otsoak.

—Osiñeko ur guztia edan egik (egizu), eta olantxe.

Otsoa zurru ta purru ura edaten asi zan. Laster asi jakon, baiña, edaten ebana atzetik urteten. Azeriak, orduan, artatxokor bat artu ta uzkia zarratu eutson. Alango baten, ustu eban osin ori gure otsoak.

—Ez dok (dogu) esan, ba, ik, (zuk) azerito, ura edan ezkerro, opilla iruntsiko naioala (nebala)?

—Euk (zeuk) ez dakiala (dakizula) iruntsiko endun-eta (zendun)!

—Egia, sabela bete bete jaukat (daukat) bai, eta irunsi egingo naioan (neban), ziur, bai.

Onetan, illargiaren argitan, gatzatua ikusi eban azeritok Legarre'ko leioan, eta otsoari:

—Otsoko, ik (zuk) onezkerro, ibilli al izateko be, barru ori ustu gura izango dok (dozu), ez?

—Bai, azerito, bai!

Azeriak, orduan, buztanpetik txorkoa kendu, eta arra-arra-erra erion otsoari soloan beera barruko ura. Eta azeriak, aparitan iñarduen gari-jotzailleai:

—Eup, gizonak, urak daroatzuez larriñeko gariok.

Au entzundakoan, gizonak jagi eta otso ori askatu eben euren makillakaz. Azeriak, bitartean, leiora maats-adarretatik gora igon, eta ango gatzatua jan eban. Gero, bekokian mami-tanta batzuk ebazala, lagunari agertu jakon:

—Ebagi naioek (nabe), azerito.

—Bai ni be, otsoko.

—Niri azur guztiak txiki-txiki egin jaustezak (daustez).
—Niri barriz, garaunak agirian itzi.
—Ni galduago naiagok (nago).
—Ez joat (dot) uste.
—Nai dok (dozu) ba urrengo datorrenari galduago nor dagoan itandu eta galduen dagoana besteak lepoan eroatea?

—Bai.

Landeta eritxon gizon bat aurkitu eben, eta azeritok berari:

—Nor dago, Landeta, txarrago azurrak makillaka apurtuta daukazana, ala garaunak agirian dituana?

—Txarto jagok (dago), azerito, txarto jagok (dago) azur ausiduna, baiña garaunak agirian dituana txartoago.

Azeriak, orduan, gizonari agur eginda, otsoari lepora igon eutson. Urrexola deritxon pagadian eukan bere zuloa azeriak. Ara eldu ziranean, otsoaren lepotik salto egin eta bere zulora joan zan azeria.

JOAN-SOLDADU ETA SAN PEDRO

Joan-soldadu San Pedro'gana joan zan, munduan biziteko zer edo zer bear ebala-ta, Jesukristo'gandik lortu egiola, esanaz. Eta iru gauza eskatzeko agindu eutson:

Lenengo, tabako-orria; bigarren, munduan ibilteko askatasuna; irugarren, berak eroian zorrora nai eban guztia sartzeko eskubi-dea.

Ba-ebillan munduan, barriro be, batetik bestera. Ba-ekian inpernuko deabruak kalte asko egiten eutsola munduko jenteari.

Eta iko baten gainean ikoak jaten aurkitu eban, bein deabrua.

Bere zorroan sartzeko agindu eutson. Sartu zan, eta Joan-Soldaduk ikotik zintzillizka jarri eban. Eta areri arrika egiteko agindu eutsen eskola-mutillai. Eta arrika ondatu eben mutillak deabru ori.

Deabrua karrazika egoan, ez ebala geiago okerrik egingo. Joan-soldaduk zorrotik atera, eta bere lekura joateko agindo eutson, eta jenteari kalterik egiten geiago ez etorteko.

Gero, Joan-soldadu munduan ebillan, eta bere lagunak alde egin eutsoenean, gogaitu egin zan.

Joan zan zerura San Pedro'gana. Eta onek esan eutsoan, ez egoala lekurik lendik eskatu ez ebalako. Joan zan inpernura. Jo zituan atear, eta:

—Nor da? —itandu eutsoen barrutik.

—Joan-soldadu.

—Itxi, itxi atea!

Joan zan, atzera, zeruko atera. Jo eban atea. Eta:

—Nor da?

—Joan-soldadu. Nork nai dau tabako-orria?

—Neuk, neuk...! Atea zabaldu eban San Pedro'k tabako-orria artzeko. Atearen albora bota eban, baiña, Joan-soldaduk tabakoa, eta San Pedro tabakoa artzen egoan bitartean, Joan-soldadu barrura sartu jakon.

ERBIDUNA

Abade batek, ibillaldi bat egitera joiala, baserritar ezagun bat aurkitu eban bidean, ta beti lez:

—Lanean, gogor e?

—Jauna, lentxoago erbi bat bialdu dautsot etxera.

—Gizona milla esker. Eta ogerleko bat emon eutson, eskupekoz.

Etxera joan zanean, amari abadeak:

—Gaur aparti ederra, e?

—Betiko antzekoa.

Biamamonean, eguerdirako erbia amak gatzun-askan gordeta eukalakoan, amabiak aldean, sukaldera osteratxo bat eginda:

—Gaur bazkari ona, e?

—Zergatik diñozu ori, Martin? Atzo aparti ederra, orain bazkari ona?

—Ez al eban Lizardi'ko Manu'k atzo erbirik bialdu?

—Nora? Gurera? Ezta gorantzirik be!

Arratsaldean, aurreko eguneko bide atatik ostera be abadea.

Eta zuzen-zuzen atxurlariagana joan eta itandu eutson:

—Ez zenduan atzo esan erbia bialdu zeustala?

—Bai, jauna! Sasi artetik urten eban, eta esan neutson: oa (zoaz) abadeanera.

LEOIA TA OLAGIZONAK

Basamortu baten, leoi eme bat bizi zan bere umetxoagaz. Gizonen batzuk senarra il eutsoelako-edo:

—Gizonen bildur izan adi (zaite) —esaten eutson askotan bere amak umeari. Indartsua azala (zarala)-ta ez adi (zaite) arrotu... gogorrek dituk (dira) gizonak... gizonen bildur izan adi (zaite) beti.

Leoikumea aundi ta indartsu egin zanean, basamortutik urten-da, gizonak aurkitu nairik atera ta bestera asi zan. Amaren esanak aitzu, antza.

Alako baten, erri txiki batera eldu zan. Eta leoia denda baten aurrean zanean, zapatagiñen eragoion dendariak. Aren ikarea pizti-tzarra ikustean!

—Egun on! Gizona az (zara)?

—Ni, ez; zapataria, ni.

Aurreratxoago joan eta gizon txiki bat ikusi eban piztiak. Eta oneri be itaun bardiña:

—Gizona az (zara)?

—Ni... ni... ni... sankristaua. Ikaraz bertan il ez zanean!

Leoiak santuen barririk ez eban basamortuan ikasi ta ez ekian San... Kristau ori zelako santua zan.

Erreka-ondo batera elduta, ate zar batetik begiratuaz, olagizon batzuk ikusi zituan, euren atorra luze lurrerañokoak soñean zituela, laba gori ago aundiko baten ondoan.

—Aaaaup!

Orroi au entzunda, olagizonak uleak gora-goraka ebezala, atelaldera begiratu eben.

—Gizonak zaree?

—Bai. Gizonak gaituk (gara). Zer nai dok (dozu)?

—Gizonak ezagutzera natorkizue!

—Itxaron apurtxo baten, burdin urtu auxe atera arte.

Agoe edo burdin urtua atera ebenean, leio-zirrikutik muturra sartuta eukan leoi ikusinaiak; eta olagizonak porrika (tenaza) aundi batzukaz sur-mintzetik oratu eta andik tiraka ta tiraka ekin eutsoen muturra kendu arte.

Leoia, surmintza areen eskuetan itzita, arrapataka basamortura bere amagana joan zan.

—Ama, zenbat atzapar daukez gizonak? —itandu eutson leoi gazteak.

—Amar eskuetan, eta beste amar oiñetan.

—Zuzen zengozan, ama, gizonen bildur izateko esaten zeustanean. Atzamar bigaz sur-mintza osorik kendu daustenean, amarregaz eldu ba'leuste, zer izango ete zan, ama!

Gizonaren igeska dabil, geroztik, leoia, eta aren antzeko pizti guztiak.

EZKONTZA BATEN AUSTEA

Ainbat urte exkonduta egon arren, Betelu'ko senar-emaste bi ezin ziran alkarregaz bizi. Eta abadeagana joan ziran arratsalde baten, esanez:

—Jauna, zuk eleizaz ezkondu ginduzuzan lezu gure ezkontza ausi daikezula jakin dogu. Egia ba'da, alkarregandik banandu ta bakoitza banazean bizi nai genduke.

—Ez al daukazue bakerik alkarren artean?

—Bakea? Inpernua lakoxea dogu.

—Bai, ene maiteok. Orain inpernua lez bizitzekotan, eta zeuen asarreakaz geroko inpernua irabaztekotan, oba dozue ezkontza len baiño len ausi. Etorri biar mezatara, ezkontza-goizean lez, eta eleizatetan egon. Nik bear diranak egingo dodaz.

Biaramon-goizean, meza-kanpaiak jo ebanekoxe, ezkon-gaiak euren adiskideakaz, eleiz-aurrean egozan.

Abadea, altara-jantzi ederrak jantzita, eleiz-mutilla kurutzeagaz aurrean ebala agertu zan.

Ezkondu biak aurrean belauniko jarriaz, marmaroska asi zan liburutik latiñez zer edo zer irakurtzen ebalakozan.

Eta berealako baten kaskateko bat emon eutson gizonari bere isopoas... Gerotxoago, amazteari beste bat.

Eta kaskatekook geroago ta gogorrago ta ariñago jausten asi ziranean, senar-emazteak, negarrez, itandu eutsoen:

—Gure ezkontza au austeko otoitz orreik, asko iraungo dabe?

—Auxe bakarrik dakik nik: bietatik bata il arteiño, iraungo dauala ezkontzeak.

—Goazen, orduan, etxera, eta bakean eta luzaro bizi gaitzean, ezkondu giñanean itz emon genduan lez.

—Ori egiñaz, oraingo eta geroko inpernua kenduko dozue. Amen!

AUNTZAK, OTSOA ETA AZERIA

Baso Baltzeko bidetxo batetik, berrogei auntz etozen, Petarre'ko zelaietan negua igartzeko.

Eta Basaburu'ko tontorrean, otso bat agertu eta esan eutsen:

—Betekada ederra egin bear joat (dot) gaur zuen odolaz. Zueta-riko battxo bat be ez da emendik bizirik urtengo. Alan be, miñik egin

barik itziko zaituet, negu onetan sortu ta aziko dozuezan aumak neu-
retzat izango dirala itz emoten ba'daustazue.

Eta baietza emon eutsoen auntzak, bildurraren-bildurrez.

Negua igaro, eta or dira berrogei aume, zein baiño zein eder eta
gogorrago aziak. Goi-mendietara igoteko eguna urrago, eta auntzak
ainbat estu ta larriago.

Onetan, azeri bat agertu jaken, eta negar areik zergaitik ziran
itandu, eta jazoriko guztia jakin ondoren:

—Ez negarrik egin. Neuk lagunduko dautsuet, etzidamu, goiko
mendietara. Itz eta esku damotzuet ez dautzuela ezer egingo otso
orrek.

Zurezko ogei eta emeretzi kaiku txiki-zar, azpi-ausiak batu, eta
mendira abiatzeko eguna argitzean, auntz bakoitzari olako bana
jartzen dautsoe adarretatik eta belarrietatik beera begi bien arterai-
ño. Auntz bat olakorik barik itzi, eta danen aurretik jartzen dau, eta
aume guztiak atzetik.

Eta baso baltzeko basaburuan, otsoa itxaroten.

—Esan eidak (egistazu), azerito, zer dok (da) auntz orrein buru
gaiñeko ori?

—Otso-buru bana jaukek (dauke) buru gaiñetan.

—Eta zergatik ez jaroak (daroa) aurreko orrek?

—Ortik lasterka datorren basajaunak esan ei jautsak (dautso)
ire (zure) buru ori jarriko dautsola berealaxe.

Arri ta larri gelditu zan otsoa, eta, bidean-beera, ariñari emon.
Eta bere abidan itsututa, bilin-balaunka, beeko zokoraiño jausi,
lepo-azurra ausi, eta il-otz geratu zan bertan.

ZATIKA

Lekeitio-gaiñeko Zatika gaztea Salamanka'ra joan zan abade-
tzarako ikasteko asmotan.

Ikastaro guztiak amaitu orduko, gurasoak il, eta diruz larri ebi-
llan ostatuan ostatukoa, dendan dendakoa ordaindu eziñik. Eta
zapatari bati be oiñetakoak konpontzea, zorretan itzi bear izan eu-
tson. Zor au ez zan gauza aundia, sei marai; baiña artzekoduna
zorrotz egoan.

Ainbeste zorrez estututa, Zatika gizajoa, aldi txar batek emon-
da, *blaust!*, luze jausi zan lurrera zan bestean.

Ilda egoalakoan, illerrira eroan eben.

Zapatariak au jakin ebanean, illerrira joan eta eskuan eztena
ebala, itz garratz oneik esan zituan:

—Niri zor daustazan sei maraiak emon arte, iñork ez deutso oni
lurrik emongo.

Gabean, lapur batzuk sartu ziran illerrira, egunez egindako
lapurketako dirutza alkarren artean zatitzeko.

Areik ara orduko, gure ezagun biak an: Zatika, zerraldoan; eta
zapataria, zelatan.

Lapurrak euren diruak pilloan-pilloan ipiñita aik banatzen
iñarduela, amaseiko bat geratu zan ez batentzat ez bestentzat.

—Gizonak —esan eban guztien buru egiten ebanak— ortxe
dagoan gorpuari surra kentzen dautsonarentzat izango da amasei-
koa.

Zatika'k au entzundakoan:

—Purgatorioko arimak, balia zakidaze —esanda, zerraldotik
jagi zan.

Ori ikustean, lapurrak diru guztiak bertan itzita, andik anka-
jokoan joan ziran.

Zapatariak Zatika diru batzen ikusi ebanean, berak be erdia
bear ebala esan eta bizarrakaitik emon eragin eutson. Sakel ta kol-
koak diruz bete ebenezan, zoko baten ezkutau ziran biak lapurren
osteraren bildurrez.

Laster urreratu zan ara lengo lapur bat, eta alde guztietara
begira ibilli ta barrura sartu be bai. Zerraldo ondora, polito-polito
eldu zaneko, zapatariak Zatika'ren zorrax gogoratuz:

—I (zu) —deadar egin eutson— nire sei maraiak?, nire sei
maraiak?, nire sei maraiak?

Lapurrak ori entzutean, estu ta larri, ariñari ta igesari emon
eutson eta arnasa baten lagunakana elduaz:

—Purgatorioko ta inpernuko guztiak antxe dagoz, antza; guk
itzi dogun diru guztitik seiña marai baiño ez dabe izan.

Eta angoxe diruakaz, egin zan Zatika gizon eta eleiz-gizon.

BURUSI ERDIA

Gizon bat, zarraren-zarrez lanerako ezindua, semearen etxera
joan zan bizitera.

Seme au ezkondata egoan, eta sendi aunditxo be ba-eukan.
Bein, ez dakigu zergaitik, ala zikoitza zalako, ala bere emazte ta
seme-alabentzako bear eban aiña irabazten ez ebalako,

—Aita —esan eutson guraso zarrari— nik ezin dautzut jaten emon eta burusi edo manta au lepoan dozula, zoaz aterik-ate eskean, eta Jainkoa lagun dakizula.

Orduan, seme zarrenak, aitari:

—Aita, —esan eutson— burusi osoa emoten dautsozu aititari? Erdiagaz be naikoa dau. Gorde egizu beste erdi ori, nik zu etxetik bialduko zautudanerako.

Mutil zur zoli onen aitak, au entzunda, bere aita zarra etxean artu eban barriro.

URREZKO EZPALAK

Ama alargun batek seme-alaba asko, eta ezelako onik ez eukan: ez ogirik jateko, ez berotzeko egurrik.

Bere mutiko bat bialdu eban bein aberats bategana saski bete ezpalean eske. Eta aberatsak ukatu. Eta mutikoa amagana negarrez: ez eutsola emon!

Beste mutiko bat bialdu eban gero, beste aberats bategana urun apurtxo baten billa. Ez eutson onek be ezer emon.

Irugarren ume bat bialdu eban, orduan, beste aberats bategana, saskitxo bat bete egur eske.

—Bai, esan eutson onek, alango lekutan dago egur-pilloa, eta artu egizu burdi bete.

Esan eta egin. Ba-etorren gure umetxo au burkada egurraz. Eta bere etxera eldu ordukoxe, ekarren egur guztia, urrezko diru biurtu jakon. Beste umetxoak, diruok artuta, ogia erosten joan ziran.

Eta lenengo aberatsak ori ikusita:

Umeak, ain arin, nondik egin dozue orrenbeste diru?

—Urliak emon dausku egurra; eta egurra urre biurtu jaku. Neuk ekarri dot burdian egur ori.

—Zoaz barriro be egur-billa, eta ekarri egizu burdikada bat neure etxera.

Joan zan mutikoa egurretan, eta burdia egurrez bete-beterik ekarrela, aberats zikoitzaren ate-aurrera eldu zan. Orduan, ango ezpalak sagu biurtu ziran. Eta pizti oneik aberats zikoitzaren ondatsun guztiak jan ebezan.

IKAZGIÑA ETA ERIOA

Txabola baten, ikazgin bat... baba, talo ta gaztai, beste jakirik barik, estu ta larri bizi zan. Bein, bere aparitxo egiten egoala, atean norbait deika.

—Nor da?

—Gaba igaroteko legorra nai neuke.

—Baiña, nor zara zu?

—Ni, Jainkoa.

—Zuri legorra emon? Batzuk ondosunez beterik daukazuz; besteak, egun guztian lan egin arren, jateko urri dabela. Ez, zoaz ortik! Andik gerotxoago baten, Jainkoa barriro etorri, eta atea jo.

—Nor da?

—Gau onetarako legorra nai neuke.

—Baiña nor zaitut zu?

—Ni, erioa.

—Zuri bai, eta gogoz gaiñera. Zu: nai aberats, nai eskeko, nai aundi nai txiki izan, zu danakaz bardin zara.

Eta atea zabaldua, aparria be berak eukanetik emon eutson, ogea be bai, eta urrengo goizean gosaria. Erioak, orduan, eskerrak emonaz:

—Zer nai dozu, nik zuri egitea?

—Nik... nik... beti onan barik, zabaltasun eta erosotasun apurtxo bat eukitea nai neuke.

—Zoaz, ba, errege-urira. Erregiña oso gaiso dago. Aspaldion osagilleak ez dakie zer egin bera osatzeko. Sartu zaite zu ara, eta ni burualdean ikusten ba'nozu, ilgo dala esaiozu eta bere egitekoak lenbailen egin dagizala. Baiña oiñen aldetik ba'nago, berogarri batzuk edozein aldetan ezarriaz, berealako baten osatuko dala esan.

Ikazgiñak soiñeko onenak jantzi, albait ondoen burua apaindu, eta pozik eta zoli artu eban errege-jauregirako bidea. An ez eutson iñork benetako osagille zanik siñestu nai, ez eta erregiñagana sartzen itzi be. Baiña berak uluka ez eutsen baketan izten: erregiña ikusi bear ebala, erregiña ikusi bear ebala, eta beti gauza bera.

Erregek ulu oneik entzun, eta nor zan jakin ondoren, osagille zalako orri beragana deitu ta biak sartu ziran erregiñagana, ara ta ona gaisoaren inguruan ebillan osagille taldetxo bat lagun ebela.

Sendagillen ziñu-miñu batzuk egin zituan: miñña aterazo, betazalak begiratu, pultsua artu... eta onetan eriotza gaisoaren oiñetako aldean ikusi eban. Ikazgiñak, orduan:

—Berealako baten osatuko dot nik au! Eta orretarako: ardao, liñazi, zai, birzai ta olango batzuk eskatu zituan. Eta an egozan osagilleak barre!

Au ta guzti be, erregek eskatutako guztia ekarteko agindu eban; eta gaisoa, gatxa eskuz kenduta lez, osatuta gelditu zan.

Osagilleok, orduan, euren buruak beeratuta ikustean, ez ekien zer esan ez zer egin... Txoko baten alkar artuta, euren arteko zarrena ogean gaiso-antzeria jarrea erabagi eben. Erregeri esan eutsoen, gero:

—Errege jauna, osagille izenaz etorri jakun gizontxo orren eze-reza ezagutu dagizun, auxe ta auxe egin dogu, eta ikustera datorrela agindu egizu.

Ikazgiñak, sartuta lenengo begiradan erioa aren buru aldean ikusiaz, ziñu bearrik barik:

—Ber-bertatik ilgo da gaiso au, esan eutsen.

Len baiño barre-algara aundiagoak egin ebezan gure ogekoaren lagunok. Baiña, laster sartu jakezan barreok barrura, euren laguna azkenetan egoala oartu ziranean.

Erregek bere emaztea osatuta eta ikazgiñak esan ebanez, sendo egoan osagille zarra illik ikusita, osagille guztiak marmarka bota eta jauregitik atera zituan.

—Zer nai dozu —esan eutson gero ikazgiñari— nik saritzat emotea?

Jauna, nik nai dodana? Ondo eta eroso bizitzeko bidea.

Andik aurrera, ikazgiñak erregeren maian jatorduak egiñaz gaiñera, baratz eta basoko areitz, pago eta artepeetan emoten eban zan gozaro, sekula ez lakoxe, egunak.

Bein, olango ibillaldi baten, erioa agertu jakon, eta onelantxe berbatu:

—Eup! zer diñok (diñozu) ikazgin? Ezagutzen al nok (nozu)?

—Zetan abil (zabiltz), erio? —ikazgiñak, bildurrez beterik.

—Ire (zure) eske, mutil!

Nire eske? Ikazgin gizajo bat nintzanean bizitzen itzi; eta orain zorioneko egun labur batzuk izan dodazalako, nire eske etorri al az (zara)?

—Ez al eustan (zeunstan) ik (zuk) euk (zeuk) bein esan, ni danakaz: nai aberats, nai eskeko, nai txiki nai aundi, guztiokaz bardin nintzala? —Ire (zure) aldia dok (da) orain, eta nigaz bear dok (dozu).

—Arako gau atan, txabolan egindako mesedearen saritzat, arren!, Gure Aita ta Agur Maria esateko astia emon egidak (egidazu) beintzat.

—Ori izango dok (dozu), baiña zur egon, gero!

Ikazgiñak Gure Aita bai, baiña Agur Maria egunetan be ez eban esan. Eriok ez ekian zer egin, eta egunen buruan, basoko areitz zar batetik bere burua dindilizka, urkatutakoaren antzean, itzi eban.

Ikazgiñak, erioa ilda egoalakoan, poz-pozik esan eban Agur Maria be. Eriotzak, orduan, burua goratu eta:

—Neurea az (zara) oraingoan —esanda, beragaz eroan eban.

IZEN ONA

Bein, Sua ta Ura ta Izen Ona alkarren lagun ebiltzan. Banandu ta alkar galtzeko bildurra euen. Eta alkarri iñotsoen:

—Zelan alkar aurkituko dogu, galdu ezkerok?

Eta Suak esan eban:

—Kea darion leku guztietan aurkituko nozue ni.

Eta Urak esan eban:

—Leku busti guztietan aurkituko nozue ni.

Eta biak batera Izen Onari:

—Eta zu, adiskide on, non aurkitu al izango zaitugu?

Eta Izen Onak erantzun:

—Ni bein galdu ezkerok, galduta nago betiko... Ez nau iñork aurkitu al izaten.

BEI BATEN LAPURRA

Gizon batek bei bat ostu eban. Orregaitik, Ceuta'ra eroan eban an ogei ta bost urte espetxean egoteko.

Etxean, emaztea eta mutiko gaztetxo bat itzi zituan. Ogeta bost urteak bete zituanean, etxe aldera etorri zan. Etxeruntz etorrela artalde bat ikusi eban gizon gazte baten ardurapean.

—Gure etxeko ardiak ete dituk (dira)?, bere barrurako.

Beragana urreratu, eta artzaiñari:

—Norenak dira ardiok?

—Josepa Goñi'renak, (Ceuta'tikoaren emaztea zan Josepa Goiñi).

—Josepa orren semea al az (zara)?

—Bai.

—Eta, aita non dok? (da)

—Espetxean.

—Zergatik?

—Beia ostu eban larratik.

—Orain ordaindu bearko jok (dau) narrutik.

—Bai nai ba'dau, nigaitik.

Semeari au entzunda, barrez joan zan etxera aita. Atalondoan Josepa aurkitu, eta esan eutsan:

—Semeagaz bertsotan ibilli naz, Josepa.

Ogeta bost urte urriñetan igarota, semeagaz bertsotan? Ori da ori gibela! Etorri zaitetz etxera, gaztainak eta taloa daukadaz, eta biok alkarregaz jango doguz, aspaldiko orde.

ALABA TA ALABORDEA

Gizon bat, alaba bakar gaztetxo baten aita zala, alargun itzi eban bere emazteak.

Etxea ezin ondo erabili, eta bigarrenez ezkondu zan. Eta bigarren emaztea, sorgiña.

Laster sorgin onegandik beste alaba bat izan eban. Eta alaba au gaztezarora eldu orduko, il zan bere aita. Sorgiña, ordutik aurrera, alaba ta alabordea lagun zituala bizi zan. Alabea itsusia zan, eta alabordea oso ederra. Eta alabeari eutson maitetasuna baizen aundia zan alaboardarentzako gorrotoa.

Bein, negu gorrian, erdi narru gorrian eta oiñutsik mallukitara bialdu eban au, otzara bete ekarteko esanaz.

Otzaren otzaz dardar joian neskato errukarria, eta iru gizon aurkitu zituan txabola baten.

—Nora oa, (zoaz) neskato?

—Amak mallukitura bialdu nau.

—Mallukitara? Dagoan otzaz ta daukanan (daukazun) jantzi-az? Zelako ama don (dozu ori)?

—Amordea dot.

—Olan bai. Ba, txabola-osteko egurpean aurkituko dozan (dozuz) mallukiok, otzara bete gitxienez.

Malluki ederrez otzarea bete-bete egin ebanean, eskerrak emotera joan zan iru gizonakana. Oneik meiterik artu eben eta iru bezuza edo erregalu egin eutsoezan.

Batak:

—Esango donan (dozun) itz bakoitzeko urre-zati bat jausiko al jatan (jatzu).

Besteak:

—Egunean baiño egunean, ederrago izango al az (zara).

Irugarrenak:

—Ildakoan aingeruak zeruan sartuko al abe (zaitue).

Etxera elduta, amordeak otzarea mallukiz betea, bera len baiño ederrago, eta urrea dariola etorrela ikusi ebanean:

—Non izan az (zara), neskato?

—Mendi orren beste aldeko txabola baten izan naz.

—Iñor ikusi don (dozu) bertan?

—Iru gizon. Eurak erakutsi dauste malluki-lekua.

Au entzunda, bere alabea, ondo jantzi eta otzaratxoa eskuetan, araxe txabolara bialdu eban. Sorgiñaren alabatxoa txabolara eldu zanean iru gizonak an ikusita:

—Amak mallukitara bialdu nau ni be.

—Mallukitara? Otzarakada bat ez al dozue naikoa?

Eta ez eutsoen mallukitegirik erakutsi. Iru bezuza bai ari be egin eutsoezan.

—Egingo donan (dozun) itz bakoitzeko sapoa jausiko al-jatan (jatzu) —batak.

—Egunean baiño egunean, itsusiago izango al-az (zara) —besteak.

—Ildakoan deabruak eta aren lagunak inpernura eroango alabe (zaitue) —irugarrenak.

Etxera etorrita, amak otzarea utsik, otzaraduna itsusiago eta aotik sapo-jaurtika ikusirik, leen baiño gorroto aundiagoa sartu eutson alaboardeari.

Urrengo egunean, izotza egin eban, eta amak mataza batzuk emonda ibaira eurak jotzera bialdu eban: aurregunean lez, ortozik eta erdi billusik.

Eta otzaz kikilduta, matazak jo ta jo eragoiola, zaldun bat igaro zan andik, eta:

—Zetan diardun (diarduzu) emen, neskato?

—Amak arizko matazok garbitzen bialdu nau.

—Dagoan otzaz eta daukanan (daukazun) jantzi-az! Zelako ama don (dozu) ori?

—Amordea dot.

—Olan bai! Ator (zatoz) neure etxera. Neure amak alabatzat artuko au (zaitu) betiko.

Zaldun ori erregea zan. Eta bere emaztea izatera eroan eban neskatoa. Eta au lenengo seiña izateko egoala, beronen amorde sorgiña barri oneik jakinda, alabea lagun ebala, araxe joan zan bizitera eta erregin gaztearen emagiña izatea lortu eban.

Eta errege ta bere ama sein barriaz baratzeko lora artean, eguzkia artzen egozan bitartean, sorgiña, bere alaba zatarran lagun ebala, ama barri zorientsuaren gelan sartu zan.

Au ogetik kendu, eta bere alaba zatar-sapoduna sartu eban izarra artean aren orde.

Erregea gelaratu zanean, bere emazte ederra emakume itsusi bihurturik ikusita, zer egin ez ekiala egoan. Sorgiñak lentxoago alaborde erregeña ibaira bota eban. Orduan txori bat asi zan txioka:

Txin txau txoria
txoritxo txilibitaria
astoan arto-bitxia
upan edergarria,
zalduna doa zoroa,
moroa langoa daroa.

Alantxe, igarri eban erregek non egoan benetako erregiña. Ara joan, etxera ekarri eta soiñekoak aldatu-erazo ta gero, sorgiña laban erre eban, eta bere alaba zatarra itxasora bota.

TXEPETXA TA SAIA

Batzar aundi bat egin eben, bein, zeruko egazti guztiak. An egozan txepetxa, txindorra, okilla, kukua, urretxindorra, arranoa, saia eta beste guztiak.

Euren etsaiakandik zelan salbau, izan zan lenengo autua. Gero, suge eta katuakandik iges egiteko erabagi egokiak artu ebezan. Baita, andik aurrera, euren artean iñongo burrukarik ez egiteko asmoak be.

Eta sekulako asarraldia egin eutsoen mozoilloari, txori txikiak artzeko oitura txarra eukalako. Eta aurrerantzako, lurreko piztiak: saguak, sugelandarak eta abar bakarrik jateko baimena emon eutsoen begi aundiko egaztiari.

Eta gero, nok *obeto abestu* saioa urrengorako itziaz, nok *gorago igon* jokoa egin eben euren artean. Eta egazka asi ziran danak. Txepetxa, orduan, saiaren luma artean sartu zan, onek igarri barik.

Eta ba-joiazen gora ta gora. Egazti asko naiko egaz eginda gero, beera etozan astiro-astiro. Eta saia, gora ta gora, oraindik. Eta besteak baiño gorago joan zala ikusi ebanean, beeko mendi luze baten gaiñetik, bira zabal batzuk eginda, beerantza asi zan apurka-apurka ta arro-arro.

Baiña, lurra artu baiño len, txepetxak, saiaren luma artetik urten eta egaz egiñaz, saia baiño gorago joan zan.

Eta barrero aren gaiñean jarrita, kanta-kantari iñoan:

—Ni i (zu) baiño gorago, ni i (zu) baiño gorago.

Eta txepetxak irabazi eban txorien txapelketa.

ERROTARIA

Errotari batek iru semea eukazan. Eta iru seme oneik alkarregaz bizi zirala, aita-amak il jakezan.

Aren ondasunak errotea, mando bat eta katu bat ziran. Eta ondasunak zatituta, batek errotea, besteak mandoa, eta irugarrenak katua eroan eban.

Katu-jaubea oso illun egoan. Eta katuak esan eutson:

—Zer dok (dozu) orren illun?

—Ai! Zelan biziko non (naz) ni, igaz (zugaz)?

—Ez az i (zara zu) txartoen biziko. Egin egidak (egidazu) bota pare bat.

Baso baten, jauregi bat egoan; eta jauregi aretan, jaun bat. Jaun orrek gizotso-fama (1) eukan. Katua jaun orregana joan, eta esan eutson:

—Gizotsoa azala, (zarala) entzun joat (dot). (2)

—Ba... olan non (naz).

Gizotsoak nai daben irudian jartzen ei dituk (dira).

—Ba... olan don (da).

—Ezetz i (zu) jarri!

Eta gizotsoa leoi antzean jarri zan.

Katua ikaratu, eta esan eutson barrero:

—Ezetz i (zu) sagu baten irudian jarri?

Eta gizotsoa sagu bat zirudiala jarri zan.

Katuak, orduan, aren gaiñeratuta, ito egin eban. Eta gero, bere nagusia ara ekarrita, alkarregaz bizi izan ziran, jauregi eder aretan.

(1) Gizotsoa. duende

(2) Beste mundukoakaz eta ika itz egin bear izaten da.

GUARIN

Aita zaldun batek iru alaba eukazan. Erregeak, zaldun barriak egiteko asmotan ebillela, aita orri:

—Zuk ze pamili dozu?

—Iru alaba, jauna.

—Semerik?

—Bat, Guarin deritxon mutil eder bat.

Au entzueran, erregiñeak erregeri belarrira:

—Orrek ez dauko semerik.

Erregek zalduna bere etxera bialdu eban semearen billa. Illun joian aita. Alaba zarrena ikusi eban lenengo etxeratu zanean.

—Zer dozu, aita, orren illun etorteko?

—Erregeri semea daukadala esan dautsot. Eta berak niri eroan dagiodala, eta ni larri.

Bigarren alabeak itaun bardiña eginda, aitak zarrenari lez erantzun eutsonean:

—Ori esan baiño ez al zan, aita, oba izango guri senargai on bana ekartea?

Irugarren alabeak aitaren estutasunaren barria artuta:

—Aita, ez larritu. Neu joango naz erregegana, mutil jantzita. Ba-doaz bata ta bestea, aita-alabak, zaldiz, aurrera ta aurrera. Jau-regiratu ziranean, erregeak emazteari deituta:

—Ona emen Guarin, zuk ezetz esan arren.

—Ori Guarin? Emakumea dozu ori. Bialdu egizu arako landa aundi aretara.

Landa aretan, alde batean liñoa egoan, bestean bedarra. Erre-
gin sorgiñak bere artean iñoan:

—Emakumea dan aldetik ez dau liñoa zapaldu nai izango. Eta senarrari agertu eutson gero uste au.

Guarin ara joiala, Ama Birjiña agertu ta:

—Zoaz liñotzara.

Liñotzan lauankan ebillan zaldizko.

—Aor, ba, emakume, liñotzan dabil. Mutilla dozu ori.

—Ezetz, gizona, ezetz. Esaiozu orain datorrela onantza, eta zal-
dia barriro atondu dagiala. Emakumea dalako, korta-barruan aton-
duko dau zaldia. Mutilla ba'litz, kanpoan egingo leuke.

—Zoaz Guarin —erregeak orduan— zoaz zaldiari ugel barriak ipintera.

Kortarantza joiala, Andra Mariak barriro urtenda, egin bear ebana, belarrira esan eutson. Guarin'ek kortan ugel billa sartu ta kanpoan atondu eban zaldia eurokaz.

—Ikusten dozu? Mutilla da.

—Ez dala mutilla! Dan ala ez dan jakiteko bialdu potixaz iturri-
ra. Ura ba'dakar, mutilla da. Ostean, ez!

Iturrirantza joiala, Andra Maria barriro be agertu, eta burubi-
de au emon eutson:

—Iturri-ondoko osiñean, suge bat ikusiko dozu, begiak zabalik, baiña lo. Eutsi eskura mimen au. Onetxegaz, Aitearen eginda gero, ondo lotu egizu pizti ori zaldiaren atzeko aldean, ondo bete gero poti-
xa, eta etorri jauregira.

Ba-datoz alantxe jauregirantza. Eta zaldi gaiñeko suge lotuak barre-algara bat... gerotxoago beste bat, beste bat geroago. Eta Andra Maria'k barriro, neskeari:

Erregearen aurrera eldutakoan, itandu egiozu sugeari barre-
algarok zergaitik egin dituan.

Orduko, jauregian, balkoarik aundienean, erregea, erregiña eta ondorengo asko egozan. Ara elduta, Guarin'ek erregeari zerbait esateko eskubide eskatu eutson, eta eskubide ori artuta, sugeari:

—Suge —esan eutson— zergaitik egin dozuz iru barre-algarok?

—Lenengoa, neure ama andrearen jauregiko teillatua ikusi dodalako. Bigarrena, neure ama andrea bere senar erregeren alboan giltz guztien jabe ikusita. Irugarrena, zeu lakoxe dontzella batek (Andra Maria'gatik iñoan au) galdu naualako.

Erregeak emaztea nor eban jakinda, jauregi aurreko zabalean bertan su aundi bat biztu-arazo, eta antxe kiskaldu eragin eban emazte sorgiña. Gero, Guarin nor zan jakinda, beragaz ezkondu zan.

BILDOTSA

Bildotsa ebillan bein beeka, bere miñak eta naigabeak eroan eziñik. Eta Jaunak esan eutson:

—Ikusten joat (dot) eure (zure) burua zaintzeko gordegarri gitxi-
gaz egin autala (zaitudala). Nai dok (dozu) oiñetan erpak eta agoan agin gogor-aundiak euki?

—Ez, Jauna, ez! Ez dot nik izan nai pizti odol-zaleen antzekoa.

—Nai dok (dozu) eure (zure) aginpean edena edo pozoiña euki?

—Ez, Jauna, ez! pozoidun piztiak iguingarriak dira.

—Nai dok (dozu) adarrak bekokian eta buruan indar geiago ipintea?

—Ez, Jauna, ez! Orretara ezkerro, akerra baiño okerragoa nin-
tzake.

—Bildostxo, bildostxo! Besteak kalterik ez egitea nai ba dok (do-
zu), ik (zuk) be kalte egiteko al izatea nai ta naiezkoa dok (dozu).

—Ori olan ba'da, Jauna, naiago dot nazan lakoxea itzi nagizun.

ERRENA TA AMAGIÑARREBA

Errena ta amagiñarreba ez ziran ondo konpontzen. Eta semea urriñetara joan zan gerrara.

Morroi bat eukan etxean amagiñarrebak. Eta errena mendira eroateko agindu eutson.

Alabatxo bi eukazan errenak. Eta txakurtxo bat alabatxoak. Eta euren atzetik joan zan txakurra. Eta agindu au emon eutson amagiñarrebak morroiari:

—Ekarri egidazuz andra orren beso biak eta biotza!

Morroia'k, errukituta, beso biak bakarrik kendu eutsozan amari. Eta gero umetxo biak amaren sorbaldan lotu. Eta azkenean, txakurrari kendu eutson biotza. Eta amagiñarrebagan joan zan eurakaz.

Basoan umeak egarritu, eta eske asi ziran:

—Ura, ama, ura. Ura nai dot, ama...

Jatsi zan errekarra ama. Sartu zan errekan eta eskumako eskua osorik atera eban. Sartu barriro, eta ezkerreko eskua be osorik atera. Eta umetxoai ura emonda, mendiz aurrera joiala, abots miragarri au entzun eban:

—Jo egizu irutan ukubillaz aurreko pago orretan.

Iru kosk-kosk emon pagoari eta, bapatean, jauregi eder bat sor-tu zan bertan. Eta jauregi eder aretan bizi izan ziran aurrerantzean ama-alaba biak.

Iru eiztari agertu ziran bein jauregi orretara, ostatu-eske. Eta etxeakoandreak berean artu zituan. Eta urrengo goizean jagi ziranean, alaba batari esan eutson amak:

—Joan irugarren eiztari orregana eta esaiozu: aita, artu ura eskuak garbitzeko.

Eta beste alabeari:

—Zoaz irugarren eiztari orregana eta esan: aita, artu eskuak legortzeko zapia.

Gizona arrituta, ia orrek zer esan nai eban, itandu eutson etxe-koandreari. Eta etxeakoandreak:

—Ez al zara zu, gerratik etorri barria?

—Bai!

—Eta zer esan dautzu amak etxera etorritakoan?

—Ba, mendira bialdu ebalabere errena morroiari laguntzen: eta andra errukarriari esku biak eta biotza kendu eutsozala morroi orrek, gaiztoa izan zalako.

—Neure eskuak eta txakurraren biotza eroan zituan morroiak. Alkar ezagutu, alkar besarkatu... eta jauregian gelditu ziran betiko senar-emazteak alaba biakaz.

ERREMENTARIA

Errementari bat ei zan, ezin bizi zana.

Eta deabrua bein agertu, eta esan ei eutson:

—Zer dok (dozu), gizon, beti illun?

—Lan eta lan, eta ezin neure lanak, ezelan be, aurreratu!

—Neuk egingo daustazat (dautsudaz), zortzi egun barru egin be, eure (zure) arimea emoten ba'daustak (daustazu).

—Tira, ba!

Egunak aurrera, eta dri-drau, deabruak lan guztiak egin eta amaitzeko prest. Larritu zan gure gizona, eta bere andreari dana esan. Eta andreak:

—Ai, kokolo, kokolo! Itzi egik (egizu) ori neure kontura. Neuk konponduko joat (dot) dana.

Joan da gure andra ori deabruagana, eta ule bat burutik atarata, a zuzentzeko eskatzen dautso deabru orri.

Eta deabruak jo batera ta jo bestera, ezin ule ori iñondik be zuzendu. Eta alango baten surtan sartzen dau, burdin-barra gorituak lez, lantzen asteko asmotan.

Bai zera... landu! Ulea bertan, *zar-zar!*, erre; eta ez barra ez ule, errautsa bakarrik geratu.

Orrelan ezin, ba, deabruak agindutako lan guztiak amaitu... ta bere arimearen jabe gelditu zan gure errementaria.

ETXEKO ONDASUNA

Aita bat iru semegaz bizi zan.

Eta ilteko ordua etorri aitari.

Aita orrek bedar-solo bat besterik ez eukan, eta bere iru semeai deituta, esan eutsen:

—Begira, semetxook: landu egizue solo ori, eta sekulako urre-pilloak aurkituko dozuez bertan.

Aita il zanean, joan ziran, ba, iru semeok, eta atxurtu emen, atxurtu an, solo guztia iruli eben, eta... urrerik ez iñon!

Urrerik aurkitu ez, ba,... ta garia erein eben landutako lurrean. Eta berebiziko garitzea artu eben.

Eta gari-joten ebizala, iñoen alkar: garia zoan, zan benetan, gure aitak agindutako emengo urre-gorria.

PIZTIEN BURRUKEA

Bein baten, soloan bedarra jaten egoala, karrakaldoa ankapean artu ei eban zaldiak.

—Ai, ai, ai! Il bear nok (nozu)! Kendu egik (egizu) ankatzar ori ortik! —uju egin ei eutson karrakaldoak zaldiari. Eta zaldiak jaramonik ez.

—Bai? —esan ei eban karrakaldoak. Eta zaldiaren ankapetik urten ebanean, joan, eta azeritik berako piztitxo guztiak batu, eta azeritik gorako pizti guztiak gerrea agertu ei eutsen.

Batu ziran, ba, guztiak: aundiak mendi baten; eta txikiak beste aurreko mendi baten, alkarri begira, alkarri deika, aurrezaurre...

Eta pizti aundiak azeria bialdu eben zelatan, arerioak zenbat eta zelakoak ziran ikustera.

Joan zan, ba gure azeri ori ta, txikiak ikusi ebenekoxe, or jator-koz gaiñera alde guztietatik: erlek, eta listorak, eta eltxoak...

Azeriak egin zituan, orduan, egiteko saltoak!

Buztana tente ba ekarren onantzakoan, ondo beera ta ikara eroan eban arantzakoan.

—Eta?... —itandu eutsoen beretarrak.

—Mutillak! Txikiak bai, baiña, bizkorrak!

ARTZAIN LAPURRA

Baztan'go mendi baten, iru txabola egozan alkarren ondoan: Gartziarenekoa, Arburukoa ta beste bat.

Txabola baten batzen ziran, udan, iru artzaiñok. Eta Gartziarenekoari aste beteko gaztaiak ostu eutsoezan. Naigabez bete zan Gartziarena au ikusita.

Eta liburutxo bat eroan eban bere txabolatik alkarregaz batzen ziran txabolarara. Atean egoala, onetan irugarren artzaiña agertu zan, eta oneri esan eutson:

—Baten-batek asteko gaztaiak ostu jaustazak (daustaz).

—Nik ez, beintzat —besteak.

—Ez joat (dot) ire (zure) susmo txarrik egin. Guzurras egia atera bear joagu (dogu). Emen jaukat (daukat) liburu bat, eta Eskritura Santa dala esan bear dautsok (dautozu) Arburukoari. Ukatzen ba jok (dau) be, Eskritura Santak egia autortuko dauala esango jautsat

(dausat)... Ogepean sartu adi i (zaite zu), berak ikusi barik. Eta nik deadarka: nork lapurtu dau Gartziareneko gaztaia?, esaten dodanean, ik (zuk): Arburuko artzaiñak —erantzungo dok (dozu).

Au, Arburutik urtenda txabolarantza joiala ikusi ebanean, irugarrena ogepean sartu zan, esan lez.

Eta Arburukoa eldu zanekeoxe, Gartziarenak:

—Asteko gaztaiak lapurtu jausteezak (daustez) —esan eutson.

—Nik ez, besteak.

—Norbait izan dok (da), ba!

—Bene-benetan! Nik ez dodala ezer ostu!

—Nik ez joat (dot) esaten nok, ostu daustezela, baiño.

—Orra or kurutzea, nik ez ditudala eroan!

—Niri ez aitatu ez federik, ez kurutzerik. Ementxe jaukat (daukat) Eskritura Santa, eta onek esango jaustak (daust), itandutean, egia.

—Nai ba-dok (dozu), itaun egiok (egiozu)

Orduan luburua zabaldu, eta deadarka asi zan:

—Eskritura Santa, esaidazu egia. Nok eroan dau Gartziareneko gaztaia?

—Arburuko artzaiñak —erantzun eban, ogepetik, irugarrenak.

—Lurrak be ez dagiala jakin —erantzun eban Arburukoak— danak ekarriko joazat (dodaz).

—Ekartekotan, oraintxe bertan —Gartziarenak.

Orduan, ogepetik urten eban besteak.

KATUA TA TXORIA

Katu baltz, bizar aundi, bizi-bizia zan; saguak arrapatzen a lakorik ez! Ez zan, baiña, sagu-arrapatzailea bakarrik; al ebanean, txoriak be arrapatzen zituan.

Bein baten, baratzer urten, ta pin-pin txori bat ikusi eban. Badoa geldi-geldi arrastaka txoriagana; txoria konturatu baiña eta aldameneko zugatz batera egaz-egin.

Katu baltza, begiak larri-larri, txoriari begira gelditu zan, eta onetara esan eutson:

—Au txoriaren polita! Nork bildurto zaitu, orrelan iges-egiteko? Nik? Nik ez dautsot iñori kalterik egiten. Jatsi ortik, eta biok jolastuko dogu; zatoz!

Txoriak siñestu eta egoak zabalik, polito-polito, lurrera jatsi zan. Txoria aldamenara etorri jakonean, atzaparrak ezarri eutsozan katuak eta erpa zorrotzak sartu.

Txori errukarriak, katuaren erpa zorrotzetatik iges egiteko alegiñak egin zituan, baiña alperrik.

Eta katuak agoan eroiala, iñoan txio ta txio:

—A zelako burubakoa izan nazen ni! Zergaitik jaramon egin dautset nik katuaren itz leun, laban eta zuriai? Orra, ni orain katu baltzaren erpa zorrotzetan!

IRU ANAIK

Aita batek iru seme eukazan. Aundi egin ziranean, mundurik-mundu irabazten joateko garaia eldu jaken. Eta aitak, besterik ez eta, igitaia emon eutson bati, katua besteari, eta oillarra irugarrenari.

Eta joan, joan eta joan... gari ebaten iñarduen gizon batzuk solo baten. Arrizko aizkoreaz ebaten eben garia. Igitaia eukanak esan eutsen:

—Aizkoreaz gari ebaten? Nik ba-daukat gauza egokiagorik orretarako. Eta igitaia artuta, *risti-rasta!*, berealako baten ebagi eban arlo bat.

Arrituta gelditu ziran gari-ebailleak tresna aren egokitasunaz:

—Salgai ba'dozu geuk erosiko dogu. Zenbatean?

—Ainbestean.

Joan, joan eta joan, barriro be, eta erri txiki batera eldu ziran. Errian, gizon eta emakume guztiak saguak arrapau eta saguak ilten iñarduen.

Eta katudunak:

—Zetan zabize olango istilluakaz? Nik ba'dot gauza oberik saguak ilteko. Eta katua atera, eta saguak arrapau ta arrapau ekin eutson, arik eta danak garbitu arte. Arrituta gelditu ziran erritarrak alango eiztari azkarragaz:

—Salgai ba'dozu, geuk erosiko dogu. Zenbatean?

—Ainbestean.

Joan, joan, eta joan osterara be, eta irugarren errira eldu ziran. Gizon talde aundi bat egoan eguzkiaren sortaldera begira, makillakaz lurra jo ta lurra jo.

Eta oillardunak:

—Zer dala-ta makillakaz lurra jo ta jo, eguna argitu baiño lenago?

—Eguzkiari deika gagoz, loak artuta etorri barik gelditu ez daiten.

—Ba'dot nik ori baiño gauza egokiagorik, eguzkiari deitzeko. Eta oillarra, zakutik urten orduko, kukurrukuka asi eta eguzkia bereala agertu. Arrituta gelditu ziran gizonak alango egazti arrigariaz.

—Salgai ba'dozu, geuk erosiko dogu. Zenbatean?

—Ainbestean.

Gero irurak etxera biurtu ziran naiko aberastuta. Ederto bizi izan ziran andik aurrera.

AITA BATEN AZKEN ITZAK

Aita batek iru seme zituan. Irurak ondo azten alegindu ei zan. Semeak, baiña, beti alper: ez lanerako ganorarik, ez ezetarako burubiderik.

Gaisotu egin ei zan, alako baten, aita ori. Iltera joiala bere buruari igarri, eta bere ondora deitu eutsen semeai eta esan:

—Urrea, lanaren lorea. Orra or etxe aurreko zelaia, lenago garbi ta landua, orain sasiz estaldua. Or dituk gure ondasunak; ba-dok da or urrea ugari.

—Eta zein aldetan dago urre ori? —semeak dagoz itandu.

Aita, baiña, gatzaren indarrez itzik barik gelditu, eta berealaxe il ei zan, beste garbitasunik emon barik. Gero semeak euren artean iñoen:

—Ez jakiguk (dakigu) ziur urrea zein tokitan dan, baiña, zelai orretan dagoala, bai. Garbitu ta atxurtu egingo joagu (dogu) lur guztia eta urrea nonbaiten agertuko dok (da).

Baita gogor jo be, bata bestearen leiean eta urrearen usaiñean. Laster lubarritu eben zelai guztia.

Baiña an ez zan urrerik agiri. Aurrerapen barik eta guztiz lur jota gelditu ziran irurak.

Gizon zar bat urreratu jaken onetan, eta zer ebillen itandu. Eta jazoriko guztia zeatz azaldu eutsoen. Eta zarrak:

—Ez jagok dago txarto ori. Ez itzi; zuon aitak burubide txarrik ez dautzue emon. Lurra landu dozue, eta lanik txarrena eginda jagok (dago). Gero, neguko euriak eta udabarriko beroak ekarriko dautzue urrea.

Alan... garia erein ei eben.

Eta bederatzigarren illebeterako, gari-solo ederra egin ei zan. Galburuak gorri-gorri distiz egiten eben. Urre-soloa zirudian.

Ari begira egozan iru anaiak, eta antxe aurkitu zan baita arako zarra be:

—Ara galsolo ederra urre-pilloen parekoa. Ez aitzu aitaren esana: urrea, lanaren lorea.

Ordutik ikasi ei eben iru anaiok euren zelaietatik, aita esandako urre-mordoak urtero ateraten.

SORGIN LAPURRA

Munduan beste asko lez, etxe baten, aita bat bizi zan bere iru semegaz. Sagasti aundi bat euken etxe-inguruan, eta gauero-gauero sagarrak ostuten eutsezan baten-batek.

Alan, gau baten anai zarrena geratu zan sagastia zaintzen; baiña goizalderantza loak artu, eta besteetan lez sagarrak ostu.

Urrengo gauan, bigarren anai geratu zan sagasti-zain; baiña au be goizaldean loak artu, eta zarrenari letxe, oni be sagarrak ostu.

Irugarren gauan, anai gazteenak berak zainduko ebala sagastia. Ezetz besteak, arek ez ebala orretarako balio-ta. Baietz berak, txoria zala orretan eta berari ez utsola iñok sagarrak ostuko.

Olan ba, gazteena geratu da sagasti-zain, eskuan igitai bat ebe-

la. Eta goizalderantza, ara non agertzen dan sagastiko orma gainean alako kerizpe edo baltzune aundi bat. Joten dau igitai mutillak. Baita egundoko lastarren lapurra ezkutau be.

Eguna zabaltzean, iru anaiak sagastira joan ziran ezere lorratzik ete egoan ikusten. Eta bai, an egoan, orma bazterrean, esku baltz aundi bat. Lapurrak alde egindako bidea, barriz, odol tantaz gorrituta egoan. Lapurra non bizi zan ikusi bear ebela ta:

—Goazen, odol-lorratzari jarraitu daiogun —esan eutsen gazteenak besteai:

—Goazen ba.

Eta alan, ba-doaz odol-lorratzean, joan ta joan. Eta alako baten, arri zabal aundi baten ondoan odol-lorratzik barik geratu ziran.

Arri arexen azpian egongo zala lapurraren bizilekua, eta jaso egin bear ebela. Jaso ei eben ba, eta izugarritzko leza bat agertu zan azpian.

Bertan zotzak egin ebezan nor beera jatsiko; ta nori tokauko, ta zarrenari. Gazteenak, baiña, bera jatsiko zala.

—Bai?

—Eta bai.

Alantxe, artu eskuan igitaia, ta soka batetik zintzillizka, goitik beste anaiak eusten eutsoela, jatsi zan.

Eta an beean zoragarritzko neska gazte ta eder bat aurkitu eban. Itandu eutson ba, ia nor zan eta zer egiten eban an. Eta erantzun eutson bera olako ta alako erregeren alabea zala, eta an leza atan sorgin bat bizi zala, ta arekek arrapau ta aspaldian preso eukala, ta Jaungoikoarren andik alde egiteko bestela galdua zala.

Mutillak, orduan, esan eutson ez bildurrik izateko, berak aterako ebala andik eta. Neska orrek, orduan, eskapularioak emon eutson mutillari.

Mutillak lotu eutson garritik sokea ta anaiari:

—Gora sokea!, deadar egin eutsen. Bien artean atera eben neska ori ta beragaz alde egin eben anai gazteena lezan itzita.

Ta bera gizajoa, urtetzeko laguntzailerik barik, an barruan ebillen batera ta bestera.

Ta alako baten sorgiña billatzen dau, katu aundi bat aldamean eukala, aurki baten uleak orrazten.

Ikusi eban ordukoxe, salto egin katuak arpegira eta an ekiten dautso erpaka ta erpaka mutillari.

—Kendu katu au, onik nai ba-don (dozu) —mutillak sorgiñari.

—Ez, ez dauat (dautzut) kenduko— eta miiña aterata ziñuka ekin ei eutson. Ba-doa mutilla sorgiñagana, eta alkarri oratuta biok burrukan asten dira. Eta sorgiña miiñaz beti ziñuka ta ziñuka. Onetan, mutillak igitai miiña moztu ta poltsikoan gorde.

Ez ei eban, baiña, sorgiñak atzera egiten, eta orduan mutillak eskapularioak burutik beera sartu ei eutsozan.

—Kendu niri oneik —oju egiten eutson sorgiñak.

—Ez, ez daunazat (dautzudaz) kenduko, ni emetik ateraten ez ba'non (nozu).

—Aterako auat (zaitut) ba! Eta artu arrelepo ta aidean lezatic kanpora atera eban.

Gero andik mutil ori lezako neska gaztearen aita-erregeren errira joan zan. Eta an entzun ei eban, erregeren alabea mutil batek aterako ebala sorgiñen menpetik, eta mutil ori beregaz ezkontzeko zala, urrengo egunean.

Ostatu baten sartu, gero, ta ango gela baten, burdiñezko mallu txiki bat, kas-kas-kas leioa joaz, zeozer egiten ebillalakoan egun guztia emon eban.

Urrengo goizean, leiotik begira jarri ei zan, ezkongaiok noz agertuko zain. Eta ona non ikusten dituan alako baten, jende-talde

baten erdian, bere anai zarrena ta erregeren alabea ezkontzeko bidean.

Artu eskuetan sorgiñaren miiña ta:

—Sorgin-miin, sorgin-miin, emen orduko an izan adi (zaite) —esaten ei eutson.

Onetan, sekulako aize batek urten ei eban, danak aidean eroan bearrean. Ta eguraldi txarra egoala ta urrengo egunarako atzeratu ei eben ezkontzea.

Ba-doaz, urrengo egunean barriro be, ezkongaiak euren ezkontza egitera.

Baita, ostatuko mutillak artu eskuetan sorgiñaren miiña ta:

—Sorgin-miin, sorgin-miin, emen orduko an izan adi (zaite).

Onetan, sekulako aizeak urten, eta, beste egun batez, ezkontza atzeratu bear izan eben.

Ostatuko mutil orrek, aurreko egunetan lez, leio ondoan egun guztia malluaz *kas-kas-kas* eginez emon ei eban.

Irugarren egunean bardin jazo zan. Eta orretara ezin ezkontzarik egin.

Erri atan ba ebillala parte txarrekoen bat, eta aren billa asi ziran.

Berealaxe zabaldu ei zan, ostatuan bertan egoala, iñork zetan ebillen ez ekian mutil arrotz bat.

Artu ta erregeren aurrera eroan eben. Baiña, arek ezer ez eutson esan gura erregeri; erregeren alabeari bakarrik azaldu nai eutsoa bera nor zan.

Deitu dautsoe, ba, erregeren alabeari. Eta mutillak, orduan, eskapularioak atera, ta ia arek ezagutzen zituan itandu.

Eta arek baietz, ezagutzen zituala. Baita, axe mutil gaztea zala sorgiñen menpetik bera atera ebana.

Gero, biak ezkondu, ta aurrerantzean oso zoriontsu bizi izan ei ziran.

AZERIA TA OLAGARROA

Jatsi zan, bein, azeria itxas-ondoko atxetara, Artzabal'era. Eta asi zan pozuetan egozan karramarroak artzen.

Eta joko polit au asmau eban orretarako: pozu txikienak aukuratu, eta atx-zuloak ba'eukazan, obe. Ara bere buztana sartu eta batera ta bestera erabili.

Mamarro ta aragi-zati ustelak dabez atsegiñen karramarroak janaritzat. Eta azeriaren buztanak oso usain txarra dauko. Eta buztan ori uretan igerian ikusita, eta arek botatzen eban usain txarra asmauta, orrelan aragi-zati ustel bat zala uste eben karramarroak.

Orduan, euren zuloetatik urten eta azeriaren buztanari *kost* eta *kost* asten ziran. Azeriak, orduan, buztana jaso, eta sekulako barre-algarak eta ziñuak egiñaz, aoratu ta, kris-kras jaten zituan gogotsu.

Alako baten, baiña, olagarro (pulpo) bat ixil-ixillik, alango zulo batetik urten, eta buztanetik eldu eutson azeriari bere erro bataz. Asi zan azeria tira ta tira, karramarroa zalakoan, baiña bai zera! Ezin buztanik jaso.

Ura gero ta gorago etorren, eta ezin buztanik askatu. Orduan ziran negarrak eta intziriak!

Lengo pago-suster aregaz gogoratu ta esan eutson olagarroari:

—Zer darabilk, mutiko! Neure buztanari oratu bearrean, atx-muturra dok agoan.

Alperrik, baiña. Eutsi ta eutsi jarraion olagarroak.

Uzker zikin bat bota eutson, gero, ango urak kirasteko. Olagarroa bardin.

Kaka ta txiza egin zituan urrengo, urak zikindu eta olagarroa itsututeko. Alperrik au be.

Eta ura gora ta gora. Anakak estaldu jakozan lenengo. Buztana gero. Lepoa azkenez. Zenbat eta urak gorago, alagarroak indartsuago tiratzen eutson eta motelago eutsi azeriak.

Bere buztana olagarruaren aoran itzita, iges egin nai eban azeriak. Olagarruak, baiña, atzeko anka bietatik be oratu eutson beste erroakaz. Eta olango tirokada gogor bat emonda, azeria osoan urpean sartu, eta bertan ito eban.

Agur azeriaren lengo barre ta ziñuak!

OTSOA ETA LERTXUNA

Otso bati, gosearen andiz, txakur zar baten aragi-azurrak jaten egoala, azur bat geratu jakon eztarrian, ez atzera ez aurrera.

Eta ez ekian noregana jo. Erri ondora joan zan, ez zan baiña kale barrura sartzen ausartu.

Lertxun (grulla) eder bat ikusi eban, onetan, eleizaren gain-gaiñean, anka bat bakarrik agiri ebala. Bera ikusita, *o, o, o*, asi jakon deika otso.

Lertxunak dei ori entzun, eta gorputza goratu, egoak zabaldu eta otsoaren gainean biraka asi ondoren, bigun-bigun "zer dok dozu otsoko", itandu eutson.

—Azur bat eztarrian geratu jatan (jat), eta ik (zuk) eure (zeure) moko (piko) luze eder orregaz atera egidan (egidazu) arren. Sari ederra izango don (dozu).

—Or naioak (noa), ba, otsoko!
Zabal-zabal eukan otsoak agoa. Egazti biotz bigunak bere moko luzea eztarriraino sartu eta laster atera eutson piztitzarrari an eukan azurra.

—Orra, atera, otsoko!

—Ondo jagon (dago) lertxuna.

—Eta zer daukak (daukazu) orain nire saritzat emoteko?

—Ai lertxuna, lertxuna... Ez al don (dozu) saririk naiko bizirik gelditzea? Eta itz zakar oneik entzutean, egoak zabaldu eta eleizara-bidea artu eban, ixil-ixillik, lertxun ongilleak.

OTSOA TA GIZONA

Antxiña, piztiak bear txarrak egiten ebezan, eta eurak arrapatzeko tranpak ipinten eutseezan.

Bein, otso bat arrapau eben, eta tranpan egoan, egunetan, goseak amorratzen.

Gizon bat etorren bera egoan toki atatik, eta o, o, o, —dei egin eutson. Gizonak errukitu, eta askatu eban. Eta otsoa gose zan lez, gizonari berau jan bear ebala esan eutson. Eta gizonak:

—Mesedea egin oraintxe eta ni jan egin bear nok (nozu)?

Bai eta ezka luzaro ibilli ondoren, aitumen batera eldu ziran: lenen aurkitzen ebenari, zein izaten zan ondo egiñen saria itanduko eutsoela.

Asto bat aurkitu eben bidean, eta beroni itandu eutsoen zer zan ondo egiñaren saria. Eta astoak erantzun:

—Zorro aundi bat az bialdu nindun errotara ugazabak, eta zorroa lepotik kendu eustanean jatekorik emon barik, makilaz jo ta basora bialdu nindun: ondo egiñen pagua, ate-ondoan palua.

Poztu zan otsoa, eta ba-doaz bigarren epaillearen billa. Azeria topau eta esan eutsoen berari ia zelan izaten dan ondo egiñen pagua. Eta azeriak:

—Neure eritxia emon baiño len, otsoa zelan egoan ikusi bear dot aurretik.

Ba-doaz, ba, tranpa-lekura. Eta azeriak gizonari:

—Jarri egik (egizu) otsoa tranpa orretan len egoan lez.

Jarri eban, eta azeriak gizonari barriro be:

—Jo ta il egik (egizu) orain atxur orregaz. Alan egin eban gizonak, eta oillanda pare bat agindu eutson azeriari egindako mesede orregaitik.

Katamizar bat eban lagun gure azeri orrek. Eta txakurrak biak aurrean eta estu artzen ebezanean, katamixarrak zugatzera igoten eban; azeriarentzat bakarrik ziran, orduan, estualdiak.

Ori zala-ta, katamixarra eraztea (perratzea) gogoratu jakon azeriari. Eta esan eutson lagunari:

—Begira, katamixartxo, sasi artean abillenean(zabiltzanean), arantzak sartzen jatazan (jatzuz) oiñetan.

—Alan dok (da), azerito, bai!

—Neuk eratziko daunazat (dautsudaz) ointxo orreik, eta ez don (dozu) arantzen miñik susmauko.

—Ederto!

Azeriak, orduan, intxaur bi artu, erdibitu, lau azalak ustu, eta lau anketan ipiñi eutsozan ugela ondo lotuta.

Eta katamixarra pozik. Joan ziran, gero, gizon aren oillanden billa.

Gizonak zorroan sartuta txakurrak ekarri eutsoezan, oillandak ziralakoan.

—Oillanda ederren batzuk dituk (dira) orreik, urrean!

—Bai, antza!

Eta zorroa zabaldua, txakurrak bota eutsoezan atzetik.

Katamixarra zugatz gainera igoten asi zan, baiña bai zera! Perrak laprast egin eta txakurrak arrapau; eta azeriak, bitartean, bere lezara iges egin.

ANTZARRAK

Elizondo'ko baserrian antzar-altra bat azten eben.

Antzarrok sekulako pikardiak egiten ebezan etxeko baratzean, eta errekaldera uxatzen zituan beti etxekoandreak.

Pozik ibiltzen ziran an, batez be udaldiko bero galdatan, erre-kako eskaillu eta txangurroak jan eta jan.

Eta oneik gitxituaz joiazanean, erreka ertzeko mitxeleta, mari-orratz eta beste mamarrokiak iruntziten ebezan samak luzatu eta pikuak zabalduaz.

Oneik be galduz joan, eta or ikusten dabe, zorionez ikusi be, alboko garitzea oritzen. Au be ba-zan gero...: len berde-berde egoana, ori-ori orain!

Eta ara doaz antzar guztiak, urre kolorezko galburuak jaten. Pik or, pik emen danak pozik ebiltzanean, alboko antzar zar batek, deadarka:

—Eta kontzientzia... kontzientzia?

Ori entzun eta iges egin eben batzuk.

Antzar zar ori erreka-ondoko sasi ta sastraketan atrapauta egoanez, sartu ezinda ebillan. Azkenez, esia urratu eta sartu da bera be garitzara. Eta orduan, besteai:

—Erreskan... erreskan...

Eta jan eta jan joian garitza guztian zear.

AZERIA TA SAIA

Bein baten, lukia, goitik beera etozan edur-malutai, begira egoan. Sai bat ondora etorri eta esan eutson:

—Zer egiten dok (dozu), lukito?

—Emen naiagon (nago) goitik beera datozen zer orreik zer ete diran, begira.

—Ez dakik (dakizu) zer diran? Oillo lumak lukito! Gaur zeruan izugarritzko ezteguak dituk (dira). Orreik danok andik botatako oillo lumak dituk (dira).

—Nik be antxe, zeruan, egotea nai neukek (neuke), ondo oillozalea nok(naz)-eta.

—Ba, ori baiño ez ba' dok (da), neuk eroango aut (zaitut), beingo baten. Jarri adi (zaitte) nire buztanetik dingilizka.

Eta lukiak agoaz buztanetik oratu eutson, eta egaz asi zan saia, luki ta guzti. Laiñoak baiño gorago igon ebenean, saiak esan eutson lukiari:

—Ondo ator (zatoz), lukito?

Eta lukia ixillik, ziur.

—Ondo atorren (zatozen) diraustat (dirautzut) —esan eutson barriro saiak.

Eta lukia ixillik, orain be.

—Erantzun egik (egizu), nai ba-dok (dozu); bestela goitik-beera botako aut (zaitut)!

—Bai —erantzun eutson lukiak. Baiña "bai" ori esateko aoa

zabaldur bear, eta tximistea baiño ariño asi zan goitik beera, ta bidean etorrela beko atxai inautsen:

—Alde ortik, atxok; alde nire bidetik!

Atxak, baiña, bertan itxaron eutsoen eta iztanda egin eban lukiak arein gainean jota.

ASTOA, TXAKURRA, KATUA, OILLARRA TA AARIA

Asto zar bat egoan etxe baten, ezertarako gauza ez zana. Eta morroiak esan eutson ugazabari:

—Asto ori il egin bear dogu, alperrik jaten dau-ta.

Astoak ori jakin ebanean, etxetik urten, eta aurrera joan zan. Eta txakur bat aurkitu eban bidean:

—Zer egiten dok (dozu) or, ezer egin barik?

—Biar ilgo naioek (nabe) zarra nazalako, eta ezertarako gogo barik naiagok (nago) emen.

—Ator (zatoz) neugaz.

Joan, joan eta joan, bidean euren kontuak esanez, eta etxe baten ondora eldukeran, katu bat ikusi eben leio baten gainean *miau, miau* larriz, eta:

—Zer dala-ta ago (zagoz) ain estu? —besteak

—Etxekoandreak il gura naiok (nau), txitea arrapau dodalako.

—Gu be aitzaki ber-berorregaitik gabiltzana (gabiltz) olan, eta oba don (dozu) il baiño len geugaz etorri.

Barriro be, joan, joan eta joan irurok batera. Eta oillar zar bat aurkitu eben sasipean, kukurruku egin eziñik. Eta irurak batera oillar gaixoari:

—Zer egiten dok (dozu) or sasipean kukurrukurik egin barik?

—Zer eukiko joat (dot), ba, biar ordu onetan, lapikoan egon bear joat (dot)-eta.

—Ator (zatoz) geugaz, or egotea baiño oba dok (dozu) aurrerantzean bizitea.

Aurrera joan laurok, eta aari bat aurkitu eben, ez bee, ez jan egiten ez ebana. Eta laurok aariari:

—Zer dok (dozu), orko sekulebedar gozo ori jan ezta egoteko?

—Zertarako jan? Gaur zortzi ezkontzen dok (da) etxeko alaba zarrena, eta ni ilgo naioek (nabe) eztaietan jateko.

—Ator (zatoz) geugaz, il gura ez ba dok (dozu).

Joan ziran, ba, danak aurrera, gabeko amabiak jo arte. Ordu onetan, argi bat ikusi eben lapur-etxe bateko leioan. Eta txakurra

zaunka asi zan bereala. Aaria izan ezik, beste danak ezkutau egin ziran. Eta au ateari topeka asi zan ekin eta ekin. Ikaratu ziran barruko lapurrak, eta beste lapur-talde aundien bat zalakoan, gorde egin ziran danak.

Aariak, baiña, jo ta jo apurtu eban azkenean ate ori eta danak barrura sartu ziran.

Astoak bertako argia bere arnaseaz amatau eban, eta bere ustezko toki egokiena artu eban bakoitzak: katuak sutondoa; oillar-rak ke-zulo gaiña; txakurrak ate-ostea; aariak eskaillerapea; eta astoak kortako atea.

Ixil-ixillik egozan danak. Lapurrak, baiña, jakitun egozan zere-nak izan ziran aurretiko zarata areik. Eta zotzetara egin eben nor etzeko sukaldera joan.

Eta ba-doa lapur au, astiro-astiro, sukaldera zuzen. Eta katuari ukutu eutson, uste barik. Eta sekulako erpakadak emon eutsozan onek. Lapurra zutundu zaneke, barriz, oillar-rak atzeko orkatza begi-tik sartu.

Ba-doa andik urtengurean gure lapur au, eta txakurrak aginka egiten dautso ate-ostean. Ba-doa eskaillera ondotik, eta topekada pilloa artzen dau gibel-ondoan. Eta kortara sartukeran, bertako astoak ostikada bi emonda, ankaz gora bota eban lapur gizajoa.

Lapur ori bestakana joan ez zanean, ez ziran oneik etorri, eta gure piztiok eurak jan eben lapurrak itzitako apari gozoa.

SAN PEDRO ETA ERLEA

Jesus, bere ikasleak lagun zituala, itxasbazterrean-zear joian baten, txalupa bat galdu-gordean ikusi eben. Eta San Pedro'k:

—Jauna, ara an gizonak baragarri itxasoan. Bategaitik guztiak galdu bear dabe.

Urrengo aize bolada batek jo eta tira-bira egin eben.

—San Pedro'k au ikusita, ortiko eta emetikoak esaten marmar ekion.

Gerotxoago, erlakume bat enbor batetik dingilizka ikusita, Jau-nak:

—Pedro, gorde egik (egizu) ori kolkoan.

—Eta Pedro'k, gorde.

Ba-doaz, ba-doaz, eta erle batek eztena sartu eutson Pedro'ri. Eta estu ta larri asi zan jo bat eta jo bestea.

—Zer dok (dozu), Pedro?

—Ba, Jauna, eztenka asi jat bat eta...

—Len, bategaitik besteak ito diralako, marmarrean asi az (za-ra)... Eta orain ik (zuk), erle batek eztena sartu daualako (dautsula-ko), guztiak il nai dozak (dozuz)?

MEZEA TA URA

Bai ei ebilzan mundu onetan Jesukristo eta San Pedro.

Eta eleiza bateko meza-txiliñak entzutean, esan eban Jesukris-to'k:

—Pedro, goazen eleiza orretako mezatara.

—Eleiza orretako abadea, ez da abade ona. Goazen beste bate-ra.

Ba-doaz aurrera ta aurrera. San Pedro egarri sutsuak jo, eta auxe esan eban:

—Maixua, egarriago naz egarriago! Pozik edando neuke ura, iñon ba'lego.

—Oa (zoaz) or beko zokora, ortxe aurkituko dok (dozu iturria. Joan zan eta suge bat aurkitu eban, agotik ura eriola. Bildur-bildur, baiña edaten asi zan. Eta Jesukristo'k goitik:

—Ta... Pedro?

—Ur ederra, maixua.

—Iturria zelangoa dok (da), ba?

—Sugeari dario agotik ura.

—Zergatik, ez dok (dozu) orduan, abade dongea izan arren, mezarik entzun gura izan?

ARRANOA, AZERIA ETA MOZOILLOA

Bein, arranoak areitz baten gaiñean egin eban abia. Antxe azten zituan bere umeak.

Alango baten, azeria igaro zan areizpetik, eta auxe esan eutson arranoari:

—Arrano egalari
emon ume bat niri.
Emoten ez ba'daustan (daustazu)
nik biar buztanakin
zarra-zarra areitzari.

Arranoa negarrez asi zan. Eta mozoilloa igaro zan andik. Eta
olan esan eutson:

—Zergaitik agon (zagoz) negarrez, arranotxo?
—Ume bat eskatu jaustak (daust) azeriak; eta bestela biar arei-
tza buztanaz botako dauala.
—Biar etorten ba'don (da), esaion (esan egiozu):

—Areitza botatzeko
bear da aizkolari
eta ez azeri.

Biarramonean etorri zan, barriro, bera azeria, eta olantxe esan
eutson arranoari:

—Arrano egalari
emon ume bat niri;
emoten ez ba'daustazu
nik biar bustanakin
zarra-zarra areitzari.

Eta arranoak, goitik:

—Areitza botatzeko
bear da aizkolari
eta ez azeri.

Eta azeriak:

—Nork esan dauna (dautsu) ori?
—Mozoillo orrek
—Artuko ditu orrek!

Eta azeria, ordutik, mozoilloa nondik arrapauko. Eta egun
baten, azeria sasi baten azpian egoala, mozoilloa sasiaren gainean
gelditzen ikusi eban eta *glask!* agin artean arrapau eban.

—Arrapau nok (nozu), arrapau nok (nozu), —mozoilloak. Azka-
rra az (zara). Baina nik ezagutu noioan (neban) azeri bat... axe bai
zala azkarra! Ik (zuk) abestuko al eunke (zeunke) arek lez:

—Nik mozoilloa jango
nik Mozoilloa jango?

Arrotu zan azeria, eta matrail-azurrak zabaldu. Eta iges egiten
dautso mozoilloak. Eta azeriak abestu eban orduan:

—Nik mozoilloa jango.

Eta mozoilloak erantzun:

—Ni barik, beste mozoilloa.

ASTOA TA OTSOA

Asto bat etorren Naparroa'tik Ataun'era, zaragi ardaoa bizka-
rrean ekarrela.

Eta otso batek urten eutson astoari bidera, oso gosetuta. Eta
astoak otsoari:

—Egarri al az (zara) egarri?
Ba-jaukat (daukat) iretzat (zuretzat) edari.
—Astotxo, ez nok (naz) egarri; baiña bai goseak larri.
—Or goian-goian artalde,
txakur guztien aparte.
—Orpoan jaukat (daukat) arantza,
ezin egin an triskantza.
—Or goian-goian ermita
San Bartolome deritza;
nik meza entzun dagidan arte
gaioazak (goazen) biok arantza.

Ez eban otsoak joan nai; baiña askenean, bera ardietara joan
arte, itzi eutson astoari ermitara joaten.

Baiña, astoak esandako tokian ardirik ez-eta, otsoa ermitara
joan zan. Astoak otsoa etorten ikusi-ta, atzeko anka biakaz ermitako
atea ostikoz itzi eban. Eta otsoak, orduan, amurru bizian:

—Asto zarra mukizu!
Ai, larregitxo dakizu.
Urrengoan nik arrapatzean
mezarik entzungo ez dozu.

Eta astoak ermita barrutik:

—Otsoko, maltzur piztia,
gaztetan gaizki azia;
biar ik (zuk) jango ba'nok (nozu) bere,
ba-joat (dot) gaurko bizia.

SARDIN-SALTZAILLEA

Sardin-saltzaille bat agertu zan bein, buruan otzara bete sardiñaz. Bidean azeria, bere burua iltzat eginda, etzunik egoan... Eta sardin-saltzailleak bere artean:

Errira eldutakoan alkateak bost ogerleko emongo dustaz azeri onegaitik. Narruak be, aundikien leporako izaten da-ta, zerbait emongo daust —esanaz, buztanetik oratu azeriari ta, *draps!*, otzara-ra bota eban.

Azeria, orduan, polito asi zan sardin eder areik banan-banan jaten. Otzarea ustu ebanean, *kask!*, urren egoan orma batera salto egin ta bere burua ezkutau eban.

Bitartean, sardin-saltzaillea alkateari zelan berba egingo asmauz joian.

Otso bat aurkitu eban azeriak bidean, eta esan eutson:

—Otsoko, nai al dok (dozu) naiko sardiña iruntsi?

—Bai orixe, azerito.

—Jarri adi (zaitte) or bide ondoan, eure (zeure) burua iltzat eginda... Jarri zan otso illik lez. Eta azeria urruntxuago joan zan bere bazkaria egosteko asmotan.

Sardin-saltzaillea erriratu zanean, atzarea burutik eratsi eban. Eta utsik ikusi ebanean, lengo bidera joan zan atzera, sardiñak jausi ete ziran ikusteko, ara bidean azeri guztiak madarikatuz.

Eta orra non aurkitzen dauan otso ori, leen azeria egoan lekuan bertan.

—Tximista gorria! Barrero be emen? —esanaz, otzara-buruaz joka azur guztiak ausi eutsozan.

Il-agiñean egoan otsoa, ulu eta karrazika. Azeriak entzun eta beregana etorriaz:

—Otsoko, artu dozak dozuz sardiñak?

—Sardiñak ez, baiña makillakadak bai!



BEÑARDO

Katalin eta Beñardo, neba-arrebak, umezurtz gelditu ziran, eta alboko senar-emazteak euren etxean artu ebezan.

Osaba esaten eutsoen umetxoak gizonari, eta izeko, andreari.

Egun baten, izekoak esan ei eutsen eskolatik lenengo etortzen zanarentzako katillu bete esne egongo zala arasean.

Lenengo Beñardo etorri zan. Arasara joan, atea edegi eta an ez eban esnerik ikusten.

—Izeko, emen ez da esnerik agiri!

—Bai, Beñardo, bai, ortxe dago; sartu burua.

Sortu ei eban Beñardo'k burua, eta izekoak atea itxi ta burua ebagi ei eutson. Gero, txiki-txiki egin eta topin baten egosten jarri.

Katalin etorri gero, eta itandu eutson izekoari:

—Etorri da Beñardo?

—Ez, ez da oraindiño etorri. Ortxe dago esnea arasean, eta artu. Baiña, Katalin'ek Beñardo'ren atzamarrak ikusi zituan topiñean gal-gal-gal irakiten, eta ez eban esnerik artu nai izan.

Orduan, izekoak:

—Artu bazkaria eta eroan osabeari solora.

Ba-joian Katalin negarrez bazkaria buruan eroiala, eta amama bat aurkitu eban bidean:

—Zer dozu, Katalin?

—Ezer be ez, berorrek ez daust zuzenduko-ta.

—Bai, maitea, bai, neuk zuzenduko dautsut. Begira, au ta au egin bear dozu, eta dana konponduko da. Ikusiko dozu!

Eldu zan osabeagana, eta amamak esan eutson lez, osabeak botatzen zituan azurrak batzen asi zan. Eta osabeak:

—Zertarako dozuz azur orreik, Katalin?

—Olgetako.

Joan zan etxera, eta baratzean zulo bat egin eta azurrak araxe sartzen asi zala, izekoak:

—Zertan zabiz, Katalin?

—Berakatzak aldatzen.

Urrengo goizean, osabeak, jagi zanean, zugatz bat ikusi eban baratzean, eta aren gainean Beñardo, esku batean naranja eder bat eta bestean ezpatea zituala. Eta osabeak:

—Beñardo, ekatzu naranja eder ori.

—Ezpata onen gainetik iru salto egiten ba'dozuz, bai.

Bat egin, bi egin, eta irugarrenean samea moztu. Izekoak ikusi gero, eta bardin:

—Beñardo, emoidazu naranja eder ori!

—Ezpata onen gainetik iru salto egiten ba'dozuz, bai.

Bat egin, bi egin, eta irugarrenean samea moztu.

Bere arreba Katalin'ek ikusi gero, eta onek be:

—Ai neure nebatxo Beñardo, ekazu neuri naranja eder ori!

—Ezpata onen gainetik iru salto egiten ba'dozuz, bai.

—Bai, osaba ta izekoari lez samea moztutzeko!

—Ez, zuri ez!

Egin ei zituan iru salto, eta Beñardo'k bere naranja ederra arrebatxo Katalin'i emon eutson, eta biak ederto bizi izan ei ziran, andik aurrera.

ZUZUBIL

Anai bi, bazkalondoan maian egozan, gurasoak andik jagita sutondoan berotzen ziran artean.

Anai batak, zer esan jakin ez-ta, bere ukubillak bata bestearen gainean ipiñita, bere kautan ziarduan:

—Bekoa, goian; goikoa, beean... Bekoa, goian; goikoa, beean...

Eta beti orrexeri ekin.

Beste anaiak, kanta au asi eban orduan:

—Zuzubil, Zuzubil, Zuzubil...! Sekula ez joat (dot) nik ikusi alkarren gainean, orrenbeste ukubil.

Eta lenengo anaiak orduan bestari, ukubil baten erdiko zuloa erakutsiaz:

—Au zer dok (da)?

—Ori...? —Arasea.

—Emengo ogia ta gaztaia non dituk (dira)?

—Txakurrak eta katuak jan jiteuzak (ditue).

—Non dituk (dira) txakurra ta katua?

—Eskaillerapean.

—Non dituk (dira) eskaillerak?

—Suak erre.

—Non dok (da) sua?

—Urak amatau.

—Non dok (da) ura?


—Txalak edan.

—Non dok (da) txala?

—Aitak eta amak aragitegira eroan.

—Aren diruak non dituk (dira) ba?

—Ondo gozoa iegoan (egoan) aregaz edan dogun txurruta.



KUKURRUKU

- Kukurruku
- Zer diñozu?
- Buruan min.
- Nok egin?
- Azeritok.
- Azerito non da?
- Basoan.
- Basoa non da?
- Suak erre dau.
- Sua non da?
- Urak amatau dau.
- Ura non da?
- Idiak edan dau.
- Idia non da?
- Garia ereiten.
- Garia non da?
- Oilloen errotan.
- Oilloak zertako?
- Arrautzak egiteko.
- Arrautzak zertako?
- Abadeari emoteko.
- Abadea zertako?
- Meza emoteko.
- Mezea zertako?
- Gu eta mundu guztia salbatzeko.

MARTIÑA TXIKI

Bein baten, Martiña izena eban neska txiki bat bizi zan. Eta amar urte izan arren, txiki-txikia zan, eta danak esan eutsoen Martiña txiki.

Goiz baten, eskaillerak garbitzen ebillan eta dirua aurkitu eban bertan. Joan zan aurreko dendara eta uruna erosi eban.

Andik etxe aurreko leiora joan zan, eta txakur bat ikusi eban bertan. Eta txakurrak esan eutson:

–Martiña txiki, ni zugaz bizitea gurako zeunke?

Eta Martiña txikik erantzun:

—Zelan egiten dozu zuk gabeen?
—Guau, guau!
—Ene! Zoaz, zoaz!
Emen dator gero oillar eder bat. Eta bardin onek be:
—Martiña txiki, ni zugaz bizitea gurako zeunke?
—Zelan egiten dozu zuk gabaz?
—Kukurrukuuuu!
—Ene! zoaz, zoaz!
Emen dator gero txita txikia bat, eta:
—Martiña txiki, ni zugaz bizitea gurako zeunke?
—Zelan egiten dozu zuk gabaz?
—Pio, pio, pio!
—Zugaz bai, zugaz bai!

SAGU ZURIA

Aitaita batek sagu txiki bat azi eban, neska kozkor bat ba'litz lez. Sagutxoak egiten eutsozan aitaitari bazkaria eta etxeko lanak.
Aundia azi zan, eta aitaitak esan eutson:
—Aundia azi zara, alabatxo, eta ezkontzeko urteak ba-dozuz. Ni zarra naz, eta pozik ilgo naz zu ezkondu ikusita.
—Baiña, nik ez zaitut itzi nai, aitaita!
—Bai, alabatxo, ezkondu egin bear dozu, ezkondu!
—Ezkonduko naz, ba; inguru onetako gizonik indartsuenagaz baiña.
—Inguru onetako indartsuena eguzkia da, eta berari eskatu bearko, zure gizona izateko.
Eta aitaitak eguzkiari:
—Eguzki, eguzki eder! Zu zara inguru onetako indartsuena. Nai al dozu izan gizon, nire sagu zuriarena?
—Aitaita, pozik egingo neuke. Ba-da, baiña, inguru onetan ni baiño indartsuagorik.
—Nor da, nor?
—Odeia. Askotan estaltzen nau ni odeiak. Eta ezin askotan lurra argitu.
Aitaitak, orduan, odeiari:
—Odei, neure odei zuri: zu zara inguru onetako indartsuena; nai al dozu izan gizon, nire sagu zuriarena?
—Bai, baiña, ba-da inguru onetan ni baiño indartsuagorik.
—Nor da, nor?
—Mendia. Askotan mendiak ez daust izten, nik nai lez ibiltzen.
Aitaitak, orduan, mendiari:

—Mendi, neure mendi aundi: zu zara inguru onetako indartsuena, nai al dozu izan gizon, nire sagu zuriarena?
—Bai, baiña, ba-da inguru onetan ni baiño indartsuagorik.
—Nor da, nor?
—Satorra. Or dabilkit, gau ta egun, neure barrua zulatu ta zulato, gelditu barik.
Aitaitak, orduan, satorrari:
—Sator, neure sator polit: zu zara inguru onetako indartsuena; nai al dozu izan gizon, nire sagu zuriarena?
—Bai eta pozik!

—Ni baltza naz, eta bera zuri;
nork egin barrerik guri?

Orrelantxe ezkondu ziran sator baltza eta sagu zuria.

KIRKILLA ETA TXINDURRIA

Negu gorriko egun baten, kirkilla, txindurriaren etxera joan zan. Tan-tan atean jo, eta txindurri batek urten eban zuloko atetik:
—Zer nai dozu, andere kirkilla?
—Limosnatxo bat, jaun txindurri!
—Zer jazotzen jatzu, ba?
—Bartko izotzak gure janari guztiak ondatu dauskuz.
—Itxaron, or, neure amari esatera noa.
—Zer dozu orren arduratsu, ene alabatxo?
—Kirkilla dago or, ate-ondoan, otzez dardaraz.
—Eta zer nai dau, ba?
—Gosez dagoala, eta jaten emoteko, mesedez!
—Jaten emon...! Txirri ta txirri da orren bizia udan, eta gero neguan ardurak.
—Gose ba-da, baiña?
—Esan egiozu kirkil orri: nai ba'dau neguan jan, gure antzera alegindu dedilla udan.
—Eta joan nai ez ba'dau?
—Itxi atea, eta etorri ona!

TXITATXOA

Txirtatxo bat ebillan bein jaten, eta ur bat gelditu jakon ezta-
rrian.

Ama oilla loka etxeko andreagana joan zan aringa, eta:

—Zatoz, etxeko andre, etorri nire txiteari urra ateratzen.

—Ez daukat, baiña, oiñetakorik. Zoaz zapatariagana, eta eskatu
nire zapatak.

Oilloa ba-doa arin-arin zapatariagana, eta:

—Zapatari, ekarri gure etxeko andrearen zapatak, urra atera-
tzen joateko nire txitatxoari.

—Ez daukat, baiña, narrurik. Esaiozu auntzari narrua emoteko.

Oilloa arin-arin auntzagana, eta:

—Auntzxo ekarri narrua niri,

nik emoteko zapatariari,
zapatariak zapatak egiteko etxeko andreari,
etxeko andreak urra ateratzeko nire txitatxoari.

—Baiña nire narrua gose da. Esaiozu zelaiari bedarra emoteko.

Oilloa arin-arin zelaiagana, eta:

—Zelai-zelaitxo, emon bedarra auntzari,
auntzak narrua emoteko zapatariari,
zapatariak zapatak egiteko andreari,
etxeko andreak urra ateratzeko nire txitatxoari.

—Baiña ni legor nago, eta ez daukat bedarrik. Esaiozu odeiari
ura emoteko.

Oilloa ariñeketan odeietara, eta:

—Odeitxoak, emon ura zelaiari,
eta zelaiak bedarra emongo auntzari,
eta auntzak narrua zapatariari,
eta zapatariak zapatak egingo gure etxeko andreari,
eta gure etxeko andreak urra aterako nire txitatxoari.

Eta odeiak emon eutson ura zelaiari,
eta zelaiak bedarra auntzari,
eta auntzak narrua zapatariari,
eta zapatariak zapatak egin gure etxeko andreari,
eta gure etxeko andreak joan aringa urrez tira,
eta urra atera eztarritik gure txitatxoari.
